



**2019-2020 IKASTURTEAREN  
ANTOLAKUNTZA  
BIGARREN HEZKUNTZAKO  
INSTITUTUETAN  
HEZKUNTZAKO  
SAILBURUORDEAK EMANDAKO  
EBAZPENA**



## AURKIBIDEA

<b>1. HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA PLANGINTZA</b>	<b>5</b>
<b>1.1. IKASTETXEKO HEZIKETA-PROIEKTUA.</b>	<b>5</b>
<b>1.2. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA.</b>	<b>5</b>
<b>1.3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP).</b>	<b>6</b>
<b>1.4.- URTEKO MEMORIA.</b>	<b>11</b>
<b>1.5.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK.</b>	<b>11</b>
<b>1.6.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK.</b>	<b>12</b>
<b>1.7 BIZIKASIEKIMENA.</b>	<b>12</b>
<b>1.8.- PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA ANTOLATZEKO.</b>	<b>15</b>
<b>1.9. IKASTETXEENTZAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEXUALEI EDO ARAUTIK KANPOKO GENERO-PORTAERA DUTEN IKASLEEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO.</b>	<b>15</b>
<b>2. IKASLEAK</b>	<b>16</b>
<b>2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA.</b>	<b>16</b>
<b>2.2 HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIABEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK (HLPB).</b>	<b>17</b>
2.2.1.- Hezkuntza-premia bereziko ikasleak (HPB).	17
2.2.2.- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak.	18
2.2.3.- Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak.	18
2.2.4.- Ikasleen eskolatzea ohiko onarpen-alditik kanpo.	19
2.2.5.- Baldintza pertsonal edo eskola-historia berezia duten ikasleak	20
<b>2.3.- BALORAZIOPSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA.</b>	<b>21</b>
<b>2.4. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA.</b>	<b>21</b>
<b>2.5. CURRICULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA TALDEAK.</b>	<b>23</b>
<b>2.6. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZA-ESPARRU OROKORRA.</b>	<b>24</b>
<b>2.7. ESKOLA-ORDUTEGIA.</b>	<b>24</b>
2.7.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak	24
2.7.2.- Batxilergoko eta Lanbide Heziketako zikloetako ikasleak	26
2.7.3. Araudiaren salbuespenak	28
<b>2.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA.</b>	<b>28</b>
<b>2.9. ERLIJIOA.</b>	<b>29</b>
2.9.1.- Erljioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	29
2.9.2. -Erljioa Batxilergoan.	29
<b>2.10- LANBIDE HEZIKETAKO PROIEKTU-MODULUA. GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK.</b>	<b>30</b>
<b>2.11. IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK.</b>	<b>31</b>
2.11.1.- Ebaluazioari buruzko arau orokorrak	31
2.11.2.- Errendimendu akademikoa objetiboki baloratua izateko eskubidea	32
2.11.3.- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak ebaluatzeako neurriak	33
2.11.4.- Salbuespenak eta baliozkotzeak	33
2.11.5.- Diagnostiko-ebaluazioa.	36
2.11.6.- Egokitzapenak Unibertsitateko sarbide-probetan (USP).	37
<b>3. IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK</b>	<b>37</b>
<b>3.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA.</b>	<b>37</b>
3.1.1.- Irakasgaiak eta taldeak banatzea	37
3.1.2.- Irakasleen ordutegia osatzeko modua	38
3.1.3.- Irakasgaien eta taldeen banaketa eta ordutegia onartzea eta ezagutzera ematea.	39
<b>3.2.- URTEKO LANALDIA.</b>	<b>39</b>



<b>3.3.- ASTEKO LANALDIA.</b>	<b>39</b>
<b>3.4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTELAKO KARGUAK.</b>	<b>44</b>
<b>3.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA. LANORDUAK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA.</b>	<b>47</b>
<b>3.6.- DEPARTAMENTUAK.</b>	<b>48</b>
<b>3.7.- ORIENTAZIOKO DEPARTAMENTUA.</b>	<b>54</b>
<b>3.8.- HEZKUNTZA-ARRETA.</b>	<b>56</b>
<b>3.9. TUTORETZAK.</b>	<b>57</b>
<b>3.10. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IRAKASLEEN TUTORETZA</b>	<b>59</b>
<b>3.11 KULTURA ARTEKO PROIEKTUAREN IRAKASLE DINAMIZATZAILEAK.</b>	<b>59</b>
<b>3.12 HIZKUNTZA INDARTZEKO IRAKASLEAK.</b>	<b>64</b>
<b>4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAUBATZUK.</b>	<b>64</b>
<b>4.1. IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO.</b>	<b>64</b>
<b>4.2. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA.</b>	<b>64</b>
4.2.1.- Osasun-larrialdiak ikastetxeetan.	64
4.2.2.- Osasun-arreta eskola-orduetan.	65
4.2.3.- Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua.	65
4.2.4.- Obrak	65
4.2.5.- Tabakoa eta alkohol-dun edariak.	65
4.2.6.- Eskolako laborategien erabilera.	66
<b>4.3. LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUAK.</b>	<b>66</b>
4.3.1.- Segurtasuneko laguntzailea.	66
4.3.2.- Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan.	66
4.3.3.- Larrialdi-simulakroak.	67
4.3.4.- Botikin eramangarria.	67
4.3.5.- Laneko istripuak.	67
4.3.6.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa.	67
<b>4.4.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUAREN TRAMITAZIOA ETA ORDAINKETA.</b>	<b>67</b>
<b>4.5.- DATU PERTSONALEN BABESA</b>	<b>68</b>
<b>4.6.- IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA</b>	<b>69</b>



## BIGARREN HEZKUNTZA

### HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2019-2020 IKASTURTERAKO

#### SARRERA

2019-2020 ikasturterako aurkezten den ebazpenak kontuan hartzen ditu Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea, Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretua eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten 236/2015 eta 127/2016 Dekretuak eta, gainera, ikastetxeen antolaketa eta erabileraren arloko alderdi esanguratsuenak arautzeko hartutako konpromisoerantz ematen die.

Legealdi honetarako gobernu-programaren barruan sartzen dira:

- Kalitatezko eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egitea, bikaintasunerantz aurrera egiteko;
- Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoa lortzea gure ikastetxeetan;
- Eleaniztasuna bultzatzea eskolan;
- Hezkuntza-sistamarako sarbidean berdintasuna bermatzea;
- Irakasleen eginkizuna sustatzea, hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusiak diren aldetik;
- Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatzea.

Era berean, badira oinarrizko hezkuntza-politika bati aipamena egiten dioten erreferentziak hala Europako esparruan nola Nazio Batuenen. Alde batetik, Europako 2020rako helburuek honako hauek azpimarratzen dira:

- Haur Hezkuntzako eskolatzea;
- Oinarrizko gaitasunak garatzea, batik bat, atzerriko hizkuntzetako gaitasunak;
- Eskola-uzte goiztiarra;
- Goi-mailako hezkuntzako titulazioa;
- Bizitza osoan zeharreko prestakuntza.

Ildo berean, hauxe azpimarratzen du UNESCOren 2030erako proposamenari lotutako Euskadi Basque Country 2030 Agendaren laugarren helburua:

- Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

Gainera, hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua eta hezkuntza-sistema hobetzeko plana erreferenteak dira honako hauen inguruko erabakiak hartzeko:

- Hezkuntzaren xedeak eta ikasleen irteera-profil orokorra, Oinarrizko Hezkuntzan.
- Curriculumaren edukiak
- Metodologia
- Ebaluazioa
- Hezkuntza-eredu pedagogikoa ezarri eta hobetzeko ildo estrategikoak

Bukatzeko, "Hezkuntzaren aldeko akordioa, akordiorako oinarriak" dokumentuaren erreferentziak identifikatzen ditu ala hezkuntza zein testu inguru berritan mugitu behar den nola zein erronkaugarri aurrek egin behar dien



## 1. HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA -PLANGINTZA.

Ebazpenaren lehenengo puntu honetan plangintzaren alderdiak azalduko dira eta bigarren hezkuntzako institutu guztiek 2019-20 ikasturtean kontuan izan beharreko lehentasunak edo gutxieneko ezaugarriak ezarriko dira.

### 1.1. IKASTETXEKO HEZIKETA-PROIEKTUA. <sup>1</sup>

Ikastetxeko heziketa-proiektua (IHP) ikastetxeak dituen ezaugarriak aztertu eta gero egindako proposamen integral, global eta loteslea da, eta zentroaren balioak, printzipioak, helburuak eta horiek lortzeko moduak zehazten ditu.

IHParen ataletan jasotzen diren alorrak (indarreko araudiarekin bat etorriko dira, edozein kasutan) kontuan izan behar dira nahitaez ikastetxeak bere eskumen-eremuan hartu behar dituen erabakietan. Euskal Eskola Publikoaren Legearen 48.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragileak –irakasleak, ikasleak, familiak eta langile ez- irakasleak– behartuta daude proiektuaren ataletan adierazten dena errespetatzera eta, nolana ere, aukera izango dute horiek berrikustea eta eguneratzea proposatzeko, proiektuan bertan ezarritako mekanismoak baliatuta.

Ikastetxe guztiek bere IHPa egina edo eguneratua izan behar dute. Lan hori errazte aldera, Hezkuntza Sailak ikastetxeko heziketa-proiektua prestatzeko gida argitaratu du. Horrekin batera, EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean jasotzen diren lerro estrategiko hauek ere kontuan hartzea gomendatzen da:

- Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta
- Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan
- Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia
- Ebaluazioa eta ikerketa
- Ikastetxe publikoen autonomiansakontzea

### 1.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA. <sup>2</sup>

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuak hezkuntza-komunitatearen barneko hizkuntza-plangintzarekin zerkusia duten alderdi guztiak jasoko ditu, euskara ardatz izango duen elebitasuna sendotzeko eta eleaniztasuna sustatzeko xedez. Honako araudi hau izango da kontuan horretarako: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoa, 17. artikulua; 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena; 201/2008 Dekretua, Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa; eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak zehazten dituzten 236/2015 Dekretuaren 10., 11. eta 24. artikulua eta 127/2016 Dekretuaren 10., 11. eta 23. artikulua.

Hizkuntzei buruzko erabakiak ez dira soilik hizkuntza-arloko irakasleen ardura. Hizkuntza komunikaziorako tresna da eta lotura dauka oinarrizko zeharkako gaitasunarekin; beraz, ikastetxeko eremu edo ikasgai bakoitzean eta guztietan argatu behar da. Horrenbestez, 19-20 ikasturtean hizkuntza-proiektua garatzeko lehentasunezko ahalegina ikastetxeak berak eremu didaktiko eta metodologikoan erabakiak hartzea eta gauzatzera zuzenduko da, eta batik bat hizkuntzen trataera integrala, irakurtzeko gaitasuna eta ahozko adierazpenarekin zerkusia dutenak bultzatzera.

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). Ikastetxeko heziketa-proiektua prestatzeko gida

<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritza (2016). Ikastetxearen hizkuntza-proiektua prestatzeko gida



Aurrekoaren ildotik, ikasgai eta arlo guztietako irakasleek hitzeko komunikazioko, ez-hitzezeko eta digitaleko oinarritzko zeharkako gaitasunaren helburuak, edukiak eta irizpideak sartuko dituzte euren urteko programazio didaktikoetan, testuen idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita. Zeregin hori errazteko, ikastetxeek IRAKURGUNEA tresna dute orientazio modura eta hor proposatzen da irakurketa Planaren oinarritzko eredu bat ikastxearentzat.

Ikastetxe guztiek bere ikastetxearen hizkuntza-proiektua egina edo eguneratua izan behar dute. Lan hori errazte aldera, ikastetxearen hizkuntza-proiektua prestatzeko gida argitaratu du Hezkuntza Sailak.

Halaber, EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren 2.3 lerro estrategikoa kontuan izatea gomendatzen da, baita hezkuntza eleaniztunaren esparruan elebitasunaren garapenari lotutako baliabideak zein urteroko deialdiak ere.

Ikastetxearen hizkuntza-plana egiterakoan euskara izango da ardatza, eta Ulibarri programa maila goreneko erreferentzia da, hizkuntza-normalizazioko proiektuen bidez ikasleen komunikazio- gaitasuna indartzen duelako. Ondorioz, 2019-20 ikasturtean, hizkuntza-normalizazioko planak dituzten ikastetxeek horiek eguneratzen eta ezartzen jarraitu behar dute, irteerako profileen aurreikusitako komunikazio-gaitasunak lortzera bideratutako metodologiak eta didaktikak lehenetsiz.

### 1.3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP).<sup>3</sup>

Ikastetxearen urteko plana koordinatzeko ardura zuzendaritza-taldeari dagokio. Eskolako ordezkari-taldea gorenak onartu behar du Plan hori, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean irakaskuntza-jardueren programarengainean klausuroariek lehenetsitakoak diren ereduak erabiliz.

Ikastetxeek ikasturte hasieran prestatuko dute 2019-2020 ikasturterako IUPa, ikastetxearen jarduerak planifikatzeko, antolatze eta kudeatzeko tresna gisa, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute **urriaren 31** baino lehen Sailaren webgunean dagoen «Hezkuntza Ikuskaritza / Dokumentuak» plataforma informatikoaren bitartez.

IUPa laburra eta zehatza izango da, plan erabilgarri eta praktikoa izan dadin ikastetxearentzat berarentzat, eta Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidan jasotako gomendioei jarraituko die.

Planak alderdi hauek hartzen ditu barne:

- a) Irakaskuntza-jardueren programa
- b) Prestakuntza-plana
- c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programak
- d) Urteko kudeaketa-programa

#### a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari dagokio programa hori egitea eta, hala badagokio, klausuroak eskuordetu dezakeen batzorde bati.

Irakaskuntza-jardueren programak zenbait erabaki eta irizpide biltzen ditu ikastetxea eta eskola-jardura antolatze, barneko eta kanpoko ebaluazioak kontuan izanik. Horretarako, alderdi hauek izango dira:

1. Diagnostiko-ebaluazioen edo kanpoko beste ebaluazioen eta barneko ebaluazioen emaitzak aztertu ondoren onartutako hobekuntza-proposamenak. 2019-20 ikasturterako hobekuntza-helburuak definitzeko dira, irakurmena eta ahozko adierazpena lehenetsiz.
2. IHPTik, bizikidetzaren (zentroak Bizikidetasun Ekimena ezartzeko eta berdintasun-alorrean eta genero indarkeriaren prebentzioan aurrera egiteko garatutako jarduerak barne), hizkuntza-proiektutik (irakurketa-plana lehenetsiz), aniztasunerako arreta-planetik eta zuzendaritza-proiektutik (halakorik balego) eratorritako helburu eta ekintzak.

<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritza. Ikastetxearen urteko plana prestatzeko gida



Atal honetan bilduko dira hauek ere:

- Hamaika Eskudo Hauspoa programetan parte hartzen duten ikastetxeek, gainera, programa horietan jasotzen diren helburuak eta ekintzak gaineratuko dituzte.
- Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan, berriz, enplegurako prestatzeko jardueren programa ere jasokodute.
- Programan bilduko dira, orobat, ikastetxeak parte hartzen duen Hezkuntza Sailaren esperientziak eta programak eta ikastetxean ikasturtean zehar gauzatuko diren proiektuak, bereziki Hezkuntza Sailak edo beste sail batzuek nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo Europar Batasuneko beste erakundeek onartutakoak.

Horretarako, alderdi hauek izango dira kontuan:

- Irakasleei zereginak esleitzeko eta irakaskuntza-lanaldia zein ikastetxean egon beharreko aldia zehazteko irizpideak, tutoretzen banaketa, hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleekin esku hartzea eta horiei jarraipena egitea, jardun inklusiboen arabera hezkuntza-laguntza eta -errefortzua antolatzeke. Hori guztia, egokitasunaren eta egokitzapen hobereana lehenetsita, administrazio-irizpide soilaren aldean (antzinatasuna irakasletzan zein ikastetxean, etab.).
- Ikasleak elkartzeko irizpideak, erabilera komuneko guneen banaketa, baliabide didaktikoen antolaketa, azterketen datak eta abar.

Ez da beharrezkoa izango IUPan errepikatzea eskolako jardueren agirian (EJA) jasotako datuak.

### **Hezkuntza Beharren Indizea (HBI) eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetarako baliabide gehigarrien esleipena EAEn**

Euskal Autonomia Erkidegoaren Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen lan-jarduera hobetzeko eta, hartara, ikasleen dibertsitateko arreta hobea eta emaitza hobek lortzeko, betiere eskola inklusiboaren ikuspegitik, Hezkuntza Sailak "HEZKUNTZA BEHARREN INDIZEA" sortzea pentsatu zuen, testuinguruko zirkunstantzia berezien arabera ikastetxe bakoitzeko beharrak detektatzeko tresna izan zedin. Era horretan, behar horietarako erantzun malgu eta egokituagoak eman nahi zituen.

Mota horretako tresna bat erabiliz, Administrazioak konpentsazio-neurriak diseinatu eta ezar ditzake, bikaintasunerantz aurreratzen duen ekitatean oinarritutako sistema baterako bilakaera errazteko.

Hezkuntza Sailak azterlan bat egin du ikastetxe eta hezkuntza-eredu bakoitzeko ikasleen emaitza akademikoetan eragin handiena duten testuinguru-aldagaiak zein diren kalkulatzeko. "Eredu" aldagaia kontuan hartu da, alde handia sumatzen baita emaitzetan hezkuntza-eredu desberdinetako taldeetan ikastetxe beraren barruan.

ISEI-IVEIk eta Hezkuntzako Ikuskaritzak EJI Eren lankidetzaz egindako azterlanean, emaitzetan gehien eragiten duten aldagaiak zein diren zehaztu da, haietako bakoitzaren eragina kalkulatu da, eta indize bat ezarri da, EAeko ikastetxe publiko guztietan, 0 eta 25 puntu artekoa.

HPBI osatzeko kontuan hartu diren aldagaiak hauek izan dira:

- 2018ko Eskola Emaitzak (EsEm, ikastetxe bakoitzeko barne-ebaluazioa).
- 2017ko Diagnostiko Ebaluazioaren emaitzak.
- ISEC (ED2017n oinarritua).
- Errepikatzen duten ikasleen tasa.
- Beka kopurua.
- Atzerritar ikasleen ehunekoa (atzerritar jaiotakoak edo atzerritar gurasodunak).
- Berariazko hezkuntza-laguntza beharrak (BHLB) dituzten ikasleen ehunekoa.



- Jarraikortasun tasa (ikasleek ikastetxe berean jarraitzeko joera).
- Kurrikulum aniztasuna

Eskola-emaitei dagokienez, hala barnekoak nola diagnostiko-ebaluaziotik sortutakoak, beheko arlo edo gaitasunetan hasierako egoeran (ED) dagoen ikasleen edo ebaluazio negatiboa duten (EsEm) ikasleen ehunekoa kontuan hartu da: gaztelania, euskal hizkuntza, atzerriko hizkuntza, matematikak, natur zientziak eta gizarte-zientziak.

Aldagai bakoitzaren pisua komunitate bateko ikastetxe eta eredu bakoitzera aplikatutakoan, Otik 25 arteko sailkapen bat lortu da ikastetxe-eredu bakoitzeko, eta bi maila ezarri dira:

- Hezkuntza Beharraren Indizea. 1. lehentasuna: 25 eta 22,5 puntu artean dagoen ikastetxea-eredua. Egoera horretan, 1 irakasle-lanpostu esleituko da ikastetxe-ziklo-eredu bakoitzeko.
- Hezkuntza Beharraren Indizea. 2. lehentasuna: 22,5 eta 20 puntu artean dagoen ikastetxea-eredua. Egoera horretan, 0,66 irakasle-lanpostu esleituko da ikastetxe-ziklo-eredu bakoitzeko.
- Hezkuntza Beharraren Indizea. 3. lehentasuna: 20 eta 18,5 puntu artean dagoen ikastetxea-eredua. Egoera horretan, 0,33 irakasle-lanpostu esleituko da ikastetxe-ziklo-eredu bakoitzeko.

Kalkulu horretarako, kontuan hartu da bi ziklok osatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa Lehen zikloa 1. eta 2. maileri dagokie, eta bigarren zikloa 3. eta 4. mailerik osatzen dute.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak bi zikloei dagozkien baliabideak integratzen ditu eta ikastetxe bakoitzari emaitzako guztizko baliabidea esleitzen dio.

2019-2020 ikasturterako plantillak konfiguratzeko prozesuan, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak Ikastetxeei jakinarazi die HBIa kalkulatzearen emaitzei lotutako plantilla-gehikuntza bat lortu dutela. Jakinarazpen hori 2018-2019 ikasturtea amaitu aurretik egin du, ikastetxeetako zuzendaritzek behar bezala planifikatu ahal izan ditzaten baliabide gehigarriaren kokapena eta egitekoa, ikastetxeko irakasle taldearen lana osatzeko.

Ikastetxe bakoitzari esleitutako baliabide gahigarria lanpostu-herenetan esleitu da. Ikastetxeetako zuzendaritzetara fitxa bat bidali da ikastetxe bakoitzak lanpostu zati horiek profilatzen dituzten eta kontutan har ditzaten ondoren, ikastetxearen Lanpostu Zerrenda orokorra egiterakoan lanpostu osoak profilatzen saiatuz.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen baliabide gehigarria lortu duten ikastetxeetako zuzendaritzek atal bat sartu behar izango dute haien Ikastetxeko Urteko Planean (IUPen), baliabide horretarako aurreikusitako interbentzioa azaltzeko.

Atal horretan, egin beharreko jarduna adieraziko da, kontuan hartuz proposatutako helburua eskolako emaitzak hobetzea dela. Ondorioz, baliabide gehigarri hori zuzeneko irakasle-jardueretara bideratuko da, dela klaseak bananduz edo hezkuntza-indargarrien bidez, ikasgelan bigarren irakasle bat sartuz, dela beharrezko duten ikasleei banakako arreta emateko.

Halaber, ikasturtean lortu nahi diren helburuak adieraziko dira, eta horien lorpenari buruzko prozedurak eta adierazleak finkatuko dira, egindako proiektua ebaluatu ahal izateko. Ebaluazio honen emaitzak 2019-2020 ikasturteari buruzko urteko txostenera eramango dira.

Aldi berean, gainerako irakasle-lantaldearekin aurreikusitako koordinazioak edo loturak ezarri





behar dira, jardunek al bait eragin handiena izan dezaten eta haiek metodologia- zein didaktika-planteamendurekin bat etor daitezten.

## b) Prestakuntza-plana

IUParen zati hau prestatzea zuzendaritza-taldeari edo pedagogia-batzordeari dagokio, eta ordezkaritza-organoren onartu behar du.

Plan horrek barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak eta proposatutako hobekuntza-helburuak aztertu ondoren hautemandako beharrei erantzun die.

Planean honako hauek jasoko dira:

- Ikastetxeko prestakuntza-proiektuak, hala prestakuntza-ekimen globalaren ondoriozkoak nola Hezkuntza Sailaren deialdietakoak.
- Egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza, ERASMUS+ programako KA1 ekimenaren barruan Europako Batzordeak finantzatzen dituenak barne (parte-hartzaileak, arduradunak, datak eta ordutegia).

Prestakuntza-ekimen globalarekin lotutako prestakuntzari emango zaio lehentasuna. Ildo horretatik, ikastetxe guztietan ezartzen jarraituko da, Hezkuntzako sailburuordeak prestakuntza- ekimen globala EAEko ikastetxeetan ezartzeko eman dituen jarraibideen arabera hautatu diren moduluak garatzeko.<sup>4</sup> Gogorarazten da Bizikasi ekimena eskaintako bizikidetza-moduluaren parte dela, garapen bereizi batekin.

2019-2020 ikasturtearen hasieran, irakasleentzat eskuragarri jarriko da zenbait orientazio eta erreferentzia proposatzen dituen STEAMGUNEA izeneko tresna berria, baita ikastetxerako STEAM Planaren oinarritzko eredu bat ere.

Irakasleei eta hezkuntza-komunitateari steam plana egiten laguntzeko, zonako berritzeguneen aholkularitzek Steamgunea tresna aurkeztuko dute beren erreferentziako klustroetan, ikasturtearen lehen hiruhilekoan.

Horren haritik, matematikako eta zientziako gaitasunen moduluekin lotuta, steam eremuarekin lotura duten ekintzak sustatuko dira, hau da, ikasketa-egoeren bidez zientzia, teknologia, ingeniariaritzak, arte eta matematiketako irakasgaiak elkarrekin harremanetan jartzen dituzten ekimenak. Era berean, ikasturte honetan, adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko 2019-2022 Plana dago.

Gogoan izan behar da ikasturtean zehar ekitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza bultzatzeko bere gain hartutako konpromisoei erantzuteko, EAEko ikastetxe batzuek parte hartuko dutela hezkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko ekimenetan (EUSLE gelak, iritsi berriak diren ikasleentzat edo euskara irakasteko didaktika eta metodologia hobetzeko), baita gizarte-kohesioa lortzearekin eta oinarritzko gaitasunak hobetzearekin lotutako beste ekimen batzuetan (gizarte- eta hezkuntza-proiektuak).

IUPan aurreikusitako prestakuntza-jardueretan irakasleen parte-hartzea nahitaezkoa izango da, eta haren berri jaso behar da.

Gomendagarria da ikasturtearen hasieran, zuzendaritzak planifikatzea irakasle guztiak aldi berean ikastetxean egongo direneko aldiak, guztiak aldi berean egotea eskatzen duten prestakuntza-lanetarako.

<sup>4</sup> Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideak, EAEko ikastetxeetan prestakuntza-ekimen globala ezartzeari buruzkoak (2017)



IUPan aurreikusitako prestakuntza-jardueretan irakasleen parte-hartzea nahitaezkoa izango da, eta haren berri jaso beharko da.

Gomendagarria da ikasturtearen hasieran, zuzendaritzak planifikatzea irakasle guztiak aldi berean ikastetxean egongo direneko aldiak, guztiak aldi berean egotea eskatzen duten prestakuntza- lanetarako.

Prestakuntza-plana hezkuntza-komunitateko kide guztientzat egongo da zabalik, eta irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko jardunean eragina izatea izango du xedetzat, ikasleek irteerako profila lor dezaten eta barneko zein kanpoko ebaluazioen emaitzak hobetu daitezzen.

### c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programa

Ikastetxe batek, jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak planifikatzean, ikasle guztiak izan behar ditu kontuan, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Ikasle guztiek dute horietan parte hartzeko eskubidea, beraz hori aurreikusi beharko da, eta, ikastetxeak dituen baliabideak (irakaskuntzako eta hezkuntzako profesional guztiak) aintzat hartuta, egokienak zein diren hautatu beharko da, inor kanpoan ez uzteko.

Zuzendariak, edo zereginetan ordezkatzen duenak, eskola-orduetan ikasleek egiten dituzten irteeren eta zentroan bertan edo handik kanpo egiten dituzten eskolaz kanpoko jardueren erregistro bat eramango du; erregistroa etengabe eguneratuko da eta honako elementu hauek jasoko ditu: helburuak, parte hartzen duten ikasleak eta irakasleak eta egingo den data eta tokia. Erregistro hori ordezkari- organo gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura egongo da ikastetxean.

- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak Urteko Planean jasota egon behar dira eta, hala ez denean, ordezkari- organo gorenak aurrez onartu beharko ditu eta Plan horretan jaso.
- Jarduera osagarriak lotesleak dira ikasleentzat zein irakasleentzat, eta eskolako ordutegian txertatzen dira osorik edo zati batean.
- Gogoan izan behar da eskolaz kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena behar dela. Joan-etorri guztiak jasangarritasun-irizpideak aintzat hartuta antolatuko dira.

Honako hauek jarduera osagarriak dira:

- Egonaldiak barnetegi-erregimenean
- Ikastetxeko jaiak
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Gelaz kanpoko jarduerak: bisitak, landa-lanak...
- Irteerak, ikasturte-amaierako bidaiak, ikasle-trukeak...

Ikasleren batek ez badu irteeran parte hartzen, ikastetxean behar bezalako arreta jasoko du eskola-egun osoan.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleekin batera gutxienez bi profesionalak egon beharko dute beti, eta horietako bat, gutxienez, ikastetxeko irakaslea izango da; hala dagokienez, hezkuntza-laguntzako espezialistek ere egon beharko dute. Bestalde, ikasleei laguntzeko irakasle kopuruari dagokionez, gutxienez irakasle bat egongo da 20 ikasleko edo irakasle bat 10etik gorako zatikiko, betiere aurrez aipatu gutxieneko irakasle kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duten ikasle irakasle-taldeko kideak izango dira.

Jarduera osagarriak ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten direnean eta irakasleek bertan gaua eman behar dutenean, ikastetxeko zuzendaritzak, klaustroak proposatuta eta ordezkari- organo gorenaren oniritziarekin, orduen araberako konpentsazioa eman ahalko die. Ikastetxearen ardurak izango da bere barne-antolaketa bidez ordu horiek ordezkatzeko.



### Eskolaz kanpoko jarduerak:

Irakaskuntza-orduez kanpo egiten dira, eta borondatezkoak dira. Jarduera horien plangintza egiterakoan helburuak, taldeak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira. Jarduera horien alderdi edo ondorio ekonomikoak urteko kudeaketa-programan jaso beharko dira.

Irakurketa ludikoarekin, gizarte-kohesioarekin, eta steam programarekin (lantegi zientifikoak eta egunerokotasunari lotutako matematikak) zerikusia duten eskolaz kanpoko jarduerak bultzatzea gomendatzen da. Halaber, inklusioa eta hezkidetzak bultzatzen duten jarduera fisikoko ekintzekin ere bai.

#### d) Urteko kudeaketa-programa

Ikastetxeko kudeaketa-proiektua, hain zuzen ere, urteko kudeaketa-programan hezurmamitzen da, aurrekontua egin eta onartzea izanik adierazlerik garbiena, zeina uztailearen 28ko 196/1998 Dekretuan (1998-09-14ko eta 1998-09-23ko EHAA) ezarritakoari jarraituz egin beharko baita.

Zuzendaritza-taldeak edo batzorde iraunkorrak landu behar du IUParen zati hau, eta ordezkaritza-organo gorenak onartu.

Programa honetan jasoko dira gastua dakarten jarduerak, besteak beste jantokia, garraioa eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-iturriak, gastu-aurreikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar. Egiterakoan, erosketak berdeko eta kontsumo jasangarriko irizpideak zein berdintasuna sustatzekoak sartzea gomendatzen da.

### 1.4.- URTEKO MEMORIA.

Zuzendaritza-taldearen ardura da memoria idazteko lana koordinatzea. Ikastetxearen urteko plana zenbateraino bete den aztertuz eta lortutako eskola-emaizak kontuan izanik, eta diagnostikorako ebaluazioaren zein kanpo-ebaluazioen emaizak aztertuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egin behar du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza- proposamenakegin beharditu, eta lehentasunak finkatu behar ditu, hots, ikastetxearen hurrengo planaren helburuak. Memoriak ikastetxearen ikuspegi global eta bateratua eskaini beharko du.

Eta ordezkaritza-organo gorenak onartu behar du. Zentroek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura jarriko dute irailaren 16a baino lehen, Sailaren webguneko «Hezkuntza Ikuskaritza / Dokumentuak» plataforma informatikoaz baliatuta.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, eta Hezkuntza Sailaren web-orrian aurki daitekeen gidako gomendioei jarraituko die.

### 1.5.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK.

Europa 2020 Estrategiarekin eta 2020-2030 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin bat etorritik, ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko irizpideak eta eskola-bizitzan baliabideen kontsumoa kontrolatu eta murrizteko neurriak sistematikoki txertatu behar dituzte eskolako bizitzan.

Ildo horretan, ikastetxeek bere jasangarritasun-konpromiso propioak zehaztu behar dituzte, bai curriculum-proiektu propioan, bai kudeaketaren eta komunitatearen parte-hartzearen arloetan. Horrenbestez, ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko helburu eta jarduera horiek beren hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP, ...) jaso behar dituzte.

Horretarako, Ingurugela ingurumen-hezkuntzako zerbitzuaren laguntza izango dute.



## 1.6.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorritik, ikastetxeek pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredu batean lan egin behar dute, sexuaren arabera estereotipoak eta rolak alde batera utzita, diskriminazio mota oro baztertuta eta generoaren arabera bereizi gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuta. Eredu horrek oinarri hartu behar du, baita ere, genero-indarkeriaren prebentzioa, hau da, sexismoan sustraituta dagoen edozein motatako indarkeriaren prebentzioa.

Ildo horretan, ikastetxeek beren berdintasun-konpromisoak zehaztu behar dituzte beren hezkuntza-politikan, -kulturan eta -jardunbideetan. Horrenbestez, ikastetxeek berdintasuna sustatzera eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako helburu eta jardura horiek hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, Bizikidetzak Plana, ICP, AJA, IUP...) jasobehar dituzte.

Ikastetxeek hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako proiektuak garatuko dituzte, eta, arlo guztietako curriculum diseinatu eta garatzean, aipatutako legean eta *“Berdintasunaren eta tratu onaren bidean, euskal hezkuntza sistemarako II. Hezkidetzak Plana (2019-2023)”* planean jasota dauden hezkidetzak-helburuak txertatuko dituzte. Gainera, 2019-2020 ikasturtean eta hurrengoetan, ikastetxeek jardun hauek gauzatu beharko dituzte:

- Klaustroan hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea, pertsona hori BAT (Bizikasi) taldean sartuko dela bermatuta.
- Ordezkaritza Organo Gorenean hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea.
- Ikastetxeetako bizikidetzaren behatokiari ikastetxeak egiten duen hezkidetzak-lanarekin lotutako eginkizunak gehitzea.
- Ikastetxearen Hezkidetzak Plana lantzea edo berritzea, balego.
- Tutoretza- eta orientazio-planetan genero-ikuspegia txertatzea, hezkidetzaren euskarrietan oinarrituta.
- Eskolaz kanpoko jarduerak genero-ikuspegiak eskaini eta egin daitezkeen sustatzea.

2019-2020 ikasturterako hautatutako ikastetxeek hezkidetzaren zortzi euskarriekin eta horiek ikasgelan garatzearekin lotutako prestakuntza jasoko dute.

Jakina denez, Emakundek aipatutako planean laguntzen du gazteen artean indarkeria sexista prebenitzera bideratutako Beldur barik programaren bidez<sup>5</sup>.

## 1.7 BIZIKASI EKIMENA.

Bizikasi «Elkarbizitza positiborako eskola-jazarpenaren aurkako ekimena» da, eta eskola- jazarpena ikuspegi sistemiko eta integral batetik lantzen du; elkarbizitza positiboa hobetzea eta ikasleengan gaitasun prosozialen garapena sustatzera bideratuta dago. Jazarpen-kasu posibleen prebentzioa eta hautemate goiztiarra dira esku-hartze honen oinarria, bai eta kaltetutako harremanak berrezartzea ere.

Bizikasik helburu nagusi bat eta esku hartzeko hiru maila erabiltzen ditu horretarako dagokion helburu espezifikoekin.

<sup>5</sup> <http://beldurbarik.org/eu/>



## HELBURUA: IKASTETXEA, INDARKERIARIK GABEKO GUNEA

### HELBURU NAGUSIA:

Ikastetxeak elkarbizitza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik toleratzen ez duten espazio bihurtzea da Bizikasi ekimenaren helburua. Izan ere, hori lortzea ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren xede nagusia betetzeko, alegia: ikasle guztiei laguntzea haien garapen pertsonalean zehar eta, konpetentziak eta tresnak ematea gizartean parte har dezaten herritar aktibo eta arduratsu gisa.

### LEHENGO HELBURU OROKORRA: INDARKERIA PREBENITZEKO PREBENTZIO-JARDUERAK BURUTZEA

#### (ESKU-HARTZEKO LEHENGO MAILA)

1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: Hezkuntza-komunitateko eragile guztiak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea prestakuntzaren bitartez.

2.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: BAT taldea sortzea eta sendotzea ikastetxean.

3.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: Elkarbizitzarako Eskola Behatokia sortzea eta sendotzea.

4.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: Antolaketari, metodologiari eta curriculumari buruzko erabakiak hartzea, ikastetxean elkarbizitza positiboa garatzeko.

5.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: Ikasleen arteko harreman pertsonalen kalitatea ezagutzea ahalbidetzen duten komunikazio-kanalak ezartzea eta, jazarpen kasu posibleak hautemateko eta ebaluatzeko estrategiak finkatzea.

6.- HELBURU ESPEZIFIKOAK: Indarkeriarik gabeko ikastetxe bat lortzeko jarduketara mailakatuak garatzea.

### BIGARREN HELBURU OROKORRA: ESKOLAKO JAZARPENAREN AURREAN ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK

#### (ESKU-HARTZEKO BIGARREN MAILA)

1. HELBURU ESPEZIFIKOA: Arrisku-egoerak eta -faktoreak ezagutzea eta, eskolako jazarpen-susmoa dagoenean esku hartzea.

2. HELBURU ESPEZIFIKOA: Esku-hartzea eskola-jazarpen kasuak errotik ezabatzeko.

### HIRUGARREN HELBURU OROKORRA: ESKOLA-JAZARPENAREN AURKAKO EKIMENAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEA

#### (ESKU-HARTZEKO HIRUGARREN MAILA)

1. HELBURU ESPEZIFIKOA: Ekimenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea garatzen den alor guztietan.



2017-2018 ikasturtean hasi zen Bizikasi eta, hainbat garapen eta ezarpen fase edukiko ditu 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan.

Hezkuntza Sailak ikastetxeei emango dizkie, Berritzeguneen bidez, behar dituzten aholkularitza eta material didaktikoak, Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren barruan lehentasunezko lan-helburua izango den ekimen hau garatzeko. Hezkuntzako Ikuskaritzak prozesu osoa gainbegiratuko du eta, zentroei emango dizkie esku hartzeko protokoloari buruzko aholkularitza eta orientazioa.

2019-2020 ikasturtean, ikastetxe publikoetan ekimena garatzen jarraituko da jarduera hauen bidez:

- Ikuskaritzaren eta Berritzegunearen esku-hartze koordinatua, bai Bizikasi ekimenaren garapenean, bai sor daitezkeen jazarpen-kasuetan.
- Bizikidetzaren Behatokia finkatzea.
- BAT taldea sendotzea -zeina zuzendaritzak, ikasketa-burutzak, aholkulari batek eta irakasle batek osatuta egongo den; hain zuzen, erreferentziako egitura gisa sortuko da zentroan gertatutako eskolako jazarpen-kasuak ebazteko prozesua eta ekimena garatzeko esku hartzeak koordinatzeko zentro guztietan. Lau pertsona horietako bat izango da zentroko hezkidetzaren arduraduna.
- Etengabeko prestakuntza-prozesuaren barruan, II. faseari ekitea. Fase hori ikastetxeetan sortutako BAT taldeko kideei zuzenduta egongo da.
- BAT taldeak bere gain hartzea irakaskuntzaz kanpoko pertsonalari eta familiei zuzendutako prestakuntza. Prestakuntza horrek 2019ko abendurako amaituta beharko du.
- Antolakuntza eta Jarduera Araudian, BAT taldearen konfigurazioa eta funtzionamendua sartzea.
- Ikastetxeko Bizikidetzaren Planean, Bizikasi ekimena garatzearen ondoriozko aldaketak sartzea.
- 2019-2020 Ikastetxearen Urteko Planean, Bizikidetzaren Planean programatuta dauden Bizikasi ekimenaren garapenarekin lotutako helburuak eta jarduerak sartzea.
- Tutoretza Planean, eskola-jazarpenari aurrea hartzeko sortutako curriculum-materialak garatzen jarraitzea DBHko 1. eta 2. mailetarako (<https://bizikasi.euskadi.eus>).

### **Jazarpen-kasu posible baten aurrean jarduteko prozedura.**

Ustezko jazarpen-kasu batengatik esku hartzeko eskaera baten aurrean, kontuan hartuko dira *EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan berdin arteko tratatu txarren aurrean jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideei buruzko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen berria eta Bizikasi ekimena ezarri ondoren xedatutako aldaketak abiapuntuekin bat etorrira.*

#### **• PROTOKOLOAREN HASIERA**

Ikastetxeak eskola-jazarpen eremukoak izan daitezkeen jarrerak ikusi edo jakin dituen kasu guztietan hasiko da protokoloa: ikasleren batek beraren edo bere kideren baten aurkako ustezko jazarpen-egoera bat dagoela adierazten duenean; ikaslearen familiak edo legezko tutoreek hori adierazten dutenean; edo beste pertsona batzuk egoera zehatz bati buruz ohartarazi dutenean. Polizia-salaketa bat, salaketa judizial bat, Arartekoari igorritako kexa bat edota Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskaera dagoela jakitean ere hasiko da.

Ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatzen badira ere, protokoloari hasiera emango zaio eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen bada edo 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan araututako gorabeheraren bat gertatzen bada.



- **ADINGABEEN DATUAK ISILEAN TRATATZEA**

Adingabeen datuak isilean tratatu behar direnez, ez dira inoiz jasoko haien izen-abizenak protokoloaren aplikazioan sortuko den dokumentazioan.

Ikastetxearen zuzendaritzatik, familiei jakinaraziko zaie oso garrantzitsua dela ez zabaltzea eskuratu ahal izan duten edozein informazio, protokoloa garatu bitartean.

Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentzialtasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei **buruz**.

- **HEZKUNTZAKO IKUSKARITZAREN ETA BERRITZEGUNEEN EGINKIZUNAK**

Ustezko jazarpen-kasuekin lotutako demanden aurrean, protokoloa aplikatzearen ondoriozko kudeaketa egokia bermatzera dago zuzenduta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen arteko lan koordinatua.

### **1.8.- PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA ANTOLATZEKO.<sup>6</sup>**

Ikasturtearen hasieran eskola-komunitate osoak protokoloa ezagutzen duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Gainera, ikastetxeek ikasleen legezko arduradunei ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten informazioan testu hau ere jarriko dute:

**Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.**

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

Ikastetxeetan horrelako egoerarik gertatuko balitz, Hezkuntza Ikuskaritzari haren berri eman beharko zaio.

Ikasturtean zehar, Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetako zuzendaritzetara bideratutako saio bat antolatuko du, esparru honetan irakasleok duen inplikazioa eta protokoloa analizatzeko.

### **1.9. IKASTETXEENTZAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEXUALEI EDO ARAUTIK KANPOKO GENERO- PORTAERA DUTEN IKASLEEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO.<sup>7</sup>**

Hezkuntza-komunitateak lan egingo du ikastetxeetan genero-identitatearen edo sexu-orientazioaren ondoriozko presio, eraso edo diskriminaziorik izan ez dadin.

Aipaturako protokoloa erabili beharko da ikastetxeei orientazioa emateko jaiotakoan esleitutako sexuarekin bat ez datorren sexu-identitatea duten adingabeei, gizarteak beren sexua dela-eta espero dituen genero-portaerak ez dituztenei eta horien familiei laguntzeko prozesuari buruz.

<sup>6</sup> Eusko Jaurlaritza (2016). Protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioa antolatzeko

<sup>7</sup> Eusko Jaurlaritza (2016). Ikastetxeentzako protokoloa, ikasle transexualei edo arautik kanpoko genero-portaera duten ikasleei eta haien familiei laguntzeko.



## 2. IKASLEAK

### 2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA.

Ikasleen antolaketak eskola inklusiboaren printzipioei eta xedeei erantzun behar die, ikuspegi etiko batetik eta hezkidetzan oinarrituta. Horrek esan nahi du ikasle guztiek ahalik eta gehien garatu behar dituztela euren gaitasunak eta ahalmenak, beren proiektu pertsonal, sozial eta profesionala eraikitzeko gai izan daitezten. Horretarako, ikasle guztiek, bereziki hezkuntza- eta gizarte- bazterkeriaren aurrean urrakorrak direnek, hezkuntzan sartzeko eta horrek in jarraitzeko aukera izango dutela bermatu behar du zuzendaritza-taldeak, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini, aukera-berdintasunean oinarritutakoa, bizikidetzaren positiboa sustatuz.

Hezkuntza-inklusioa hezkuntzarako eskubidearen eskakizun bat da, eta, hori lortzeko, zuzendaritza-taldeak, orientatzailearekin batera, antolamendu-alderdi hauek aurreikusi beharko ditu:

Hezkuntza-eskubidearen baldintzetako bat da eskola-inklusioa. Hori lortzeko, antolaketako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasle arrunt guztiak erantzunkide dira hezkuntza-erantzunean, eta ikasgelaren programazioa egokitu beharko dute hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei esparru guztietan behar dituzten laguntzak emateko.
- Baliabide eta laguntza osagarriak era koordinatuan eta elkarlanean arituz antolatzea, ohiko testuinguruan, ikasle guztien probetxurako.
- Ikasleek behar dutenean, gela egonkorak sortu ahal izango dira betiere eskolatzeko proposamen hori eskatzen duten hiru ikasle badaude.
- Ikastetxeko barne-eragile zein ikastetxetik kanpoko eragile guztien esku-hartzeak koordinatzea.
- Garapenean aldaketak dituen edo bere adinerako esperotakoaren nabarmen gaintik dagoen garapenearen adierazleak erakusten dituen ikasleak planteatzen dituen beharren detekzioa eta jarraipena azpimarratzea. Ildo horretatik, ikasturte berri honetan plan hau dago: *Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana (2019-2022)*.
- Ikasle guztiek ikasteko eta parte hartzeko dituzten oztopoak detektatzea, batez ere arrisku-taldeetan dauden ikasleei dagokienez, euren hezkuntza-ibilbidearen edozein unetan, eta aurrera egitea ikasteko irisgarritasun unibertsalaren planteamenduetan.
- Garapenean nahasmenduak dituzten edo bere adineko ohikoa baino askoz potentzial handiagoa duten ikasleen beharrak hautemateari eta horiei erantzuna emateari garrantzia ematea.
- Ikasle guztiek, eta bereziki arrisku handiko taldeetan daudenek, ikasteko eta parte hartzeko dituzten eragozpenak detektatzea, ikasleen hezkuntza-ibilbidearen edozein unetan eta ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren planteamenduetan aurrera egitea eta, dagokionean, beharrezko moldaketak egitea.
- Ikasleen aniztasunari erantzuten dioten ikaskuntza inklusiboko metodologiak eta estrategiak erabiltzea ikaskuntzarako guneak partekatuz eta ikastetxeei espazioak eta denborak ezartzen dizkieten barrerak kenduz, talde desberdinetako eta hainbat testuinguru espezifikoetako eta arruntetako (esaterako, ikasgela egonkorak) ikasleei elkarri eragiteko aukera emanez.
- IKTen erabilera bultzatzea, bikaintasuna eta ikasteko eta ikasgelan parte hartzeko eragozpenak dituzten ikasleen partaidetza erraztuz.
- Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen kasuan, ikasmaterialak egokitzean behar denean (braille, audio eta abar), ikastetxeek IBTeko profesionalari garaiz bidali behar dizkiete egokitu beharreko baliabideak. Idatzizko testuen kasuan, horien zerrenda osoa maiatzaren bidaliko da, Hezkuntza Administrazioak eta ONCEk sinatu duten hitzarmenari jarraikiz.





Alderdi horiek guztiek eragina izango dute, hezkuntza-plangintzan ez ezik, ikasleen antolaketan eta hezkuntza-erantzukizunak komunitateko kideen artean banatzeko eran nahiz planifikatutako ekintzen garapenean.

## 2.2 BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNZA PREMIAK DITUZTEN IKASLEAK (BHLP).

Ikasle horiek hezkuntza-arreta gehigarria behar dute, ikasle arruntekin alderatuta ezaugarri hauek dituztelako:

- Hezkuntza-premia bereziak, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahasmendu larrietatik eratorrita.
- Ikasteko zailtasun zehatzak
- Gaitasun intelektual handia
- Hezkuntza-sisteman berandusartzea
- Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak (gaixotasuna...)
- Desberdintasun sozialeko egoerak
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua

Ikastetxeek ikasle horiei zuzendutako antolaketa- zein plangintza-neurriak, baliabideak eta jarduerak jasoko dituzte aniztasunerako arreta-planean eta urteko planean.

Berariazko Hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko, jarraibide hauen arabera jardungo da: *hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna emateko berariazko baliabide pertsonalak esleitzeko prozedurari buruzko Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren jarraibideak*<sup>8</sup>.

### 2.2.1 Hezkuntza-premia bereziko ikasleak (HPB).

Honako berezitasun hauetakoren bat dutenak dira:

- Adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta autismoaren espektroko nahasmenduak.
- Desgaitasun anitzak.
- Gortasun-itsutasuna.
- Jokabide-arazo larriak.

Irakasle-taldeak kontuan hartu behar du ikasle horiek zer-nolako laguntzak (errefortzuak, sarbide-neurriak, eskainitako giza baliabideak, moldaketak...) eta zein mailatakoak behar dituzten, ahalik eta eskolatzeko normalizatu eta autonomoena izate aldera.

Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietarako aholkulariekin batera egindako balioespen psikopedagogikoa oinarri hartuta, ikastetxeetako zuzendaritzek ahaleginak egingo dituzte ikasle horiekin esku hartzen duten profesionalen (irakasleak, irakasle orientatzaileak, PT irakasleak, logopedak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, IBTko profesionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak...) parte-hartzea eta inplikazioa bermatzeko gaien plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak), jarraipenean nahiz ebaluazioan, betiere horiei arreta hobea emateko xedez.

Ikastetxeak dituen baliabide arruntez gain, honelako ikasleei behar bezalako arreta emateko ezohiko

<sup>8</sup> [http://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak\\_eu/web01-a3hpbhl/eu/](http://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak_eu/web01-a3hpbhl/eu/)



giza baliabideak eta baliabide materialak eskainiko ditu Sailak ikasturtearen hasieran (balorazio psikopedagogikoaren eskaera W67 aplikazioaren bidez).

Ikasleen laguntzetan intentsitatea aldatzearen eta ikasturte barruan ikasle berriak sartzearen ondorioz, alde aurretik ez dira ikasturte hasieran planifikatu eta esleitutako baliabideak berrikusiko. Ikastetxeek beharrezko egokitzapenak egin behar dituzte, eta ordutegiak behar bezala aldatu, hasten diren ikasle berriei arreta emateko. Era berean, irakasleek beren ikasgelako programazioa ikasle berriek behar dituzten laguntza-beharretara egokituko dute. Balorazio berriak eta ordu arte jada egindakoen gaineko aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean egokia den esleipena zehazteko.

Salbuespen gisa, ikastetxeek hezkuntza-laguntzako espezialisten esleipena berrikustea eska dezakete, ikasturte barruan intentsitate handiko laguntza behar duten ikasle berriak hasten direnean. Ikasle berri bat hasteko, arrazoi justifikatu bat izan behar da: bizilekuko udalerraren aldaketa edo Euskadiko hezkuntza-sisteman hastea. Ikastetxeak bere eskaeran justifikatu behar du esleitutako baliabideak berrantolatu dituela eta, hala ere, ezinezkoa dutela ordutegi-tarteren batean ikasleari arreta ematea.

Baliabide publikoak efizientziaz erabili eta eraginkortasunez kudeatzeko, ikastetxeak nahitaez jakinarazi behar dio lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berritzatzeko/Hezkuntza Bereziko Zerbitzuari Hezkuntza Beharrak dituen edozein ikasleren baja edo lekualdaketa.

Jokabidearen nahasmendu larriko ikasleak dituzten ikastetxeek jardun-protokolo bat ezarri behar dute modu eraginkorrean krisi-egoerei aurre egiteko, ikasle horri eustea beharrezkotzat jotzen denerako eta, larriak izateagatik, behin-behinekoz beste gune edo programak erabiltzea eskatzen duten jokaerak agertzen badituzte. Horretarako, Berritzeguneen beharrezko aholkularitza izango dute. Hezkuntza Beharrak dituzten ikasleen autonomia eta irisgarritasuna garatzeko laguntza-beharra argitzen duen protokoloak ezartzen duen bezala, lehenik eta behin, irakasle arruntek eman behar diete arreta jokaera-nahasmenduei, eta bigarrenik, berriz, laguntzako irakasleek (PT). Hezkuntza Laguntzako Espezialistak, ikastetxeko beste edozein profesionalek bezala, autorregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango du, betiere dagokion ikasleari buruzko planak hala adierazten badu.

Arazo horren konplexutasunak hezkuntzaz haragoko erantzun bat eskatzen du, eta beraz familiarako, osasun-arloko eta gizarte mailako esku-hartze bat beharko da, hezkuntza-premia berezietarako aholkulariek eta berritzeguneez koordinatua.

### **2.2.2. Ikasteko zailtasun zehatzak dituzten ikasleak.**

Ikasle horiek arreta espezifiko behar dute, zailtasunak dituztelako mezuak ulertu eta ekoizteko, irakurri eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta jartzeko eta/edo mantentzeko edo oldarkortasuna kontrolatzeko; beste batzuek, berriz, ikasteko erritmo mantsoagoa dute edo hizkuntzako berariazko arazoak dituzte.

Hori dela-eta, irakasle batek ikasleren bati balioetsi gabeko ikasteko zailtasunak dituen traza hartzen badiu, ikastetxeko orientatzaileari jakinarazi behar dio ahalik eta arinen, berritzeguneko dagokion aholkulariaren laguntzaz ikasle horren beharretara egokituko den jarduera-plan bat abiaraz dadin.

Hezkuntza-erantzuna eta ikasgelan hartzen diren neurri espezifikoak zailtasun horiei egokitu behar zaizkie eta ikasle horrekin lan egiten duten irakasle guztiek aplikatu behar dituzte. Gainera, ikasle horiek inklusioari begirako laguntzaileen arreta edota laguntza izan dezakete, betiere Berritzeguneko hezkuntza-premia berezien aholkulariekin batera egindako balorazio psikopedagogikoak hori



gomendatuko balu. Laguntza-material gisa, orientazio hauek egin dira<sup>9</sup>:

- Irakurtzen irakasteari buruzko orientazioak
- Arreta-defizita eta hiperaktibitatea duten ikasleen arretarako gida eta ohiko erabilera-tresnak
- Inklusibitatea eta ikasteko zailtasunei buruzko orientazioak eta materialak<sup>1</sup>
- Irakurketa Plana<sup>10</sup>
- Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa

### 2.2.3 Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak.

Ikasle hauei beren ahalmenak osoki garatzea bermatuko dien arreta eman behar zaie. Horretarako, beharrezkoa da haien ezaugarriak, premiak, aurkitzen dituzten zailtasunak eta har daitezkeen neurriak sakonezagutzea.

Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plan berriak abiapuntu hartzen du gauzatutako ekintzen diagnostikoa eta ISEI-IVEIk egindako analisi bat. Horretan, irakasleen prestakuntza-beharrak ematen da aditzera.

Ikasle horiekiko esku-hartzea berariaz aurreikusten da eskola inklusiboaren esparrutik. Hala, *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022* planak berariazko helburu bat (1.4. helburua) barne hartzen du ekintza zehatz honi dagokionez: “Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko planaren garapena”.

Plan horrek bost helburu ditu, eta horien artean nabarmentzen dira, datorren ikasturteari begira, hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa eta irakasleen prestakuntza esku-hartzea sistematizatzeko. Nolanahi ere, pilotaje bat egingo da gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatu eta identifikatzeko protokoloa baliozkotzeko.

Hala, pilotaje hori egiten ez den ikastetxeetako irakasleek, ikasleren batek gaitasun handiak izan ditzakeenaren aztarnak edo ebidentziak badituzte, lehenbailehen horren berri eman beharko diote ikastetxeko aholkulariari, prestakuntzaren eta esku-hartzearen arloko beharrak aurreikusteko, plan berriari adierazitako helburuei erreparatuta.

Horren gainean, *Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-orientazioak* dokumentuan irakasleek oso informazio baliagarria aurki dezakete. Halaber, interesgarriak izan daitezke curriculumak aberasteari buruzko zenbait orientazio eta material.

### 2.2.4. Ikasleen eskolatzea ohiko onarpen-alditik kanpo.

Eskolatze arrunterako epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasleen eskolatzea ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duen Dekretuaren arabera (urtarrilaren 9ko 1/2018) egingo da (2018ko urtarrilaren 12ko EHAA).

EAEra etorri berri diren pertsonen kasuan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatze- postu bat behar badute, ikastetxeak Eskolatze Batzordeari egingo dio eskabidea horretarako dagoen aplikatibo

<sup>9</sup> <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusiboa-dokumentuak/web01-a3hinklu/eu/>

<sup>10</sup> <https://irakurgune.euskadi.eus/eu>



informatikoaren bidez, ohikoa den menuaz baliatuta: Matrikula / Eskolatzeko Batzordea. Ikastetxeak behartuta daude familia orok egindako eskaerak izapidetzera, hautatu duten ikastetxea edozein izanik ere.

Berandu hasi dena berariazko hezkuntza-premien beharrean den ikasle bat balitz, 2.2 puntuaz azaltzen den moduan jokatu da.

Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren 4.1 helburuarekin bat etorriz, hezkuntza sendotzeko programa bat amaitu duten ikasle guztiek segimendu-programa indibidualizatu bat izan behar dute ondorengo hiru ikasturteetan.

### 2.2.5 Baldintza pertsonal edo eskola-historia berezia duten ikasleak:

#### a) Ospitaleko edo etxeko arreta edo arreta terapeutiko-hezigarria behar duten ikasleak

Abenduaren 20ko 266/2006 Dekretuaren bidez, ospitaleko edo etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da medikuaren aginduz ospitale batean dagoelako, etxean suspertzen dagoelako edo programa terapeutiko-hezigarri batean dagoelako ikastetxera joaterik ez duen ikasleari hezkuntza-laguntza ematea.

- Ospitale barruko laguntza emango da Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-laguntzako geletan. Ikasle batek ospitaleko tratamendua behar badu, ospitaleko gelako irakasleak eman behar dio arreta pedagogikoa, ikasleak ikastetxean duen tutorearekin koordinatuta.
- Etxeko laguntza medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin duten ikasleentzat emango dute irakasleek. Etxean arreta pedagogikoa jasotzen duen ikasle batek gorabeheraren bat dela eta ospitalean ingresatu beharko balu, etxean arreta ematen dion irakasle bera joango zaio ospitalera. Egoera horretan dauden ikasleek eskolako ikasketekin jarraitzea eta gizarteratzea ahalbidetzeko, ikastetxeetako zuzendariak 1998ko uztailaren 30eko Aginduak (hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzei eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteari buruzkoa; 1998-08-31ko EHAA) 35. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko dute.
- Arlo terapeutiko-hezigarriko laguntza Osakidetzako haur eta gazteentzako osasun mentaleko zerbitzuarekin elkarlanean emango da, ezarrita dagoen lankidetzako hitzarmenaren arabera. Arazo psikopatologiko larriak dituen ikasle batek tratamendu intentsiboa behar badu, ikaslea Ospitaleko edo Etxeko Hezkuntza Arretarako edo Arreta Terapeutiko-Hezigarriko OETHren programa terapeutiko-hezigarrian sartzea proposatu ahal izango da, berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietarako aholkularien eta Osakidetzako Haur eta Gazteen Psikiatria Unitatearen oniritziarekin.

Horrez gain, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, honako hauek beharko dira:

- Aita/amaren edota legezko ordezkariaren berariazko baimena.
- Balioespen Batzordearen erabakia.

Ikaslea denboraldi mugatu baterako onartuko dute zentro terapeutikoan, batez beste 3 eta 6 hilabete bitarte, eta denbora hori luzatu ahal izango da, gehienez ere 12 hilabetera arte, talde terapeutikoak egoki irizten badiu. Edonola ere, helburua haurra edo nerabea berriro bere eskola-ingurunera itzultzea da.



**b) Gaixotasun minoritarioak, askotariko elikagai-alergiak eta bestelako gaixotasunak dituzten ikasleak**

Ikasle hauekin jarraitu beharreko protokoloa hemen dago: «Eskola-ordutegian zehar eman beharreko arreta sanitario bereziari buruzko zirkularra<sup>11</sup>».

### **2.3.- BALORAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA.**

Balorazio psikopedagogikoaren helburua da ikaslearen hezkuntza-premiak eta bere indarguneak zein ahuleziak detektatzea, eta ikasteko eta parte hartzeko dituen oztopoak identifikatzea.

Gogoan izan behar da, edonola ere, balorazio psikopedagogikoa eskatzeak hezkuntzako esku- hartzearen ezohiko prozesu bat abiarazten duela. Tutoreak eta orientatzaileak ikasleen aniztasunari erantzuteko komenigarritzat jotzen dituzten ohiko neurri guztiak nahikoak ez direnean bakarrik eskatu behar da balorazio hori.

Horretarako, ikastetxeak zailtasunen lehen azalpen bat egin behar du, egokitzat jotako informazioa eta balorazio pedagogikoa bilduz eta, egokia bada, hautemandako arazoan aurrean esku hartzeko lehen neurriak proposatuz.

Ikastetxeak eskari hori zehaztuko du W67 aplikazio informatikoaren bidez, Ebaluazio Psikopedagogikoaren Eskaera izeneko protokoloa baliatuta.

Nolanahi ere, tutorea da ikasle bakoitzaren erreferente nagusia, eta gainerako irakasleekin eta, hala badagokio, bere ikasle taldean esku hartu dezaketen gainerako profesionalekin koordinatuta egingo du lan eta, bereziki, orientatzailearen laguntzarekin.

### **2.4. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA.**

Curriculum-egokitzapenak eta aparteko neurri guztiak Hezkuntza Premia Bereziarako aplikazioaren bidez (W67) bideratuko dira. Gela egonkorreko curriculum-proiektua, berriz, aurreko ikasturteetako prozedurari jarraituz bideratu behar da.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren (1998-07-13ko EHAA) eta hura garatzeko Aginduen (1998-08-31ko EHAA) bidez arautzen dira eta, gainera, kontuan hartu beharrekoak dira Hezkuntzako sailburuordearen indarreko jarraibideak, Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariarenak eta Ikuskaritza Nagusiarenak<sup>12</sup>.

Curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapenen baimenak arautzen dituen Aginduak (1998ko uztailaren 24koa, abuztuaren 31ko EHAA) **Batxilergoan eta heziketa-zikloetan** curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak egiteko ematen zuen aukera indargabetuta geratu da. LOEren ondoren murriztu egin dira curriculum-egokitzapenak, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako Batxilergoko **edo modulu profesionalen bateko** ikasgai batzuetan baino ezin dira egin orain curriculumera sartzeko egokitzapenak; edonola ere, eutsi egin zaie Batxilergoko **edo Lanbide Heziketako zikloko** dagozkien helburuei. **Batxilergoan** aukera ematen da **zati batean salbuespenak egiteko**, Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzaren onarpenarekin.

<sup>11</sup> Eusko Jaurlaritza (2006). *Eskola-ordutegiko osasun-arreta bereziari buruzko zirkularra*.

<sup>12</sup> Eusko Jaurlaritza (2013). *Ikaslegorrensarbidea hizkuntzen curriculumean*. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.



## Curriculumean sartzeko egokitzapenak

Curriculumean sartzeko egokitzapenak erregistratuta geratu beharko dute ikasleen espedientean, eta hartutako neurriak bete beharrekoak izango dira.

Gorreria duten ikasleentzako ahozko hizkuntzetan sartzeko curriculum-egokitzapenak egite aldera, Hezkuntza Sailak agiri bat dauka, irakasleentzat erreferentzia izan daitekeena: «Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza<sup>15</sup>», irakasleentzako erreferentzia izan daitekeena.

Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen kasuan, materialak egokitzea beharrezkoa badute (braillea, audioa, etab.), ikastetxeek egokitu behar diren materialak garaiz eman beharko dizkiote Itsuen Baliabidetegari. Testuen kasuan, zerrenda maitzean eman beharko da, Hezkuntza Administrazioaren eta ONCERen artean sinatutako hitzarmenean ezarrita dagoenez.

### a) Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GCEP) aurkezteko epeak:

- Ikastetxeko zuzendaritzak dagozkion proposamenak **urriaren 4a** baino lehen igorriko ditu.
- Hezkuntza Premia Bereziatako aholkularitzak **urriaren 25a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 15a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak **azaroaren 22a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei curriculum egokitzapena edo Gela Egonkorren Curriculum Proiektua onartuta dagoen ala ez; hala, **azaroaren 30a** baino lehen, ikastetxeak ikasle legezko arduradunei idatziz jakinarazteko, ebazpenaren kopia erantsita.

### b) Lehen Hezkuntzan dauden adimen-gaitasun handiko ikasleentzako zabaltzeko curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak:

- Ikastetxeko zuzendaritzak proposamena **urriaren 4a** baino lehen tramitatuko du.
- Hezkuntza Premia Bereziatako aholkularitzak **urriaren 25a** baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 15a** baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak ikastetxeei **azaroaren 22a** baino lehen jakinaraziko die neurria onartuta dagoen ala ez; hala, **azaroaren 30a** baino lehen, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei idatziz jakinarazteko, ebazpenaren kopia erantsita.

### c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatzeko epeak malgutzeko eskaerak aurkezteko epeak.

- Zikloa hasi aurretik, ikastetxeko zuzendaritzak eskolatzea aurreratzeko edo eskolatzeko epeak malgutzeko proposamena bideratuko du **maitzaren 29a** baino lehen.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia bereziatarako aholkularitzak txostena emango du, **ekainaren 3a** baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bere oniritzia bidaliko du, **ekainaren 12a** baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak, bere aldetik, dokumentazioa bideratuko du **ekainaren 17a** baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ikastetxeei idatziz jakinaraziko die proposamena onartua izan den ala ez, **ekainaren 22a** baino lehen, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei jakinaraz diezaien, ebazpenaren kopia bat erantsiz, **ekainaren 26a** baino lehen.

**Malgutzeari** dagokionez, Batxilergoa osatzen duten bi ikasturteak eskolatzeko-erregimenean egin daitezke, ikasturte horien curriculumetako ikasgaiak bloketan zatituta. Halakoetan, etapa horretarako ezarritako epea beste bi urtez luza daiteke. Malgutetasun hori derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etaparen edo etapa osatzen duten ikasturte bakoitzaren hasieran eskatu ahalkoda.



**d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumean sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak.**

Ikastetxeek berritzegunearen bidez eskatuko dituzte baliabide materialak. Horretarako, hezkuntza-premia berezien aholkulariek, terapeuta okupazionalarekin batera eta inplikaturako gainerako profesionalen elkarlanarekin, dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo dute. Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunari jakinaraziko zaio, eta hark lurralde osoko beharren eskari bateratua igorriko dio Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren hezkuntza bereziaren arduradunari. Berritzeguneari beharrak aztertuko ditu, eta baliabide-proposamena bidaliko dio Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunari **apirilaren 10a baino lehen**.

Ikastetxearen ardura izango da maileguan emandako materiala mantentzea, eta egoera onean itzuli beharkodu.

**e) Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketan eskolaldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak.**

Desgaitasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek aukera izango dute hezkuntza-zikloko moduluak banatuta ikasteko, eta eskolatzeko erregimen arrunterako aurreikusita den denboraren bi halako izango dute ebaluazioetara eta kalifikazioetara aurkezteko.

- Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasturtea hasi aurretik, Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunari bidaliko dio eskolatzeko proposamena, **maiatzaren 29 baino lehen**.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia bereziarako aholkularitzak txostena emango du, **ekainaren 5a baino lehen**.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bere oniritzia igorriko du **ekainaren 15a baino lehen**.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak, bere aldetik, dokumentazioa tramitatuko du **ekainaren 22a baino lehen**.
- Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzak ikastetxeei idatziz jakinaraziko die proposamena onartua izan den ala ez, **ekainaren 30a baino lehen**, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunari jakinaraz diezaien, ebazpenaren kopia bat erantsiz.

## **2.5. CURRÍCULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA TALDEAK.**

Indarreko araudiari jarraikiz antolatuko dira:

i. 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, 40. artikulua (2016ko urtarrilaren 15eko EHAA).

ii. Jarraibideak, Hezkuntzako sailburuordearenak, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei dei egiteko direnak, 2019-2020ko ikasturterako curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa taldeak baimentzea eskatzeko.

Curriculum-aniztasuneko irakasle-lanpostuen irakaskuntzako ordu kopurua 15 ordukoa izango da 10 ikasletik beherako taldeen kasuan, eta 12 ordukoa gainerako kasuetan. Gainera, curriculum-aniztasuneko irakasle guztiek 2 ordu erabiliko dituzte astean beren taldeko ikasleen tutoretza indibidualizaturako.

Klase-orduetatik, curriculum-aniztasuneko taldearekin emango dituzte gutxienez 9, eta gainerakoetan beren espezialitateko berezko irakasgaiak edo antzekoak emango dituzte edo, dagokionean, hezkuntza-errefortzuko egitekoak gauzatuko dituzte, irakasleen ordu kopurua bete arte.

10 ikasle edo gehiago dituzten taldeetako irakasleen ordu kopuruaren murrizketa konpentsatzeko, antzeko igoera bat egingo da hezkuntza-arretako orduetan edo zuzendariak esleitutako beste zereginetan, irakasle guztiek ikastetxean egon beharreko ordu kopuruak osatu arte. Jarduera horiek, lehentasunez, aniztasunaren tratuarako laguntza-jarduerak izango dira.



## 2.6. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZA-ESPARRU OROKORRA.

2018ko maiatzean *Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko Lankidetzaren Esparru Orokorra* abiaraziz<sup>13</sup>. Esparru horretan zerbitzu horien koordinazioari buruzko adostasunak daude jasota. Era berean, deribazio-ibilbideak, informazioa trukatzeko prozedurak, txostenentzako ereduak eta jardunbide profesional egokia erraztu dezaketen bi sistemetako profesionalen arteko harremanari buruzko gomendioak ere jasotzen dira.

Ikastetxeen zein laguntza-zerbitzuen betebeharrak da lankidetzaren esparru honen garapeneren ondorioz ikasle eta familientzako arreta hobea izatea esparru horretan.

## 2.7. ESKOLA-ORDUTEGIA.

Ikastetxearen ordezkari-organoren gorenak finkatu behar du ikasleentzako ohiko eskola-ordutegia zein den, betiere hezkuntza-eta bakoitzaren berezko arauak, irekita egon beharreko denbora eta ikasleentzako ohiko eskola-ordutegitik kanpo egin behar diren jarduerak errespetaturik.

Edonola ere, ohiko ordutegia Hezkuntzako sailburuordeak 2019-20 ikasturterako eskola-egutegia egiteko prozesua arautu behar duten arau osagarriak onartzeko ebazpenaren arabera egin beharko da.

Onartutako ordutegia ezingo da ikasturtean zehar aldatu, salbu eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendu dituen ohiz kanpoko arrazoiak direla eta.

Hurrengo ikasturteetan ordutegiaren edozein aldaketa egiteko berariazko baimena eman beharko du Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, honako prozedura honi jarraituz:

- Ikastetxearen zuzendaritzak egingo du proposamena eta eskola-egutegiari buruzko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.
- Proposamena ikastetxeko irakasleekin, DBHko 3. mailatik aurrerako ikasleekin eta gurasoekin adostu beharko dute, eta emandako boto guztien bi heren gutxienez beharko dira sektore horietako bakoitzean onartu ahal izateko; eroldaren erdiak parte hartu beharko du gutxienez, orobat.
- Ikastetxearen ordezkari-organoren gorenaren gehiengo absolutu bidez onartu beharko da proposamena.

Aurreko baldintzak beteta, ikastetxeko Zuzendaritzak Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzara bideratu beharko du aldaketa-eskaera, dagokion urteko otsaila baino lehen.

Lurraldeko ordezkariak, egoki irizten diren txostenak bildu ondoren, aldaketa hori gauzatzeko baimena eman edo ukatuko du ikastetxeak matrikula aurreko izen-emateak egin aurretik; horrela, ikastetxeak eskola-komunitateko kide guztiei (gurasoei, ikasleei eta irakasleei) jakinarazi ahal izango die hurrengo ikasturterako ordutegi-aldaketa.

Ikastetxeko ordutegia hurrengo ikasturteetarako aldatzeko proposamenaren arrazoiak bada astean arratsalde bat libre izatea irakasleek prestakuntza-jarduerak egin ahal izan ditzaten, ez da beharrezkoa izango eskaera otsaila baino lehen izapidetzea. Ordutegi-aldaketa eskatzen den ikasturteko eskola-egutegia egiteko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenean jasotako epeetan egin beharko da, eta arau horretan zehazten diren baldintzak bete beharko dira.

### 2.7.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak

DBHko ikasleentzako ohiko eskola-ordutegia ikastetxeak berak ezarriko du, indarreko araudiko gutxieneko baldintzak betez.

<sup>13</sup> [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_neespeci/adjuntos/18\\_nee\\_110/1102018001c\\_elka\\_rlana\\_hezkuntza\\_osasun\\_mentala\\_c.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_neespeci/adjuntos/18_nee_110/1102018001c_elka_rlana_hezkuntza_osasun_mentala_c.pdf)





2019ko irailean eta 2020ko ekainean posible izango da klaseak goizez bakarrik ematea. Arratsaldeko eskolaldia kentzeko aukera baliatu ahal izango da, halaber, Gabonetako eta Aste Santuko oporrak hasi aurreko azken eskola-egunean.

Ikasturtearen gainerakoan, eskolak goiz eta arratsaldez emango dira, baina ordezkari- organo gorenak aukera izango du, botoen gehiengo sinplez onartuta, asteko egun bateko arratsaldeko eskolak kentzeko, arratsalde horretan irakasleek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten. Jarduera horiek Hezkuntza Sailak sustatutako prestakuntza-planei loturikoak izan daitezke, edo IUPan sartutako beste ekimen batzuk, ikastetxerako onartutako proiektu ofizialetatik badatoz eta horien deialdian denbora hori eskatzen bada prestakuntza bateratua eman ahal izateko.

Hauspoa deialdian parte hartzen duten ikastetxeek deialdi horretan ezarritako ordu-baldintzak hartuko dituzte erreferentzia gisa.

Hezkuntza Ikuskaritzak ikasleen aldi baterako aldaketak onartuko ditu bakarrik irakasleen prestakuntzarekin lotura dutenean eta ikastetxeko zuzendaritzak, ordezkari-organoren proposamena betez, idatziz eskatzen duenean.

Gainera, ikastetxe berrietan ordezkari-organoren aukera izango du eskola-jarduerak asteko bigarren arratsalde batean ere kentzeko. Erabaki hori hartzeko, ikastetxeko ordezkari- organo gorenaren parte hartzen duten hiru sektoreek (gurasoak, ikasleak eta irakasleak) bi hereneko gehiengo kualifikatu baten bidez onartu beharko dute proposamena. Gainerako ikastetxeetan, eskola-ordutegiaren beste edozein aldaketa aurreko atalean xedatutako prozeduraren arabera egin beharko da.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira asteko ohiko eskola-orduak 30 izan daitezen.

Goiz eta arratsaldeko eskola-egunetan ikasleek 6 klase izango dituzte, ordubetekoa bakoitza, honela banatuta:

2.5.1 Goizez: 60 minutuko 4 klase, bi alditan banatuta, eta tartean 30 minutuko jolasaldi bat.

2.5.2 Arratsaldez: 2 saio, bakoitza 60 minutukoa.

Eskolaldi jarraituko egunetan 6 klase izango dira. Guztiekiraupen bera izango dute, gutxienez 50 minutu. Gainera, jolasaldi bat edo batzuk izango dira, eta guztira gutxienez 30 minutuko atsedenaldira izango dute ikasleek.

Ordutegiak eskakizun hauek bete behar ditu:

- Goizeko klaseak ez dira 8:00 baino lehen edo 9:00 baino beranduago hasiko.
- Goizeko eta arratsaldeko eskolaldien artean 1 ordu eta 30 minutuko atsedenaldira egongo da, gutxienez.
- Ezingo dira 3 eskola-ordu baino gehiago eman tartean jolasaldi bat egon gabe.
- Jolasaldiak gutxienez 15 minutukoak izan beharko dira. Egun osoan jolasaldi bakarra badago, jolasaldia 30 minutukoa izan beharko da gutxienez.

Ikastetxeetako zuzendaritzak eta irakasleek dute ikasleen erantzukizuna ikastetxean daudenean edo, ikastetxetik kanpo bada ere, harekin lotutako jardueretan daudenean. Ohiko eskolaldian ikasleek ikastetxetik joan egin behar badute, gurasoek, legezko arduradunek edo pertsona baimenduek bertaratu egin beharko dute eta adingabearen kargu egin, edo baimena eman beharko diote espresuki adingabeari eskolatik joateko. Azken kasu horretan, ikastetxeak baimen hori egiazkoa dela egiaztatu beharko du.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) gutxienezko eta erreferentziako ordutegi hauek zehazten ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako.



ORDUAK ASTEAN	Gutxienerako orduak		Erreferentziako ordutegia, mailaz maila			
	1.,2. eta 3.	4.	1.	2.	3.	4.
Geografia eta Historia	9	3	3	3	3	3
Gaztelania eta Literatura	9	3	4	4	3	3
Euskara eta Literatura	9	3	4	4	3	3
Atzerriko lehen hizkuntza	9	3	4	3	3	4
Matematika	9	3	4	4	3	4
Gorputz-hezkuntza*	6	2	2	2	2	2
Erljioa/Balio etikoak	3	1	1	1	1	1
Biologia eta Geologia	6	2 x 2 ordu	3	-	3	2 x 3 ordu
Fisika eta Kimika	6		-	3	3	
Ekonomia	-		-	-	-	
Latina	-		-	-	-	
Teknologia	4		2	2	2	
Jarduera profesionalari aplikatutako zientziak	-		-	-	-	
Ekintzaitza- eta enpresa-jardueren hastapena	-		-	-	-	
Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza	3	1 x 2 ordu	-	2	2	1 x 3 ordu
Musika	3		2	1	1	
Atzerriko bigarren hizkuntza	-		-	-	-	
Arte Eszenikoak eta Dantza	-	1 x 2 ordu	-	-	-	1 x 3 ordu
Kultura zientifikoa	-		-	-	-	
Kultura klasikoa	-		-	-	-	
Filosofia	-		-	-	-	
Informazio eta Komunikazio Teknologia	-		-	-	--	
Ikastetxeko aukera askeko irakasgaia	-		-	-	-	
Hautazko ikasgai ardatz aukeratu gabea	-		-	-	-	
Tutoretza	3		1	1	1	
Ikastetxeak erabakitze	11	5	-	-	-	-

\*Gomendatzen da ordutegi horretan ez sartzea norberaren higienarako edo joan-etorrietarako denbora.

Ordutegia nahitaez bete beharko da, arlo bakoitzerako gutxienerako ordui eta etaparen gutxienerako orduen guttizkoari dagokienez.

### 2.7.2.- Batxilergoko eta Lanbide Heziketako zikloetako ikasleak

Eguneko erregimeneko Batxilergoko ikasleen asteko ohiko eskola-ordutegia ikastetxeak berak ezarriko du, indarreko araudiko gutxienerako baldintzak betez.

Batxilergoko 1. mailan 34 klase emango dira astean: 7 saio egunean asteko 4 egunetan eta 6 saio aurrez zehaztutako asteko egun batean. Klase edo saio guztiek 55 minututako iraupena izango dute gutxienez.

Batxilergoko 1. mailako klaseak 2020ko maiatzaren 29an bukatuko dira, gutxienerako benetako 160 klase-egun kopurua eman eta gero.

2020ko ekainaren 1etik 19ko tartea, biak barne, ondorengo jarduera hauetara dedikatuko da:



- Ohiko deiladiko azterketak eta ebaluaketa egiteko, notak emateko eta erreklamazioak ebazteko.
- Ez-ohiko deialdiko azterketak eta ebaluaketa finalak egiteko, notak emateko eta alegazioak ebazteko.
- Denbora tarte hau ez da zenbatuko gutxieneko benetako 160 klase-egunekin, bai, ordea ikasturteko 175 egun lektiboekin.

Batxilergoko 2. mailan 33 klase emango dira astean: 6 saioegunean asteko 2 egunetan eta 7 aurrez zehaztutako asteko hiru egunetan. Klase edo saio guztiek 55 minututako iraupena izango dute gutxienez. 2019-2020 klase arruntak 2020ko maiatzaren 19an bukatuko dira, gutxieneko 160 klase-eguneko epealdiaren gutxienez 152 klase-egun eman eta gero.

2020ko maiatzaren 20tik ekainaren 19 bitartean, biak barne, ondorengo jarduera hauetara dedikatuko dira:

- Ohiko deialdiko azterketak eta ebaluaketa egiteko, notak emateko eta erreklamazioak ebazteko.
- Unibertsitaterako Sarbide-Ebaluaketa prestatzeko eta ez-ohiko azterketak prestatzeko bideratuko klaseak emateko. Ez-ohiko azterketak prestatzeko bideratutako klaseetara, gainditu ez duten ikasle guztiek joan beharko dute, nahiz eta denontzat zabalik egon. Ikastetxeek, klase hauen bitartez izan ala aparteko beste batzuen bidez izan, 2. mailako ikasle guztiek 160 benetako klase-egunak jasotzen dituztela bermatu behar dute, 2008ko martxoaren 10ko Aginduak ezartzen duen bezala.
- Ez-ohiko deialdiko azterketak eta ebaluaketa finalak egiteko, notak emateko eta alegazioak ebazteko.
- Bukaerako azterketak eta ebaluaketak egiteko eta notak emateko eta erreklamazioak ebazteko dedikatzen diren egunak, ohiko zein ez-ohiko aldian, ez dira zenbatuko 160 benetako klase-egunen artean, baizik eta 175 egun lektibo barruan.

DBH eta Batxilergoko eskolak ematen dituzten ikastetxeek aukera izango dute bi etapetako ordutegiak koordinatzeko. Horretarako, klase guztiek 55 minutuko iraupena izango dute ikasturte osoan zehar, bai eskolak goizez bakarrik daudenean (ekain eta iraileko egunetan barne) bai goiz eta arratsaldeko eskolaldia dagoenean.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, curriculumean aurreikusitako saio guztiak eman daitezten, baita ekainean eta irailean ere.

Batxilergoa gaueko erregimenean ikasten duten ikasleen ordutegia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzako sailburuaren 2010eko uztailaren 26ko Aginduan ezarritakoa izango da (horren bidez, pertsona helduen Batxilergoko irakaskuntza arautzen da; 2010-09-10eko EHAA).

Ordutegien doikuntzaren ondorioz ikasle adingabeak Batxilergoko irakasgai komunak ematen dituzten ikastetxetik irteten direnean, gurasoek edo legezko tutoreek beren gain hartuko duten horien gaineko guztizko erantzukizuna, idatziz, ikasle ikastetxetik irteten den unetik aurrera.

Ikaslea ikasgelan ez dagoenean nahitaez egin behar ez dituen irakasgaiak ematen ari direnean, ikasketa-burutzak beharrezko neurriak hartuko ditu denbora horretan behar bezalako arreta izan dezan.

Batxilergoko ikastetxeek, edonola ere, modalitate bakoitzerako ezarritako gutxieneko ordutegiak errespetatuko dituzte, Batxilergoko curriculum aurreratuaren Dekretuaren (irailaren 6ko 127/2016) I. eranskinean xedatutakoaren arabera.



**Lanbide Heziketako** irakaskuntzan, eskola guztien iraupena 60 minutukoa izango da, salbu eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ordutegiak koordinatzeko doikuntza egiteko egunean 7 eskola ematen diren egunetan.

LOGSEk ezarritako Lanbide Heziketako zikloetako ikasleen asteko ordutegia Lanbide Heziketako Zuzendaritzak heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeei emandako 1998ko ekainaren 24ko Jarraibideetan xedatutakoaren arabera izango da. LOEk ezarritako Lanbide Heziketako zikloetako ikasleen asteko ordutegia heziketa-ziklo horien ezarpena arautzen duten araudietan xedatutakoaren arabera izango da.

46/2016 Dekretua, martxoaren 15ekoa, Lanbide Heziketako zenbait tituluri dagokien curriculumak ezarri eta lehengo zenbait titulurekin lotutako titulu berriak lortzeko kurtso osagarriak sortzen dituena.

104/2016 Dekretua, uztailaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarriko Lanbide Heziketako 20 tituluren curriculumak ezartzen dituena.

### 2.7.3. Araudiaren salbuespenak

Salbuespengisa, Hezkuntzako lurralde-ordezkaririk araudi hau aldatzea onar dezake, betiere aldaketak behar-beharrezkoak badira ikastetxeko maila guztietako edo garraio edo/eta jantoki- zerbitzu bereko ikastetxeetako ikasleak garraiatzeko zerbitzuak koordinatzeko.

## 2.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA.

Ikasle ofizialen eskubidea eta betebeharra da klasera joatea, hala eguneko ikasketetan nola gauekoetan. Inola ere ezin da esan bertaratzea borondatezkoa denik, ikasleak matrikulatuta dauden irakasgaietan.

- Egunen batean ikasle gutxi badago, dena delakoagatik, irakasleek berdin-berdin eman beharko dituzte eskolak.
- Gurasoek edo legezko tutoreek ikasleen hutsegiteak justifikatu behar dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketa-buruak frogagiria onartu behar du. 18 urtetik gorako ikasleek beren frogagiriak aurkeztea erabakitzen badute, lan-harreman arrunten esparruan aurkeztu beharko dituzten frogagiri berak aurkeztu beharko dituzte.
- DBHko ikasleei dagokienez, justifikatu gabeko hutsegiteak jarrera absentista baten ondoriozkoak badira, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturte hasieran xede horrekin bidaliko dien prozedurari jarraituko diote. Edonola ere, ikastetxeek zonako Ikuskaritzari egoeraren berri emango diote, hilabete bakoitzeko 5a baino lehen, aplikazioan sortutako «Notak eta hutsegiteak» izeneko txostenaren bidez.
- Orain arte adierazitakoa kontuan izanik, ordezkaritza-organo gorenak AJAn arauak eman beharko ditu ikasleen hutsegiteei eta sor daitezkeen zuzenketa-neurriei buruz, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak (EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa) xedatzen duenarekin bat (EHAA, 2008ko abenduaren 16koa).

Aipatutako 201/2008 Dekretuan ezarritako artikuluen arabera hartu beharreko neurri zuzentzaileen kalterik gabe, ikasleei ezin bazaizkie aplikatu ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluazioaren metodoak eta irizpideak bertaratze-falten kopuru handia izateagatik, dagozkien ezohiko probetara aurkeztuta ebaluatu beharko dira, ohiko eta ezohiko deialdian.

Ikastetxeek, eraginpeko ikasgai edo modulu bakoitzaren izaeraren arabera, frogaren horien izaera ezarriko dute, indarrean dagoen araudian adierazitakoaren arabera.



## 2.9. ERLIJOA.

### 2.9.1 Erlijioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Ikasle guztiek ikasiko dute Erlijioa edo Balio Etikoak ikasgaia; ikaslearen gurasoek edo, kasua bada, tutoreek ikasturte hasieran adierazi behar dute Erlijioa ikasgaia jaso nahi duten ala ez. Erabakiari automatikoki eutsiko zaio ikasturtez ikasturte, salbu eta familiak edo adin nagusiko ikasleak kontrakoa adierazten badu. Ikastetxe bakoitzak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu horri buruzko informazioa eguneratuta edukitzeko, eta apirilean informazioa jakinaraziko dio hezkuntza-administrazioari, hark hurrengo ikasturte behar bezalako planifikatuahalizandezan.

Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean izenpetutako irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakora egokituko da.

Hala, erlijio katolikoa irakasgaia sartuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nahitaez eskaini beharrekoa ikastetxeentzat eta hautazkoa ikasleentzat.

Beste erlijioen irakaskuntza bat etorriko da Espainiako estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioekin eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioekin.

Curriculuma zehaztea zein eskola-liburuen eta material didaktikoaren erabilera eta, hala dagokionean, horiek ikuskatzea eta onestea, kasuan kasuko agintari erlijiosoen lana da, izenpetutako hitzarmenei jarraituz. Etapako gainerako ikasgaien baldintza eta ondorio berberekin ebaluatuko da erlijio katolikoa. Aipatutako gainerako erlijioen ebaluazioa aipatutako hitzarmenen arabera egingo da.

### 2.9.2. Erlijioa Batxilergoan.

Ikasleen jarraian zehaztutako blokeko irakasgaietako bi egin beharko dituzte gutxienez, eta hiru gehienez:

Batxilergoko 1. maila	Batxilergoko 2. maila
Musika-azterketa I	Musika-azterketa II
Anatomia aplikatua	Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
Kultura zientifikoa	Marrazketa artistikoa II
Marrazketa artistikoa I	Marrazketa teknikoa II
Marrazketa Teknikoa I (beste bloke batean hautatu ez bada)	Administrazio eta Kudeaketaren Oinarriak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Filosofiaren Historia
Erlijioa	Irudia eta soinua
Atzerriko Bigarren Hizkuntza I	Psikologia
Industria Teknologia I	Erlijioa
Informazio eta Komunikazio Teknologia I	Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
Bolumena	Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak
	Industria Teknologia II
	Informazio eta Komunikazio Teknologia II
Modalitateko irakasgaien blokeetako ikasgaibat, ikasleak aurretik hautatu ez duena	Modalitateko irakasgaien blokeetako ikasgaibat, ikasleak aurretik hautatu ez duena



Erligioaren irakasgaia berbera da Batxilergoko bi ikasturteetan eta, ondorioz, ikasleak 1. mailan edo 2. mailan baino ezingo du hautatu. Irakasgai horretako taldea osatzeko, blokeko gainerako irakasgaien baldintza berak bete beharko dira.

## **2.10- LANBIDE HEZIKETAKO PROIEKTU-MODULUA. GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK.**

Heziketa-zikloan zehar eskuratutako ahalmenak eta gaitasunak integratzea da proiektu-moduluaren helburua, eta, horretarako, zeharkako gaitasunak (esate baterako, talde-lana, ekimena, erantzukizuna eta komunikazio-estrategiak) garatzen laguntzen duten metodologiak erabiliko dira.

Proiektu-modulua heziketa-zikloaren azken zatian egingo da, eta indibidualki kalifikatuko da, lantokiko prestakuntza (LP) lanbide-modulua egin ondoren, horren ebaluazioaren emaitzaedozein dela ere. Enpresan egindako praktikaldian eskuratutako gaitasunak modulu horretan sartu ahal izatea da helburua. Oro har, LParen aldi berean egingo da, baina ez egun eta ordu berberetan. Edonola ere, beste aldi batzuk ere ezarri ahal izango dira, betiere metodologia- edo antolamendu- proiektuetan justifikatzen badira. Halako kasuetan, aldi berri horiek onartu eta ikastetxearen curriculum-proiektuan jaso beharko dira.

Lan-eskarmentua izateagatik LP modulua egitetik guztiz salbuetsita geratzearen kasu berezian, ikastetxean 1. eta 2. mailako modulu guztiak gainditzen dituztenean egin dezakete ikasleek proiektu-modulua. LP modulua egiteari uko eginez gero, proiektu-modulua ezin izango da ebaluatu LP modulua bukatu arte.

Lanbide Heziketako ikastetxeek beren curriculum-proiektuan adierazi beharko dituzte goi-mailako heziketa-zikloetan proiektu-modulua gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko irizpide orokorrak. Klaustroari dagokio irizpide horiek onartzea.

Irizpide orokor horiek zehaztu egin beharko dira, eta sail bakoitzeko programazioetara eraman, sailaren barruan onartu ondoren. Sail didaktiko bakoitzeko buruak arduratuko dira onartutako irizpideak behar bezala aplikatzeaz. Ikasketa-buruak gainbegiratuko du ikasleen proiektuengarapena, eta berak konponduko ditugarapen horretan sor litezke engertakizunak.

Ikastetxeko irakasleek ikasleen jarraipena eta tutoretza egiteko eredia jaso beharko da onartutako irizpideen artean. Lanbide Heziketako ikastetxeek ikasleei ikastetxean arreta eskaintzeko eredu bataurreikusia ahal izango dute, datetan bat datorren proiektu-moduluarekin eta LParekin.

Proiektuak banaka edo taldeka egin daitezke, heziketa-ziklo bakarrerako edo batzuetarako, inplikaturako didaktika-sailarekin adostu ondoren. Halaber, hainbat ikastetxeren artean zehatz daitezke, heziketa-ziklo bera edo beste bat dutenen artean. Zikloko beste modulu batzuekin ere lotu ahal izango dira, eta, horrela, proiektuetan oinarrituta dauden ikasketa-metodologia globalagoak garatuko dira. Ikasle bakoitzak bere heziketa-zikloari buruzko alderdiak landu beharko ditu proiektuan.

Heziketa-zikloaren esparruko lan-jardueraren ezaugarrien arabera zehaztuko da proiektuaren lanbide-modulua. Heziketa-zikloko gaitasunak eta ezagutzak uztartzea izango du helburu, eta tituluarekin lotutako teknologia- eta antolaketa-aldagaiak hartuko ditu kontuan.

Didaktika-sailak egin eta onartuko ditu proiektuak zehazteko irizpideak, eta tutoreak esleituko dizkie proiektuak ikasleei. Erabaki horiek akta batean jasoko dira, eta ikastetxeko ikasketa-buruari igorriko zaio akta hori.

Proiektu-modulua banakako edo taldeko tutoretza oinarri hartuta antolatuko da. Modulua



horretan, irakasteko gaitasuna duten eta tutoretza esleitu zaien irakasleek emango dute tutoretza hori, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideetan oinarrituz.

Heziketa-ziklo bakoitzean proiektu-modulua egin behar duten ikasle guztientzat egingo da taldeko tutoretza; taldeko tutoreak egingo du. Proiektu-moduluaren helburuei, proiektu motei eta ikasleek modulua ondo egiteko beste informazio garrantzitsu batzuei buruz orientatzea du helburu tutoretzak.

Banakako tutoretzan, ikaslea orientatuko da, aholkuak emango zaizkio eta proiektua bideratuko da. Hala dagokionean, banakako tutoreak koordinatuko ditu proiektuan lankide diren enpresa edo enpresak, proiektua enpresen laguntzarekin egitea erabaki bada. Ikastetxeek tutoretza horren arretarako aurrez aurreko irakaskuntza-arduraldiko aldiak ezarriko dituzte, xede horretarako emandako ordu-kredituaren edo zuzendaritza-taldeak esleitutako beste edozeinen kontura. Lantokiko prestakuntza egiteko aldiak ikasleak ikastetxera joan beharreko egunetan izan daiteke (martxotik ekainera bitartean, adibidez), baina haren egunak eta orduak ez dira bat etorriko lantokiko prestakuntza egiteko ikaslea enpresara joatea finkatuta dituenekin. Beharrezkoa balitz, komunikazio telematikoen bidez osa daiteke ikasleen aurrez aurreko tutoretza.

Lanak ikasleenak izango dira, ez beste inorenak; baina emandako materialen kopia bat gordeko du ikastetxeak, eta eskolak emateko erabili ahal izango da.

Baldin eta ohikoak ez diren aldiak baimentzen badira LP modulua egiteko, ikastetxeko zuzendariak egokitu egingo ditu proiektu-modulua egiteko eta ebaluatzeko epeak.

## 2.11. IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesua araututa dago abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan (EHAA, 2016-01-15).

Batxilergoko ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesua eta dagozkion dokumentu administratiboak araututa daude irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan (EHAA, 2016-09-23).

### - Heziketa-zikloetako ikasleen ebaluazioa:

Xedapen hauetan xedatutakoaren arabera egingo da:

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutakoa (2016/02/10eko EHAA).
- Agindua, 1997ko uztailaren 15ekoa (1997/10/03ko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza Sistemaren Eraketa Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako Berariazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio prozesua arautzen duena, 1998ko abenduaren 3ko Aginduak aldatutakoa (1999/02/03ko EHAA) (LOGSE ZIKLOAK).
- Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).

### 2.11.1. Ebaluazioari buruzko arau orokorrak

Atal honek xedatzen duena modu subsidiarioan aplikatuko da Ikastetxearen AJAk ebaluazio- bilerei buruzko berariazko araudirik ezartzen ez duen gaietan.



### a) Ebaluazio-bilerak

Nahitaezkoak dira irakasle-taldearentzat; horietan, taldearen tutoreak koordinatuta eta, dagokionean, orientatzaileak lagunduta, irakasle-taldeak elkarrekin hausnartu eta dokumentuetan adierazi behar ditu bilera bakoitzaren egunera arteko ebaluazio-jardueren emaitzak.

Ebaluazioa baliozkoa izan dadin, gutxienez honako baldintza hauek bete behar dira:

- Irakasle-taldeko kide guztiek egon behar dute. Nahitaezkoa dute parte hartzea, gainera.
- Irakasleek tutoreen egoera-orrietan adierazi behar dituzte irakasgai bakoitzeko notak eta estatistikak, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago gutxienez, baita ikasketa-buruak eskatzen duen beste edozein datu ere.
- Tutoreak irakasgai bakoitzeko emaitzen txostena aurkeztu beharko du, baita ebaluazio-bileran aztertu beharreko gaien gidoia ere. Bileran aztertu beharreko gaien gidoia bileraren hasieran aurkeztu behar da, eta, hala badagokio, onartu.

### b) Bilerako akta

Ebaluazio-akta bat egin behar da ebaluazio-bilera bakoitzeko, eta aktak gai hauek adierazi behar ditu, gutxienez:

- Parte hartu duten irakasleen zerrenda eta haien sinadurak.
- Parte hartu ez duten irakasleen zerrenda. Berariaz adierazi behar da bilerara ez joateko baimenik zuten alaez.
- Irakasgai bakoitzean lortutako emaitzen eta izan diren arazoaren analisia.
- Taldearen egoera orokorraren analisia, errendimendu akademikoaren, jarreraren eta arazoaren arabera, eta, beharrezkoa izango balitz, hezkuntza-neurriak hartzea egoera berriz bideratzeko.
- Banakako arazoaren analisia eta hezkuntza indartzeko neurri edo jarduerak hartzea.

### c) Ikasleen parte-hartzea ebaluazio-bileran

Ikastetxeko ordezkari-taldea gorenak erabakiko du noiz sar daitezkeen ikasleen ordezkariak eta zer gaitan parte har dezaketen. Hala ere, argi geratu behar da ikasleen banakako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek bakarrik trata ditzaketela.

### d) Dokumentazioa

Ebaluazio-bileren ostean, ikasketa-buruak emaitzen estatistika-datuak bilduko ditu ordezkari-taldea gorenaren aurkezteko. Era berean, kalifikazioak sartuko dira Hezkuntza Sailaren nota eta hutsegiteen aplikazioan, ikuskari nagusiaren «Ikasturte-amaierako dokumentazio akademikoa» dokumentuan jasotako jarraibideen arabera.

## 2.11.2. Errendimendu akademikoa objektiboki baloratua izateko eskubidea

Ikasle guztiek dute beren errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiborako eskubidea. Bada, erabili ahal izango badute, beharrezkoa da aurrez jakin dezaten zein diren ebaluazio-irizpideak, gutxienezko zer helburu lortu behar dituzten eta gutxienezko zer eduki menderatu behar dituzten ziklo eta maila bakoitzeko irakasgai bakoitzean ebaluazio positiboa izateko. Horrenbestez:

- Ikastetxearen curriculum-proiektuak eta departamentu didaktikoen dokumentazioak, batez ere, programazio didaktikoek aipatutako puntuak bildu beharko dituzte.
- AJAk bermatu behar du ikasleek eta haien legezko ordezkariak dokumentu horiek eskura izango dituztela.

Ikastetxeek irakasgai bakoitza ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak jakinarazi behar dituzte ikasturte hasieran.





**Ikasleek eta, hala badagokio, guraso edo legezko tutoreek eskatu ahal izango dute errendimenduaren ebaluazioan eragina duten lan, proba eta ariketa guztien kopia, zuzendu ondoren, eskuratzeko, baita alegazioak aurkezteko eta lan, proba eta ariketen zuzenketa berrikusteko eskatzeko ere.** Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

AJAK ezarri behar du erreklamazioak aurkezteko prozedura, eta adierazi behar du zer epe eta baldintzatan egingo den berrikusketa, kontuan izanik ikastetxearen curriculum-proiektua, programazioak eta jakinarazitako ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak ere lotesleak direla irakasleentzat, curriculum ofizialaz gain.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleen probak, lanaketa ariketak edonoz eskuratzeko aukera egon dadin ikasturtean zehar, irakasleek ikastetxean erreklamazio-eskabidea ebatzi arte.

Ohiko eta ezohiko deialdietako amaierako probak, ikasleek ikusi ondoren, dagokion departamentuan gorde behar dira, urtebetez.

Kalifikazioen kontrako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko, indarrean diren ebaluazio-aginduetan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Lanbide Heziketako zikloetako ikasleen kasuan, Batxilergoko ikasleentzat ezarritako prozedura aplikatuko da.

### **2.11.3. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak ebaluatzeako neurriak**

Errazagoa izateko hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak ebaluatzea (lanak, proiektuak azterketak egitea eta abar), neurriak hartu behar dituzte ikastetxeek, hala nola: denbora gehiago ematea azterketak eta kontrolak egiteko; esaldiak sinplifikatzea; testuaren formatua ikasleek erabiltzeko modukoa izatea, haien beharren arabera; baliabide teknikoak erabiltzea, beharrezkoa bada; azterketak ahoz egitea idatziz egin beharrean, edo ordenagailuz, batik bat dislexia edo hiperaktibitatea diagnostikaturik duten ikasleentzat; hasieran edo/eta bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; ebaluazio-irizpideak egokitzea eta abar; azken batean, aukeraberdintasuna bermatzeko neurriak hartzea, ikasleek horretarako eskubidea baitute.

Ikastetxetik kanpoko zerbitzuen mende badago azterketak edo kontrolak egiteko materialak egokitzea (berritzegunea, IBT), material horiek egokitzeko behar besteko denboraz emango dituzte, ikasleek probak ikaskideen denbora eta baldintza berberetan egin ahal izan ditzaten.

Curriculumaren norbanako egokitzapenak dituzten ikasleei dagokien dokumentazio akademikoa Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideen eta «Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa» dokumentuaren arabera egingo da.

### **2.11.4. Salbuespenak eta baliozkotzeak**

I.- Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko Dekretuan (uztailaren 11ko 138/1983), Dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta Hezkuntza Sailburuordetzak horretarako emandako urteko ebazpenetan ezarritakoarekin bat etorritik izapidetuko da **Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiak** salbuesteko aukera.



Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Buruzagitzak, ikasturtearen hasieran, ikastetxeetako zuzendaritzei idatzi bat bidaliko die. Bertan zehaztuko dira jarraitu beharreko prozeduraren nobedadeak Hezkuntza sailburuordearen urteko Ebazpena betetzeko. Ebazpen horretan, Euskal Hizkuntza eta Literaturatik salbuesteko aginduak ematen dira. Aipatutako idatzian, honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste:

- Familiek egindako salbuespen-eskaerak.
- Ikastetxeek eskaerak kudeatzea, eskaera-tipologiaren arabera.
- Tramitazioa.
- Eskaeren epea.

Gogorarazten da Euskal Hizkuntza eta Literatura jakintzagairako salbuespena arlo horren ebaluazioari dagokiola soilik, ez, ordea, horren irakaskuntzari. Hortaz, nahitaezkoa da salbuespena eman zaion ikaslea eskoletara joatea eta aurretiaz ezarritako plan indibidualaren arabera arreta jasotzea. Plan horrek aukera ematen dio matrikulatu den kurtsoari dagokion mailan arian-arian sartzeko.

II.- Aldi berean musika- edo dantza-ikasketak eta DBH egiten ari diren ikasleen **baliozkotzeak eta curriculumaren egokitzapenak** baliozkotze horiek ezartzen dituen Dekretuan (uztailaren 13ko 194/2010) xedatutakoaren arabera egingo dira.

Batxilergoan matrikulatuta dauden eta aldi berean musika- eta dantza-ikasketa profesionalak egiten dituzten ikasleek bi irakasgai espezifiko baliozkotu ahal izango dituzte, dagoeneko gaingaita dituzten ikasketa horietako bi irakasgairengatik. Horretarako, lehen mailan bi irakasgaitan matrikulatu behar dira Anatomia aplikatuaren, Musika-hizkuntza eta -praktikaren eta Musika Análisis I-en artean. Bigarren mailan Musikaren eta Dantzaren Historian eta Musika Análisis II-n matrikulatuko dira. Ikasleen Batxilergoko ikastetxeek ikasleak irakasgai horietan matrikulatuko dituzte, irakasgaiak emateko taldea egon edo ez eta, ondoren, baliozkotu egingo dituzte, baldin eta ikasleek irakasgai horiek gaingaitu badituzte musika- edo dantza-ikasketan profesionaletan, taulahauen arabera:

Baliozkotuko den Batxilergoko irakasgaia	Baliozkotzeko balio duen irakasgaia
Musika Análisis I	Harmoniako bigarren maila
Musika Análisis II	Análisis lehen maila, Konposizioaren oinarrietako lehen maila edo Konposizio eta moldaketetako lehen maila.
Musikaren eta dantzaren historia	Musikaren historiaren lehen eta bigarren mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Instrumentu nagusiaren edo ahotsaren hirugarren maila
Anatomia aplikatua	Dantzari aplikatutako anatomiaren lehen eta bigarren mailak
Musikaren eta dantzaren historia	Dantzaren historiaren lehen eta bigarren mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Musikako hirugarren maila



Baliozkotze eta curriculumaren egokitzapen horiek eskatzeko epea **urriaren 15ean** amaitzen da. Ikastetxeko zuzendariak azaroaren 1a baino lehen ebatzi behar du eskaera, eta ebazpen horien kopia bidali beharko du, **azaroaren 15a baino lehen**, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren Ikasketa Antolamenduaren Zerbitzura.

### III.- Batxilergoaren salbuespen partziala.

Indarreko araudiari jarraikiz tramitatuko dira:

- 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 17. Artikulua (1998-08-31ko EHAA).
- 2010eko uztailaren 26ko Aginduaren 11. Artikulua (2010-09-09ko EHAA). Salbuespenetarako epeak:
  - Ikastetxeko zuzendaritzak behar bezala dokumentatutako proposamena (aipatutako artikuluen arabera egindakoa) bidaliko du Hezkuntza Berriztatze lurralde-ordezkaritzara **irailaren 29a** baino lehen.
  - Hezkuntza Berriztatze lurralde-ordezkaritzako zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari eta prestakuntza eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroari (berritzeguneari) beharrezko txostenak eskatuko dizkie, eta horiek, gehienez ere, bi asteko epean beteko dira: **urriaren 16a** arte.
  - Hezkuntza Berriztatze lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara igorriko dituzten horrela betetako espedienteak **urriaren 30a** baino lehen.
  - Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak dagozkien ebazpenak **azaroaren 10a baino lehen** igorriko ditu zentroetara, eta ikastetxeek ikasleei emango diete horien berri **azaroaren 17a** baino lehen.

IV.- Heziketa-zikloetako ikasleen salbuespenak, baliozkotzeak eta egokitasunak bideratzean, xedapen hauetan xedatutakoa beteko da:

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren 2159/2014 Agindua, azaroaren 7koa, Espainiako hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako modulu profesionalen arteko baliozkotzeak ezartzen dituena.
  - a) **LOGSE zikloetan:**
    - 2001eko abenduaren 20ko Agindua (2002/01/09ko BOE) uztailaren 9ko 1842/2002 Aginduaren bidez aldatua (2002/07/19ko BOE).
    - Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren jarraibideak, 1998ko azaroaren 9koak, heziketa-zikloetako baliozkotze- eta egokitasun-sistemari buruzkoak.
  - b) **LOE zikloetan:**
    - 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua.
    - Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).
    - Heziketa-zikloetako curriculumak ezartzen dituzten dekretuak.
  - c) **Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak:**
    - Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak



finkatzen dituen eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. 19. artikulua. Baliozkotzeak eta salbuespenak.

- Ekainaren 9ko 86/2015 Dekretua, EAEn Lanbide Heziketa antolatzeari eta ezartzeari buruzkoa. 20. artikulua.– Baliozkotzeak eta salbuespenak.

**Epeak:** (Otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren 27 bis artikulua)

- Lanbide-moduluen baliozkotzea eta/edo ingeles teknikoaren lanbide-modulutik salbuestea. Ikasleak matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari aurkeztuko dio ikasturte bakoitzaren **irailaren 30a** baino lehen edo, salbuespenez, eta epe hori amaitu ondoren matrikulatuz gero, matrikulatu den egunetik aurrerako 10 egunetan.
- Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua salbuesteko eskabidea egin ahal izango da kasukoazken ebaluazioa egiten den eguna baino lehenago ebazteko epe nahikoa emanda.

Ikaslea zer ikastetxetan matrikulatuta dagoen eta bere espediente akademikoan zer ikastetxe ageritzen, ikastetxe horretako zuzendariak ebatziko du aurreko araudietan berariaz adierazitako baliozkotzeak eta salbuespenak onartzen diren, eskaera egiten denetik hilabeteko epean, gehienez ere.

#### V.- Beste ikasketa-arlo batzuk

Gainerako irakasgaiei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik. Nolanahi ere, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (Hezkuntza Berezia antolatzen duena) xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, hezkuntza inklusiboaren esparruan.

Nork bere gaitasunen neurrian, ikasle guztiek dute aukera irakasgai guztietako edukiak lantzeko, maila bakoitzeko irakasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

Bestalde, ikasleek desgaitasun fisiko iraunkor edo iragankorrak badituzte lesio edo gaixotasunen bat dela-eta, medikuen ziurtagirien arabera desegokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

#### 2.11.5. Diagnostiko-ebaluazioa.

Diagnostiko-ebaluazioak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe guztien erantzukizun partekatua dira, oinarritzko hezkuntzen curriculumari buruzko 54. artikuluan arabera, eta hobetzeko aukera gisa eta ikastetxeentzako, eta, oro har, euskal hezkuntza-sistema osoarentzako erronka gisa hartu behar dira.

Hori horrela, zuzendaritza-taldearen zein hezkuntza-komunitateko gainerako kideen ardura da haren garapena bermatzea, bai eta ebaluazio horrek emandako informazioak tratamendu egokia jasotzen duela bermatzea ere. Zuhurtasun handiz tratatuko dute, eta ikastetxearen hezkuntza-komunitateko kideek ezin izango dute inola ere ezagutarazi, banaka nahiz elkarrekin, jendaurrean.

Diagnostiko-ebaluazio hori nahitaez egin beharrekota da, ikasleentzat ondore akademikorik izan ez arren, eta funts publikoekin finantzaturako ikastetxe guztietan egingo da, gaitasun maila egiaztatzeko eta hobetzeko neurriak ezartzeko.

Hezkuntza Ikuskaritzaren ardura da ebaluazio-prozesuaren nondik norakoak ikuskatzea hala ikasleei nola irakaskuntzaridagokienez.

2019-2020 ikasturtearen bigarren lauhilekoan Lehen Hezkuntzako 6. maila eta Derrigorrezko Bigarren



Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irteera profilako diagnostiko-ebaluazioa egingo da. Bertan EAEko maila horietako ikasleen lagin batek hartuko du parte

2019-2020 ikasturtean, ikastetxeek hezkuntza-komunitateak hobekuntza-helburuen alorrean adostutako zereginak, IUPean txertatutakoak, sistematikoki inplementatzen jarraituko dute, eta horretarako aholkularitza eta laguntza emango diete Hezkuntza Ikuskaritzak eta zonako berritzegunak.

### 2.11.6. Egokitzapenak Unibertsitaterako sarbide-ebaluaketan (USE).

Berriazko hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleek egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, sarbide-probak egiteko orduan. Sarbide-probetarako egokitzapen motak ikusteko, esteka hau erabil daiteke: <sup>14</sup>Bigarren hezkuntzako ikastetxeen eskaeran jaso beharreko txostenen eredua.

## 3. IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK.

Irakasleen eginkizunak 236/2015 Dekretuaren 30. artikuluan eta 127/2016 Dekretuan bilduta daude. Atal honetarako ere kontuan hartuko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean (apirilaren 12ko 7/2007) jasotakoa, batik bat funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak, faltak eta zigorrak, kode deontologikoa eta gainerakoak, baita indarrean diren lan-hitzarmenak ere.

### 3.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA.

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 36.f) artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran, gai hori arautzen duten arauen arabera.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen urteko planeko proiektuen arduradunen artean.

#### 3.1.1.-Irakasgaiak eta taldeak banatzea

Ikasgaien eta orduen esleipena egitean, honako hauek hartuko dira kontuan: irakaskuntzako esleipenak eta funtzioak arautzen dituzten arauak, langilea atxikita dagoen lanpostua, ekitate-irizpideak, irakaskuntza kalitatezkoa izateko irizpideak, eta nahitaez bete behar diren beste irizpide eta arau hauek.

##### a) Irizpideak:

- Ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleei esleituko zaizkie, lehentasunez, zailtasun handiagoa duten edo jaripen zehatzago eskatzen duten taldeak.
- Era berean, talde berarekin lan egiten duten irakasleen kopurua murrizteko ahaleginak egingo dira DBHn, batik bat lehen bi ikasturteetan, espezialitateen Errege Dekretuan ezarritako irakasgaien esleipenaren kalterik gabe.
- Egunez eta gaeuz irakasten duten ikastetxeetan irakasle bakar bati esleituko zaizkio bi txandak, beste modurik ez dagoenean bakarrik; ikasketa-buruak bere zereginak betetzen dituen txandan eman beharko ditu klaseak.

<sup>14</sup> <http://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/sarbide-probetarako-egoitzapenak>



## b) Arauak:

- B eta/edo D ereduko taldeak dituzten ikastetxeetan, HE2 lanpostua duen irakasleek ezin izango dute klaserik eman A ereduko taldeetan, ez eta gaztelaniaz ematen diren B ereduko irakasgaietan, harik eta beren espezialitateko D ereduko ordu guztiak eta B ereduko euskarazko irakasgaiak guztiz estalita egon arte.
- Hala ere, ikastetxeak beharrik badu, IRALE programaren bidez edo Sail honek diruz lagundutako beste ikastaroren baten bidez HE2 egiaztatu duten irakasleek euskarazko eskolak emanditzakete, haien lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna HE1 izanda ere.
- DBHko lehen eta bigarren mailari esleitutako maisu-maistrek ikasturte horietan baino ezin ditzakete eskolak eman, eta lehentasuna izango dute ikasturte horietan jarduteko.
- Espezialitate bakoitzari dagozkion irakasgai guztien ordu kopurua zenbatuko da, eta espezialitate horien irakasleei esleituko zaizkie. Hizkuntza sendotzeko, curriculum-aniztasuneko eta zereginak ikasteko gelako orduak lanpostu horietako irakasleei esleituko zaizkie.
- Espezialitate bateko irakasleek beren espezialitateko irakasgaiekin osa baditzakete beren ordutegiak, horrelaxe egingo dute eta ez zaie beste espezialitate bateko irakasgairik esleituko. Era berean, hizkuntza sendotzeko, curriculum-aniztasuneko eta zereginak ikasteko gelako irakasleek dagokien lanpostuko orduekin osa badezakete beren lanaldia, horrelaxe egingo dute eta ez zaie bestelako irakasgairik esleituko.
- Espezialitate edo lanpostu batean ez bada posible dagozkion irakasgai eta taldeekin irakasle guztiek ordutegia osatzea, ikastetxeko ikasketa-buruak, beste espezialitate edo lanpostuetako gainerako orduak erabiliz, osatu gabeko ordutegia duten irakasleei beren ordutegia osatzeko beharrezko irakasgaiak eta taldeak esleituko dizkie, baldintzak betetzen badituzte, betiere. Horretarako, irakaslearen espezialitate edo lanpostuaren curriculumetik hurbilen dauden irakasgaiak esleituko dira eta horien artean, posible den heinean, espezializazio maila txikiagoa eskatzen dutenak. Hori guztia ordezkapenen araudiko eranskinetako kidesun-taulen arabera egingo da.

Adierazitakoa errespetatuz, eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoaren arabera, ikasketa-buruak irakasle bakoitzari esleituko dizkio eman behar dituen mailak eta taldeak, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideak kontuan harturik. Edonola ere, ikasketa-buruak irakasleei irakasgaiak esleitzeko indarreko araudiak xedatutakoa errespetatu beharko du.

Ikastetxeko zuzendaritzak legezko eskumena du, ikastetxearen antolamendu hoberenari eta ikasleen beharrei begirako moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta, eskolak irakasleen artean banatzeko, departamentuaren eta irakasleen proposamenakentzuna etagero.

### 3.1.2. Irakasleen ordutegia osatzeko modua

Irakasle bakoitzari dagozkion taldeak esleitu eta gero, ikasketa-buruak ordutegiak osatuko ditu, klaustroak ezarritako eta nahitaez AJAn jasotako irizpide pedagogikoen arabera.

Ordutegiak finkatzeko, ahal den neurrian, aipatutako irizpideen kontra egin gabe betiere, ikasketa-buruak bereziki kontuan hartu behar du irakasleek eskolak txanda ezberdinetan (goizez, arratsaldean edo gauzean) edo ikastetxe edo/eta eraikin ezberdinetan eman behar dituzten, tokiko batzordeetan parte hartu behar duten, gaixotasun kronikoak dituzten senideak zaintzeko baimena duten edo mugikortasun-arazoak dituzten, halako egoerek irakasleei ahalik eta eragozpen gutxien sorrarazteko.

Ordutegia ezin izango da aldatu irakasleek ondoren adierazitako lehentasunengatik.



### 3.1.3. Irakasgaien eta taldeen banaketa eta ordutegia onartzea eta ezagutzera ematea.

Irakasleek nahitaez bete beharko dute ikasketa-buruak egin eta zuzendaritzak onartutako irakasgai, talde eta ordutegien esleipena.

Ikastetxearen ordutegia unean uneko agerian, ongi ikusteko lekuan, eduki behar da beti, irakasle-gelako eta ikasketa-buruaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean.

Gainera, ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren eskura egon behar da, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

### 3.2.- URTEKO LANALDIA

Lanaldi motak eta egutegia gorabehera, langileen arduraldia 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculumabetetzeko orduak, ordutegiosagarria eta irakasleek ikastetxean eman beharreko orduak.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena) 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena) 50. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak gozatzeko eskubidea izango dute, edo, zerbitzu-denbora urtebetera iristen ez bada, proportzionalki egokituko litzaizkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Aipatutako oporraldi hori abuztuan hartuko dute irakasleek. Iraileko lehenengo lanegunean, irakasle guztiek egon behar dute dagokien ikastetxean lanerako prest.

Oporraldia eten egin ahal izango da tarte horretan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero, eta irakasleak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du, gorabehera gainditu eta medikuaren alta- agiria jaso ostean. Hartu gabe geratu diren opor-egunak aldi bakarrean hartu beharko dira; ahal dela, eskolarik ez dagoenean.

### 3.3.- ASTEKO LANALDIA

#### a) Arduraldi arrunta duten irakasleak

Irakasleek ikastetxean duten zuzeneko arduraldi arrunta astean 30 ordukoa izango da. Astean 23 ordu izango dira ikastetxean egotekoak. Ordu horien barruan irakaskuntza-alduraldikoak egongo dira, hau da, ikasleekin esku-hartze zuzena izateko orduak.

23 ordu horietan sartuko dira honako hauek: curriculumaren irakaskuntza-orduak; ikasleekiko tutoretzakoak, hezkuntza sendotzeko orduak, ikasleek parte-hartzeko ikastetxearen heziketa-proiektuan onartuta dauden proiektuetako jardueretan ematen diren orduak; eta hezkuntza-arretako orduak (guardiak eta jolastokiko zaintza). Gainera, kontuan hartuko dira gurasoen arreta-orduak, taldeko tutoretzaz besteko tutoretza-lanetakoak, departamentu didaktikoko bilerenak edo koordinazio pedagogikoko beste bilera batzuenak, prestakuntza-jardueretakoak eta ikastetxearen heziketa-proiektua garatzen laguntzen duen beste edozein jarduera.



Edozein inguruabar dela-eta ordutegiak orokorrean ezarritako 23 ordu baino gutxiago baditu, zuzendaritzak orduak gehitu beharko ditu ordutegian, kasu guztietan ordutegia bete dadin.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzeta eta prestakuntza bultzatzeko, gomendatzen da irakasle guztien asteko arduraldiko eta ikastetxean egon beharreko ordutegiak bat egitea.

Ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko gainerako asteko 7 orduak hileroko zenbatuko dira eta honetara bideratuko dira: departamentu bakoitzeko hainbat jardura (programazioa, materialen diseinua, proiektu eta programen ebaluazioa etab.), kide anitzeko organoetako bilerak, ebaluazio- bilerak, ikastetxeko plangintza- eta antolamendu-tresnen lanketa, taldeko edo mailako irakasleen koordinazio-bilerak, dagozkien bestelako eginkizunak, Hizkuntza Proiektuaren batzordea, aniztasunaren arretarako Plana, Tutoretza Ekintzaren Plana eta Elkarbizitza Plana, eta eskolaz kanpoko beste jardura batzuk eta jardura osagarri batzuk.

Ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko ordu horien baitan, ikastetxeko zuzendaritzak irakasle guztiak aldi berean ikastetxean egoteko ordu batzuk ezarri ahal izango ditu, irakasle guztiak batera bertan egotea eskatzen duten koordinazio-eginkizunak egiteko, tartean ikastetxeko prestakuntza-planetik eratorritakoak. Irakasle guztiak aldi berean eskolan egoteko tarte horiek ikasturte hasieran erabaki behar ditu zuzendaritzak, eta denbora hilabeteka edo asteka ezarri ahal izango da.

7 ordu horien plangintza zehatza IUPan jaso behar da.

Gainerako orduak, irakasleek zuzenean ikastetxeari dedikatu behar ez dizkietenak (1.462 ordua arte), berriz, honako hauek egiteko erabili behar dituzte: irakaslana prestatzeko, azterketak zuzentzeko, borondatezko eta banakako hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

Ikastetxeko zuzendariak antolatuko du jolas-orduetarako ikasleen zaintza; horretarako, jolastokian zein ikastetxeko beste gune batzuetan dauden ikasle guztiak aktiboki zaindu eta begiratzeko beharrezkoa den irakasle kopurua jarriko du. Irakasle/ikasle ratioa ikasleen adinaren eta zaindu beharreko guneak dituen ezaugarrien arabera zehaztuko da.

Heziketa-zikloen segida modular egoki eta koherentea ezartzearen, ikasturteko aldi jakin batzuetan asteko 25 eskola-ordu ere izan ditzakete modulu horiek ematen dituzten irakasleek, betiere daukaten arduraldi motatik ondorioztatzen den urteko curriculumarekin emateko orduen guztizko kopurua hartuta erreferentziatzen.

### Hezkuntza-errefortzua

Ikastetxe bakoitzak, aniztasunarekiko arreta-planaren esparruan, hezkuntza-errefortzuko plan bat ezarri behar du, non jasoko diren ikasleek ikastean izan ohi dituzten zailtasunei aurre egin eta ikaskuntza sendotze aldera irakasleek diseinatutako hezkuntza-neurriak, indibidualak zein kolektiboak. Irakasle guztiak engaiatuko dira zeregin horretara, eta nagusiki gaitasun-garapenaren hasierako mailan dauden ikasleei egongo da zuzenduta. Hezkuntza Sailak «Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientazioak oinarritzko hezkuntzan»<sup>15</sup> dokumentua osatu zuen, erreferentziatzen erabil daitekeena premian den ikasle bakoitzaren neurrirako planak prestatzeko.

Hezkuntza indartzeko planean zehaztuta geratuko dira planean parte hartuko duten irakasleak, zeregin horretara bideratuko den ordu-kreditua eta aniztasunari ikuspegi etiko eta inklusibo batez erantzuteko ekintzak eta estrategiak, hala nola:

<sup>15</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientazioak oinarritzko hezkuntzan





- Zenbaitjardueratan, taldean irakasle bat baino gehiago egotea. Ikasleei arreta emateko.
- Ikasturtea gainditu arren aurreko urtetik ikasgairen bat gainditu gabe duten ikasleentzako erantzuna.
- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen errekupeazioak ikasgelatik eta eskola-ordutegi arruntetik kanpo.
- Irakaskuntza etxean jasotzeko beharra duten ikasleei arreta pedagogikoa ematea.

Ordu-kredituan aldaketak egiteko aukera eskain liteke, ikasturtean zehar eskolatutako ikasle berrien ondorioz sortutako premiei erantzuteko. Ikasle etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeek neurri bereziak izango dituzte, ebazpen honetan hizkuntza-errefortzuko irakasleen atalean zehazten direnak.

#### a) Lanaldi murriztua duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa lana eta familia-bizitza bateratze aldera eskatzen denean, ikastetxeetako zuzendariek ahal duten gutzia egingo dute interesdunaren ordutegia eskaera horren arabera izan dadin, betiere horrek ez badu eragin negatiborik ikasleei ematen zaien arretan.

- **Lanaldi erdiko murrizketa**

Lanaldi erdia duten bigarren hezkuntzako irakasleek astean 15 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 11 irakaskuntzako arduraldikoak eta curriculum ematekoak izango dira. Ordu horiek zein ikastetxean egon beharreko gainerako 4ak (asteko lanaldia osatzen dutenak) eta ikastetxeko dedikazio ez zuzeneko gainerako orduak 3.1.3.a apartatuan jasotako zereginetarako erabiliko dira, batik bat prestakuntzarako, zuzendaritzak hala erabakitzen badu.

- **Lanaldiaren herena murriztea.**

Lanaldi herenaren murrizketa duten bigarren hezkuntzako irakasleek astean 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietako 15 irakaskuntzako arduraldikoak eta curriculum ematekoak izango dira. Ordu horiek zein asteko lanaldia osatzen duten gainerako 5ak eta ikastetxeko dedikazio ez zuzeneko gainerako orduak 3.1.3.a apartatuan jasotako zereginetarako erabiliko dira, batik bat prestakuntzarako, zuzendaritzak hala erabakitzen badu.

- **Lanaldiaren heren bat duten irakasleen ordutegia.**

Irakasle hauen ordutegia astean 10 ordukoa izango da, eta horietatik 7 irakaskuntza-arduraldikoak izango dira. Ordutegi horrek irakasle titularraren ordutegia osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta egondadin.

- **Osasun-arazo larriengatik lanaldi murriztua duten irakasleak**

Osasun-arazo larriak direla-eta irakaskuntza-dedikazioko orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek astean 6 ordura murriztu ahalko dute zuzeneko irakaslana. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastetxean ordu gutxiago egon behar dutenik.

Ordu horiek jarduera hauetarako erabiliko dituzte: zereginak egitea, liburutegia zaintzea, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzea, hezkuntza-arretako zereginak eta antzeko beste lanak, ikastetxeko zuzendaritzaren aginduz. Irakasleen ordutegian jasotageratuko dira horrelako lanetan ematen dituzten orduak.

- **Gaixotasun kronikoa duten senideez arduratzeko baimena duten irakasleak.**

2. mailara arteko senide batez arduratzeko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraituz, 50 orduko baimena izango dute ikasturteko, gehienez ere. Baimena erabiltzeko, ikastetxeko zuzendariarekin koordinatu behar dute, eskatzaileak eskolan ematen duen zerbitzua ematen dela ziurtatzeko, hezkuntzaren eta antolakuntzaren koherentzia bermatuta.

Irakasleen ordutegia prestatzeko, ikasleekin zuzenean eman behar ez dituzten



orduen banaketan, aintzat hartuko dira baimen hau onartuta duten pertsonen adierazitako premiak. Baimen honek ez du esan nahi aurretik finkatutako ordutegia aldatzeko eskubiderik dagoenik.

Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza ez badira bat etortzen baimena erabiltzeko moduari buruz eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako lurralde-ordetzariaren aurrean, hark ebatz dezan, Hezkuntza Ikuskaritzak egingo duen txostena kontuan izanda.

#### **b) Arau orokorren salbuespenak**

- Zuzendaritzako karguak dituzten irakasleek karguan aritzeko orduak har ditzakete hezkuntza-arretako orduen ordezkari baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte hezkuntza-arretako ordu guztiak.

- Departamentu didaktiko bateko irakasleek beste departamentu bateko irakasgaiak ematen badituzte, zuzendaritzak baimena eman ahal die hezkuntza-arretako ordu bat kentzeko eta beste departamentuko bilera bat egiteko ordu horretan.

- Irakasleren baten asteko eskola-orduen kopurua handiagoa bada oro har xedatutakoa baino, hezkuntza-arretako orduak kendu behar zaizkio soberako orduak konpentsatzeko.

- Zuzendaritzak aukera izango du irakasleei jarduera bereziak egitea ezartzeko, hezkuntza-arretako orduak egin ordezkari baldin eta horretarako biderik badago eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala estalita badaude.

- Irakasle batek tutoretza bat eta beste kargu bat hartu baditu bere gain zerbitzu-beharrak direla eta, hezkuntza-arretako orduak beste karguan aritzeko orduengatik ordezkari dira, betiere baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte hezkuntza-arretako ordu guztiak. Ordainsarien ondoretarako, karguetako baten berariazko osagarria baino ez da kobratuko, eta irakaslearen eskugeratuko da erabaki hori.

- Hezkuntza-arretarako ordutegi bat antolatuko da ikastetxearen beharrak betetzeko. Ordutegia ikastetxearen tamainaren eta eskaintzen dituen hezkuntza-etapen arabera izango da, arreta berezia jarritz jardunaldi bakoitzeko lehen eta azken saioetan. Horretarako, zuzendaritzak irakasleen hezkuntza-arretako orduen kopurua handitu ahal du, beharrezkoa bada.

- Irakasle batek ez badu osatzen irakaskuntza-arduraldiko orduen gutxienezko kopurua eta beste ikastetxe batean osatu behar badu, kontuan izan behar da ordutegiak osatzeko, eta saiatu behar da egun berean ikastetxe batean baino gehiagotan curriculumik eman behar izan ez dezan. Ezinezkoa bada, berriz, joan-etorriak egiteko denbora kendu behar da hezkuntza-arretako orduetatik eta ikastetxean eman beharreko orduetatik.

#### **d) Irakasleen ordutegia**

Ikastetxean eman beharreko orduak asteko egun guztietan banatuko dira, eta egunero hiru orduz egon beharko dute gutxienez ikastetxean lanaldi osoko irakasleek, asteleheneetik ostiralera, eta bi orduz egon beharko dute gutxienez ikastetxean egunero asteko lau, hiru eta bi egunetan, hurrenez hurren, lanaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 duten irakasleek. DBH eta Batxilergoko irakasleek 5 eskola eman ditzakete eguneko gehienez, eta heziketa-zikloetakoek, aldiz, 6 eskola-ordu eman ahal izango dituzte gehienez.

Enpresako prestakuntzaren tutoretza-orduak (lantokiko prestakuntza - LP, Ikas-ekinezko Lanbide Dualaren Prestakuntza), ondorio guztietarako, curriculum emateko ordutzat joko dira; hala, ikasketa-buruari aurkeztu beharko zaio, behar besteko denborarekin, bisiten eta ordutegi horren erabileraren plan bat. Lantokiak ikastetxetik urrun badaude, komunikabide eraginkor eta egiaztagarriak erabili beharko dira jarraipena bermatzeko. LPren aldia edo ikas-ekinezko araubideko lanbide-heziketa duala egiteko aldia amaitzen denean, tutore bakoitzak memoria bat aurkeztuko du, jarraipena eta ebaluazioa (LPren tutorearen kasuan) jasota, eta proiektua eta memoria, jarraipena eta ebaluazioa jasota (ikas-ekinezko araubideko lanbide-heziketa dualeko tutorearen kasuan), tutoretza-lanak betetz egin duen jardura azalduta.



### e) Gorputz-hezkuntza, Musika eta plastika- eta ikus-hezkuntza ematen duten irakasleak

Ikastetxeko hezkuntza-arretako irakasleen ordutegiak aukera ematen badu, gorputz-hezkuntza, musika eta plastika- eta ikus-hezkuntza ematen duten irakasleen hezkuntza-arretako orduen ordezkariak kanpoko jardueretako orduak eman ahal izango dituzte irakasle horiek, beraiek ados badaude betiere, eskola-ordutegitik kanpo, irakasgai horiek inzerikusiatu duten jardueretan.

Neurri hau aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da bermatzea ikastetxeko hezkuntza-arretako ordu guztiak betetzen direla eta ikastetxeko beste irakasle bakar batek ere ez dituela astean hezkuntza-arretako hiru ordu baino gehiago egin beharko arrazoi horregatik.

### f) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak.

Irakasle horien eginkizunak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 1998ko uztailaren 30ean emandako Aginduan daude zehaztuta (abuztuaren 31ko EHAA). Lanaldia gainerako irakasleena bezalako izango da, eta eginkizun guzti-guztiak bete beharko dituzte ordutegian, lehentasuna emanez ikasleekin esku hartzeari.

Irakasle horien esku-hartzea ohiko ikasgeletan egingo da, salbuespeneko kasuak izan ezik; salbuespenek Hezkuntza Ikuskaritzaren baimena beharko dute eta behar bezala justifikatuta egongo dira irakaslearen heziketa-proposamena egitean. Dena den, zenbait inguruabar direla-eta, esku-hartze hori ohiko ikasgelaz bestelako toki batean egin behar bada, toki horretan egiten dena kanpotik ikusteko moduan izan beharko du.

### g) Hizkuntza Indartzeko Irakasleak.

Ikastetxeko zuzendariak HIIak izendatuko ditu, behar bezala arrazoituta salbuespenak salbuespen, eskakizun hauek betetzen dituzten klustroko irakasleak:

- Ikastetxean esperientzia duten irakasleak izatea, zentroaren errealitatea ezagutzen dutenak...
- Hizkuntzak irakasten esperientzia duten irakasleak izatea.

Bestalde honako hau gomendatzen da:

- HIIak gainerako eragileekin (irakasle tutoreak, irakasle aholkulariak, eta abar) koordinazioa errazteko bileren planifikazio bat izatea.
- HIIaren lana ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan edota Aniztasunaren Arretarako Planean islatu behar da.
- HIIak Berritzegune Nagusiak edo zonaldeko berritzeguneek antolatutako hastapeneko prestakuntzan edota prestakuntza jarraituan parte hartuko du.

Hizkuntza indartzeko irakasleen eginkizunak izango dira:

- Hizkuntza indartzeko programazioa egitea, betiere hura ikaslearen beharretara egokituz.
- Tutoreari laguntzea ikasle horientzako banako esku-hartze plana egiten.
- Tutorearekin eta orientatzailearekin koordinatzea ikasleensegimendua egiteko.
- Material didaktikoak aztertzea, antolatzea eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.
- Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.

Hizkuntza indartzeko irakasleek egiteko hauek izango dituzte ikasle etorri berrien tutorearekin batera:

- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesu bat ezartzea, banakako esku-hartze plana egin eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko.
- Etorri berriak diren ikasle harrerara eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Ikaslearen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.



Materialak eta edukiak zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik egokitzea

Eskola-komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza-errefortzuko irakasleek egiteko hauetan parte hartuko dute gainerako irakasleekin:

- Hizkuntzen irakaskuntza-jarduerak planifikatzea, horien tratamendu integrala kontuan izanik.
- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia txertatzeko jarduerak diseinatzea.

#### **h) Erljio-irakasleak.**

Beren erreferentziako ikastetxearen klaustroko kideak dira ondorio guztietarako eta gainerako irakasleen eskubide eta betebeharrak dituzte, legerian eta indarrean dagoen araudian ezarritako salbuespenekin eta kontratuko gorabehera espezifikoaren ondoriozkoekin.

Erljio-irakasleek irakasgai horri dagozkien orduak emango dituzte eta, beharrezkoa bada, zuzendaritzak esleitzen dizkien irakaskuntza-jarduerekin osatuko dute beren ordutegia.

Ikastetxeak 2.7.2 puntuan zehaztutakoa baino handiagoa den erreferentziako ordutegi bat ezartzen badu, irakasle ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kide bada, zuzendaritza-taldeak horren berri emango dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, beharrezkoak izan litezkeen ordezkapenentarako.

### **3.4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTELAKO KARGUAK.**

#### **I.- Zuzendaritza-taldea**

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketa-buruak eta idazkariak eta, dagokionean, administratzaileak osatuko dute zuzendaritza-taldea.

Baldin eta zuzendaritza-karguen eta bestelako karguen ordu-murrizketak kalkulatu eta gero ikusten bada ikastetxean badirela ordu nahikoak, alboko zuzendaria (zuzendariordea), alboko ikasketa-burua eta alboko idazkaria egon ahalko dira.

Eskolak gauez ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketa-burua.

#### **II.- Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk**

Ikastetxeetan, halaber, zuzendaritzakoak ez diren kargu hauek egongo dira:

- Ikastegiak dituzten ikastetxeetan, irakasle delegatua.
- DBH eta beste hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo heziketa- zikloak) ematen duten ikastetxeetan, DBHko koordinatzailea.
- Lanbide Heziketa espezifikoa ematen duten ikastetxeetan kargu hauek izan ahalko dituzte, besteak beste: ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa dualaren koordinatzailea eta, hala bada, gogio, enplegurako prestakuntzaren arduraduna.
- Kalitatearen ISO 9000 ziurtagiria duten ikastetxeetan, kalitatearen arduraduna.
- Ikastetxeek koordinatzaileko beste kargu batzuk izendatu ahal izango dituzte, beren AJAn ezarritako irizpide eta prozedurekin bat (prestakuntzako koordinatzailea, berrikuntza- edo esperientzia-proiektuaren koordinatzailea, baliabide didaktikoen arduraduna...). Irakasle horien ordutegi-murrizketak ikastetxean eskuragarri dauden orduen arabera izango dira.



### III.- Irakasle delegatua

DBH eskola-eremutik kanpoko ikastegi batean ematen den ikastetxeek irakasle delegatu bat izango dute. Pertsona hori arduratuko da ikastegi horretan honako zeregin hauek betetzeaz:

- Ikastegiaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, ikastetxeko zuzendaritzak emandako jarraibideei kasu eginez betiere.
- Arau, xedapen, proiektu eta jarduketako programak eta ikastegiko jardunean eragina duten erabakiak betearaztea.
- Zuzendariaren ordezkari gisa ikastegiko langile guztien buru izatea langileek ikastegian egin beharreko jardunari loturik, ikastetxeko zuzendariak gai honi dagokionez dauzkan eskumenak errespetatuz eta haren argibideei kasu eginez betiere.
- Ikastegian diharduten irakasleek ordutegi akademikoa betetzen dutela zaintzea.
- Ikastegiko instalazio, altzari, ekipamendu eta material didaktikoak egoera onean daudela zaintzea eta horiez arduratzea.
- Ikastetxeko zuzendaritzaren ordezkaria izatea ikasleekin eta haien familia edo legezko ordezkariekin izandako harremanetan.
- Ikastegia Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean kokaturik balego, ikastetxe horretako zuzendaritza-taldearekin koordinatzea ikastegiaren jardueraketa funtzionamendua.
- AJAren araberrako beste edozein zeregin eta ikastetxeko zuzendaritzak zuzenean esleitzen dizkionak.

### IV.- DBHko koordinatzailea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta bestelako hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak) ematen duten ikastetxeen kasuan, zuzendaritzak DBHko irakasle bat izendatu ahal izango du DBHko koordinatzailearen lanak egin ditzan. Pertsona horrek zeregin eta ardura hauek izango ditu, ikasketa-buruak zuzenduta eta gainbegiratuta:

- DBHko mailen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta esleituta dauzkan Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetakoko curriculum-proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko.
- Ikastetxearen eta DBHko ikasleek ondoren gauzatu dituzten Batxilergoko eta Erdi mailako heziketa-zikloetako ikasketen irakasle-taldearen arteko komunikazioa eta lankidetzak; talde horiek ikastetxe berekoak edo derrigorrezkoak ez den bigarren hezkuntzako beste ikastetxe batzuetakoak izan daitezke.

### V.- BAT taldearen koordinatzailea

BAT taldearen koordinatzaileak honako eginkizun hauek izango ditu:

- BAT taldearen koordinazio eta lan komuneko uneak kudeatu, ezarri eta dinamizatzea: deialdiak, aktak, saioen edukia ...
- Jazarpen-kasuetan esku-hartzeen jarraipena egitea, bai eta konpontzen laguntzea ere.
- Esku-hartzeak modu ordenatuan, bizkorrean, konfidentziaz eta egoki batean egiten direla zaintzea, bai ikasleei dagokienez, bai eta familiei eta irakasle-talderi dagokienez ere.
- Zonako Berritzeguneak antolatutako prestakuntza-mintegian eta Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, eta jasotako prestakuntza taldeko kideen artean partekatzen dela ziurtatzea.



## VI.- Zuzendaritza-karguen eta beste karguen murrizketak kalkulatzeko arauak

- Ikastetxeko ikasle ofizialen guztizko kopurua. Hona hemen aurreikusitako tarteak:
  - 350etik behera 27 orduko murrizketa
  - 350 eta 750 artean 33 orduko murrizketa
  - 751 eta 1.000 artean 39 orduko murrizketa
  - 1.000tik gora 42 orduko murrizketa
- Eskolak gau ez ematen dituzten ikastetxeek beste 6 ordu gehituko dizkiote murrizketari.
- Aldi berean DBH eta DBHO irakasten duten ikastetxeek beste 6 ordu gehituko dizkiote murrizketari.
- Bi edo hiru Batxilergo modalitate irakasten dituzten ikastetxeek beste 6 eta 9 ordu gehituko dizkiote murrizketari, hurrenez hurren.
- Heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek 3 ordu gehituko dizkiote murrizketari ziklo bakoitzeko, guztira gehienez 18 ordu murriztu ahalik direlarik arazo horren ondorioz.
- Eskola-esparru ezberdinetako eraikin bat baino gehiagotan dauden ikastetxeek 9 ordu gehituko dizkiote murrizketari.
- Mantentze-lanen eta obren arduraduna duten ikastetxeek 3 orduko murrizketa esleituko diote kargu horri.

## VII.- Murrizketa-orduen aplikazioa

Zuzendaritza-karguen eta bestelako karguen murrizketen guztizkoa izango da aurreko atal guztietako murrizketen batura.

Ikastetxeek guztizko ordu-kopurua banatuko dute zuzendari, ikasketa-buru, idazkari eta gainerako kargudunen artean, ondoko jarraibideen arabera, betiere:

Gutxieneko murrizketa karguaren arabera:

- Zuzendaria 9 ordu
- Ikasketa-burua 6 ordu
- Idazkaria 6 ordu
- Irakasle delegatua 6 ordu
- DBHko koordinatzailea 3 ordu

Kargu titularren ordu-murrizketak beti izan behar du alboko karguarena baino handiagoa.

Alboko karguaren berariazko osagarriaren zenbatekoa jasotzeko, 9 orduko murrizketa izan beharko da gutxienez.

Aipatutako zenbatekoak eta indarrean dagoen araudia errespetatuz, zuzendaritza-taldeak kargu bakoitzaren ordu-murrizketa erabaki beharko du, ikastetxearen orduak agortu arte.

Bere autonomia erabiliz, ikastetxeak bere AJAn ezarri ahalik du alboko kargu gehiago izatea, aurreko arauak aipatzen dituztenak baino. Hala ere, kargu horien izendapenek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute emango eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

## VIII.- Zuzendaritza-karguen ordutegia

Zuzendaritza-taldeko kideren batek ikastetxean egon behar du ikasle onihiko eskola-ordutegi guztian.



Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariek aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko. Hileko hirugarren ostegunean berritzeguneko zuzendariak deituko ditu dagokien mintegira.

### 3.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA. LANORDUAK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA.

2018-2019. ikasturte arte, ikastetxeen zuzendaritzek desgaitu egin den aplikazio batean erregistratzen zituzten irakasleen absentziak. Aplikazio horretan, absentziaren arrazoiak adierazten ziren (goitibeherako menu batetik aukeratuak), baita zein egunetan gertatzen zen eta iraupena ere (egun osoa edo zati batean).

Aurrerantzean, antzeko moduan jokatu da, baina beste aplikazio bat erabiliz: “Eskolako Ekintzen Dokumentua (EED)/Ordutegi taulak”. Horretarako, EEDn fitxa berri bat gehitu dugu: “Irakasleen absentziak”. Fitxa horren barruan sartutakoan, etorri ez den irakaslea nor den adieraziko da, absentzia zein egunetan gertatu den, eta absentziaren arrazoiak.

Lehenengo aplikazioarekin gertatzen zen bezala, EEDn ere goitibeherako menu bat agertuko da; bertan, absentziarako egon daitezkeen arrazoi GUZTIAK zerrendatzen dira, eta dagokiona aukeratu dugu.

Justifikazio gabeko absentziak direnean, ikastetxearen zuzendaritzak arrazoi hori aukeratu du EEDren absentzien goitibeherako menuan, eta aplikazioak automatikoki bidaliko dio jakinarazpen bat erreferentziako Ikuskatzaileari; hark dagozkion prozedurei ekingo die, Euskal Funtzio Publikoaren Legean kasu horretarako ezarri bezala. Kasu horietan, irakasleak egoki ikusten dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean, hark azken ebazpena eman dezan.

Lan-baldintzak Arautzeko Akordioan zehaztutako arrazoiez bestelako absentzia justifikatuak gertatzen direnean, ikastetxearen zuzendaritzak arrazoi hori aukeratu du EEDren absentzien goitibeherako menuan; gainera, irakasle horrek “III ERANSKINA” bete beharko du, beheko estekan dagoena (“Irakasleen / lan-legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak”):

<http://www.euskadi.eus/informazioa/araubide-bereziko-irakaskuntzeko-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Ikastetxearen zuzendaritzaren “III ERANSKINA”ko sinadurak esan nahiko du hark babestu egiten duela bertan ematen den azalpena, hari sinesgarritasuna eta balioa emanez. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon dadin.

Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu behar dira eta, ahal den guztietan, Zuzendaritzaren aurrean agirien bidez egiaztatu, hark eskatu beharrik gabe eta indarrean den lan-baldintzak arautzeko akordioan ezarritakoaren arabera.

Absentziak justifikatzeko agiriak ikastetxean artxibatuko dira, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon dadin. Justifikatzeko agiriek eguna, ordutegi-tartea eta absentziaren arrazoa adierazten dute. Horiek jatorrizkoak eta argiak izan behar dira.

Ezagutu eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek denbora nahikoaz eta idatziz jakinaraziko diote ikastetxeko ikasketa-buruzagitzari absentzia horren eraginpeko taldeek zein jarduera egin, zein material erabili eta ordezko arituko diren hezkuntza-arretarako irakasleek zein jarduera egoki egin behar dituzten.

Aurreko ikasturteetan egin izan den bezala, ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo hilabeteko 5 eguna baino lehen erregistratu behar ditu irakasleen absentziak, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon daitezkeen.



Greba egingo balitz, ikastetxeko zuzendaritzak gorabehera hori eta hari buruzko datuak jakinaraziko dizkio Ikuskaritzari “Eskolako Ekintzen Dokumentua (EED)/Ordutegi taulak” aplikazioaren bitartez; bertan, “Irakasleen absentziak” fitxa dago, eta “Grebaren datuak”. Kasu horietan, zuzendaritzak ikasleen al bait arreta onena antolatuko du eskueran dituen giza baliabideen bitartez.

Halaber, ikusiko balitz irakasleren batek bere ordutegiko sartu-irten betebeharrak ageriki urratzen dituela, zuzendaritzak ordutegiari lotzeko errekerituko dio. Bere betebeharrak urratzen jarraituz gero, horiek Lurralde Ordezkaritzako Pertsonalari eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren Unitateari jakinaraziko zaizkio, dagozkion neurriak har daitezten.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegitea justifikatzeko agiriak zuzendariari behar uenean aurkeztea, errekeritua izatera itxaron gabe.
- Ikastetxetik kanpora, IRALeren eta antzeko beste ikastaro batzuk egiten dabiltzan irakasleek ikastaro horiek egiten ari diren tokietan aurkeztuko dituzte ikastaro horietako absentzia-hutsegiteak justifikatzeko agiriak.
- OOGari jakinarazi egin behar zaio ohiko klase-aldian irakasleen absentziak gertatzean ikasleei ikastetxean arreta emateko zein prozedura ezarri den.
- Klaseak normal emateko orduan gertatutako edozein aldaketa berehala jakinarazi behar zaio Ikuskaritzari telefonoz.
- Absentziak justifikatzeko agiriak ikastetxean artxibatuko dira, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon dadin. Justifikatzeko agiriek eguna, ordutegi-tartea eta absentziaren arrazoa adierazten dute. Horiek jatorrizkoak eta argiak izan behar dira.

Oraingoz, Lurralde Ordezkaritzetako pertsonalaren unitateekin ikastetxeek kudeatzen dituzten baimen guztiak berdin jarraituko dira kudeatzen unitate horietan sortutako instrukzioen arabera.

Halaber, kontuan hartu behar da Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza baimenak kudeatzeko prozedurak aldatzen/egokitzen ari dela, eguneroko ordezkapenen kudeaketa telematikoa ezartzearen ondorioz; beraz, 2019-2020 ikasturtean, aldaketaren bat egitea beharrezkoa balitz, behar uenean informatuko da.

Ikastetxe batzuek, irakasleak ez ezik, hezkuntzako lan-kontratudun langileak edo/eta Saileko lan-kontratudunak dituzte. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek haien datuak sartu behar dituzte irakasleen absentziak erregistratzeko erabiltzen den EEDko fitxa beretik.

### 3.6.- DEPARTAMENTUAK.

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan bi departamentu mota eratu daitezke, departamentu didaktikoak eta departamentu ez didaktikoak, adibidez orientazio-departamentua, eta antolamendu eta koordinazio pedagogikorako zentroak beharrezkotzat jotzen dituen beste guztiak.

Koordinazio didaktikorako departamentuak dira esleitzen zaizkien gai edo moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta aurrera eramateaz arduratzen diren organoak. Departamentu-buruaren gidaritzapean, haien xedea da ikasgai bera irakasten duten irakasleen arteko koordinazioa edo antzeko gaiak irakasten dituztenen artekoa bermatzea. Taldeen zeregina eta lana taldekide guztien erantzukizuna da.





### a.- Departamentuen eraketa

Ikastetxean departamentuak sortzeko proposamena lantzean, klaustroak nahitaez jarraitu beharko ditu arau hauek:

- Ikastetxean eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiek departamentu didaktiko bateko kide izan behar dute.
- Ezein irakasle ezin du bi departamentu didaktikoetako kide izan. Ildo horretan, irakasle batek bi departamentutako edo gehiagotako irakasgaiak ematen baditu, eskola-ordu gehien hartzen dizkioten irakasgaietara dagokien departamentuko izango da. Hala ere, ematen dituen gainerako irakasgaien departamentuen bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.

#### a.1) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino ematen ez duten ikastetxeak:

DBH bakarrik ematen duten ikastetxeetan eta klaustroak proposatuta, zuzendaritza-taldeak, ikastetxeko curriculum-proiektuan ezarritakoarekin bat etorrituz, ikastetxean zer departamentu egongo diren erabakiko du eta ordezkari-taldea organo gorenari erabakiaren berri emango dio.

Ikastetxean departamentuak sortzeko proposamena lantzean, klaustroak, lehen aipatutako arau komunez gain, arau espezifiko hauek ere jarraitu beharko ditu:

- Ordainsarian osagarria kobratzeko eskubidea duten departamentu-burutzen gehieneko kopurua ikastetxeko irakasle kopuruaren arabera izango da, taulahonen arabera:

IKASTETXEKO IRAKASLE KOPURUA	GEHIENKO DEPARTAMENTU KOPURUA
13 baino gutxiago	3
13 eta 16 artean	4
17 eta 20 artean	5
21 eta 24 artean	6
25 eta 28 artean	7
29 eta 32 artean	8
33 eta 36 artean	9
37 eta 40 artean	10
41 eta 45 artean	11
46 eta 50 artean	12
51 eta 55 artean	13
56 eta 60 artean	14
61 eta 65 artean	15
66 eta 70 artean	16
71 eta 80 artean	17
81 eta 90 artean	18
91 eta 100 artean	19
100 baino gehiago	20

- Ikastetxean 13 irakasle baino gutxiago badaude, departamentu hauek sortzea proposatzen da:
  - Hizkuntzen departamentua, irakasgai hauetako irakasleek osatua: Gaztelania eta



Literatura, Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak.

- Zientzien departamentua, irakasgai hauetako irakasleek osatua: Matematikak, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Teknologia, Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak, Kultura Zientifikoa eta jarduera Profesionalari Aplikatutako Zientziak.
- Giza eta gizarte-zientzien departamentua, irakasgai hauetako irakasleek osatua: Geografia eta Historia, Gorputz Hezkuntza, Plastika eta Ikus Hezkuntza eta Ikus-entzunezkoa, Musika, Arte Eszenikoak eta Dantza, Latina, Kultura Klasikoa, Filosofia, Ekonomia, Ekintzailtza eta Enpresa Jardueraren Hastapenak, Erljioa eta Balio Etikoak.
- Zuzendaritza-taldeak onartuko du ikastetxeko departamentuak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeko proposamena, eta Ordu-tegi-koadroen (DAE) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak igorritako jarraibideak aintzat hartuta. Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatu beharko du proposamenak eskatutako betekizunak betetzen dituen, eta, halabada, bere oniritzia emango du aipatutako aplikazio informatikoan, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.
- Ikastetxeak, duen autonomia erabiliz, AJAn ezar dezake departamentu gehiago izatea aurreko paragrafoan aipatzen direnak baino, edo koordinazio pedagogikorako organo gehiago izatea. Hala ere, departamentu gehigarrietako buruen izendapenek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute emango eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

#### **a.2) Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak:**

Antolaketa eta koordinazioaren ondoretarako ikastetxeak bere AJAn xedatuta dituen adina departamentu era ditzake. Alabaina, departamentu-buruaren ordainsariaren ondoretarako, ikastetxeek departamentu didaktiko hauek eratzeko eskubidea izango dute bakarrik, dena delako espezializazioko bi irakasle daudenean, betiere:

##### **- Batxilergoko irakaskuntza:**

1. Gaztelania eta Literaturako departamentua.
2. Euskal Hizkuntza eta Literaturako departamentua.
3. Ingeleseko departamentua.
4. Frantseseko departamentua.
5. Alemaneko departamentua.
6. Latineko departamentua.
7. Grezierako departamentua.
8. Geografiako eta Historiakodepartamentua.
9. Filosofiako departamentua.
10. Erljioko departamentua.
11. Gorputz Hezkuntzako departamentua.
12. Matematiketako departamentua.
13. Fisika eta Kimikakodepartamentua.
14. Biologia eta Geologiako departamentua.
15. Marrazketako departamentua.
16. Teknologiako departamentua.
17. Musikako departamentua.
18. Ekonomiako departamentua.

##### **- Lanbide Heziketako irakaskuntza:**

1. Lanerako Prestakuntza eta Orientazioko departamentua.
2. Familia profesional bakoitzeko departamentu espezifikoak, familia horretako prestakuntza- modulu eta zikloen espezialitatetako irakasleek osatuak, eta zeharkako beste departamentu batzuk. Edonola ere, Lanbide Heziketako departamentuek ezin izango dute gainditu ikastetxeko irakasle



kopuruaren eta gehieneko departamentu kopuruaren arteko erlazioa jasotzen duen taula, ebazpen honen 3.1.6.a.A) apartatukoa.

Departamentu bat osatzen duten irakasleak 12 baino gehiago badira, lurralde-ordezkaritari eskatu ahal izango zaio departamentu hori banatzeko. Hori egitekotan, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaio, dagozkion ondoreak izan ditzan.

Batxilergoa eta/edo Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxeetan arau hauek bete beharko dira, apartatu honen hasieran adierazitako arau komunez gain:

- Batxilergoko irakasleak ematen duten irakasgaiari dagokion departamentu didaktikoko kide izango dira. Zehazki, Latineko eta Grezierako departamentu bereziak dituzten ikastetxeetan, Kultura Klasikoko irakasleek bateko zein besteko kide izan nahi duten erabakiko dute, baina aukera izango dute beste departamentuaren bileretara joateko eta berorren lanetan parte hartzeko.
- Baldin eta ikastetxean espezialitate bateko berariazko bi irakasle ez badaude, eta, beraz, espezialitateko departamenturik sortu ezin bada, antzeko bi espezialitatekedo gehiagok osatutako departamentuak eratuko dira, espezialitateetako berariazko bi irakasleek osatuta, gutxienez.
- Aurreko arauen arabera eratutako departamentuez gain, ikastetxeek eskubidea izango dute beste bi departamentu ez didaktiko sortzeko.
- Zuzendaritza-taldeak onartuko du ikastetxeko departamentuak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeke proposamena, eta Ordu-tegi-koadroen (DAE) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak igorritako jarraibideak aintzat hartuta. Hezkuntza ikuskaritzak egiaztatu beharko du proposamenak eskatutako betekizunak betetzen dituen, eta, hala bada, bere oniritzia emango du aipatu aplikazio informatikoan, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.
- Ikastetxeak, duen autonomia erabiliz, AJAn ezar dezake departamentu gehiago izatea aurreko paragrafoan aipatzen direnak baino, edo koordinazio pedagogikorako organo gehiago izatea. Hala ere, departamentu gehigarrietako buruen izendapenek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute emango eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

#### **b) Departamentuko bilerak**

Astean ordubete gorde behar da gutxienez departamentuko kide guztiak biltzeko, DBHko, Batxilergoko edo heziketa-zikloetako ikastetxeetako ordutegiaren barruan.

Hizkuntza-departamentu guztietan asteko bilera-ordua batera egingo da, hizkuntzei buruzko planteamendu integratu bat garatu eta, hala, programazio integratu bati bide emateko. Ikasketa- buruak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituen. Departamentuko kide guztiek joan behar dute bileretara, eta bileren aktan espresuki jasoko dira, gutxienez, alor hauek: bertaratu direnak eta absentziak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak. Irakasleen gainerako ordutegi pertsonaleko hutsegiteen modu berean justifikatu beharko dira bileretako absentziak eta, dagokionean, ondorio berberak izango dituzte.

Ekainean, departamentuetako kideek bildu behar dute lan-plana eta haren lorpenak aztertzeko eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko.

#### **c) Departamentu didaktikoaren zereginak**

Departamentuko diren irakasle guztien parte-hartzearekin espezialitatearen berezko irakasgaien programazioa lantzea. Programazioa egiteko «programazio didaktikoak egiteko gida»<sup>16</sup> eta haren I. eranskinetako txantiloak erabil daitezke. Dokumentu horiek jasotzen dituzte araudi berriaren arabera programazio didaktikoak izan behar dituen elementuak.

<sup>16</sup> Hezkuntza Saila (2017). Programazio didaktikoak egiteko gida



Programazio didaktikoek islatu behar dituzte gaitasunak lortzea errazten duten metodologietarantz jotzeko ikastetxeetan sartzen diren benetako aldaketak. Hori horrela, programazio didaktiko guztiek, aurreko ikasturtean egindako lana oinarri hartuta, aurrera egiten jarraituko dute egoerak, arazoak edo erronkak barne hartzen dituzten unitate didaktikoen diseinua orokortzeko. (Aipatutakogiden II. eranskina lagungarria izandaiteke haiek diseinatzeko).

Ikasgai guztietako irakasleek beren urteko programazio didaktikoetan gutxienez hitzeko komunikazioarekin, ez-hitzeckoarekin eta digitalarekin erlazonatutako helburuak sartu beharko dituzte, ikasturte honetan, lehenetsiz bere ikasgaiko testu akademikoaren idatzizko eta ahozko ulermena.

Horretarako, ikastetxeek dagokien berritzegunearen aholkularitza eskatu ahal izango dute. Berritzeguneei beren gain hartuko dute aholkularitza hori gehienbat. Hezkuntza Ikuskaritzak, bestalde, jarduteko lehentasunezko helburuen artean izango du curriculum-garapena egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea; horretarako, programazio didaktikoak aztertu eta ikasgelak bisitatuko dituzte.

Departamentuaren beste zeregin batzuk:

- Dagokien espezialitateari lotutako hautazko ikasgaiak proposatzea.
- Ohiko eta ohiz kanpoko probak prestatzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- Salbuespenei eta baliozkotzei buruzko txostenak egitea edo ziurtagiriak ematea.
- Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak eta bitartekoak prestatzeko proposatzea, beren espezialitateekin zerikusia dutenak.
- Emaizta akademikoak aztertzea eta baloratzea, eta programazioak aztertzea eta zenbateraino betetzen diren balioztatzea.

Curriculum ofizialak erreferentziatzen hartuta betiere, departamentuek badute aukera haiek egokitzeko, hautatzeko eta zehazteko, diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera. Aldaketa guztiak sailaren aktetan adierazi behar dira. Ikuskaritzak zaindu behar du bat etor daitezen curriculumeko gutxieneko irakaskuntzekin.

#### **d). Departamentuko burutza**

Departamentuko kide guztien arduraren dira departamentuko zeregin eta lanak egiteko parte hartzea, ikasleei materialekin egindako probak zuzentzea, estatistikak prestatzea eta abar.

Departamentuaren funtzionamendua departamentu-buruen arduraren da. Zeregin hauek dituzte departamentu-buruek:

- Departamentuaren jardura zuzentzea eta koordinatzea.
- Bilerak antolatzea, prestatzea eta bileren buru izatea.
- Ikastetxearen curriculum-proiektuan txertatzea departamentuan onartutako irizpideen arabera irakasleek egindako programazio didaktikoak.
- Ikastalde desberdinetan programazioek izan duten garapenaren segimendua egitea aldi behin eta programazioa betetzen dela zaintzea edukiei eta gutxieneko eskakizun maileri dagokienez.
- Programazio didaktikoen ebaluazioa bermatzea eta hori dokumentu espezifiko batean jasotzea.<sup>17</sup>
- Departamentuko irakasleen koordinazioa bermatzea ebaluazio jarraituan eta ohiko eta ezohiko deialdietarako proba bateratu bat ezartzea.
- Departamentuak egindako proben kalifikazioak ikuskatzea.
- Irakasleek kalifikazioen harira egindako erreklamazioei erantzutea eta horien ondoriozko

<sup>17</sup> Ikusi «programazio didaktikoak prestatzeko gida»ko irizpideak.



espedienteak gordetzea.

- Lanak kideen arteanbanatzea.
- Beharrezko material eta jarduera planifikatuak badaudela bermatzea, departamentuko irakasle bat falta denean hezkuntza-arretako arduradunak absentsia horren eraginpeko ikasleei arreta behar bezala eman ahal izan diezaien.
- Ikasketa-buruarekin harremanetan egotea, departamentuko jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko, eta aurreikusitako lan-planaren garapenari buruz edo departamentuan atzematen duen bestelako edozein gorabeherari buruz informatzeko.
- Egiten diren bileretako aktak badaudela bermatzea eta horiek gordetzea
- Eskolak berak AJAn zehazten dituenak.

Departamentu-buruak **urriaren 15a** baino lehen eman beharko dizkio programazioak ikastetxeko zuzendaritzari, eta programazio horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku geratuko dira. Programazio didaktikoak ikastetxeko curriculum-proiektuan txertatu dira eta kopia banaemango zaie departamentuko kideei.

#### e) Departamentu-buruak izendatzea

Zuzendaritak izendatu behar ditu Departamentu-buruak, irizpide hauek kontuan hartuz betiere:

- Departamentu-buruak departamentu bereko irakasle izan beharko dira, eta ez dute beren gain bestelako zuzendaritza-kargurik izan beharko.
- Bigarren hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleen artean izendatuko da departamentu-buruak, salbu eta departamentuan ez dagoenean zuzendaritza-taldeko kidea ez den eta baldintza hori betetzen duen kiderik.
- Aurreko irizpide horiek betez, autaketa AJAn xedatutakoaren arabera egingo da.
- AJAn ez bada zehazten nola aukertu behar diren departamentu-buruak, zuzendariak izendatuko ditu, departamentuko kideek proposatuta. Departamentuko kideek egiten ez badute, ikastetxeko zuzendariak bera kaxa erabakiko du. Izendatua izan ondoren departamentu-buruak ezingo dio karguari uko egin, departamentuko burutza guztiek titular bat izateko ikasturteko hasierarako.

#### f) Sailaren dokumentazioa

Departamentuek, didaktikoak edo koordinazio pedagogikokoak izan, egiten dituzten bileren aktak idatzi beharko dituzte, eta ikastetxeko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta Ikuskaritzaren eskura utzi.

Akta bat egin behar da departamentuak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek sinatu behar dituzte aktak, eta departamentu-buruak izendatutako irakasleak idatzi behar ditu.

Ikasturtea amaitzean urteko programazioaren ebaluazioa eta programazio horren betetze-maila dokumentu espezifiko batean jasoko dira. Ebaluazio horrek gutxienez hau jasoko du: a) Bere departamentuko ikasgaietako bakoitzeko ikasturteko ebaluazioaren emaitzak; b) Material eta baliabide didaktikoen egokitzapena. Erabilitako metodologiarekiko espazio eta denboren banaketa eta c) Metodologiak ikasgelako eta ikastetxeko giroari egin dion ekarpena. (Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 25.6 artikulua eta irailaren 6ko 127/2016 Dekretuaren 24.6 artikulua).

Ikasleen proba, ariketa eta azterketak gorde behar dira ebazpen honek eta abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa; 2008-12-16ko EHAA) 9. artikuluan xedatzen dutenarekin bat.



### 3.7. - ORIENTAZIOKO DEPARTAMENTUA.

#### a) Orientazioko departamentuaren eraketa

Bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da orientazioko departamentua, betiere gutxienez hiru kide baldin badaude. Orientatzailea izango da departamentu-burua eta, beraz, berak planifikatu eta zuzenduko ditu bilerak eta koordinatuko du departamentuko kideen lana.

Honako hauek osatuko dute departamentua:

- Hezkuntza-orientazioko espezialitateko irakasleak; horietako bat izango da, nahitaez, departamentu-burua.
- Curriculum-aniztasuneko ikastaldeetako eta hezkuntza sendotzeko berariazko proiektuetako irakasle arduradunak, ikastetxean halakorik badago.
- Kulturarteko dinamizatzaileak, ikastetxean halakorik balego.
- Pedagogia terapeutikoko maisu-maistra espezialistak, ikastetxean halakorik balego.
- Zereginak ikasteko geletako irakasle arduradunak, ikastetxean halakorik balego.

#### b) Orientatzaileen eginkizunak.

Orientazioa hezkuntza-jardueraren parte da eta, zentzu horretan, irakasleen ardura da, beren irakaskuntza-funtzioaren zatia baita. Hala eta guztiz ere, hori ez da oztopoa gai horretako funtzio espezifikoak hezkuntza-orientazioko espezialitateko irakasleei esleitzeko (hots, orientatzaileei).

Besteak beste, funtzio hauek ditu:

##### Aniztasunari erantzutea

- Tutorearekin eta taldeko irakasleekin lankidetzan, Orientazioko departamentuan hautematea eta aztertzea ikasleek dituzten ikasteko zailtasunak, behar den kasuetan ebaluazio psikopedagogikoa egitea, eta antolaketarako, metodologiarako, hezkuntza indartzeko eta, hala badagokio, curriculum egokitzeko neurriei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.
- Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea berariazko arreta-planak eta -programak (curriculum anitzeko gelak, zereginak ikasteko gelak, hezkuntza-errefortzu berezien proiektuak, gaitasun handiko ikasleria) diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzeko eta horien jarraipena egitea.
- Ikastetxearen Hezkuntza Indartzeko Plana prestatzea irakasle-taldearekin lankidetzan. Plan horretan jasoko dira ikasleek ikastean izan ohi dituzten zailtasunei aurre egin eta ikaskuntza sendotze aldera irakasleek diseinatutako hezkuntza-neurriak, indibidualak zein kolektiboak.

##### Orientazioa eta tutoretza

- Ikastetxeko ikasleentzat orientazio profesionaleko programa bat prestatzea etapa ezberdinetarako, ibilbideak eta etorkizun profesionalak aukeratzeko garaian berdintasuna sustatuz, eta programa horigaratzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.
- Tutoretza-plana prestatzen aholkatzea eta maila bakoitzeko tutoreekin koordinazio- bilerak izatea, aldiro, planaren garapenari eta ebaluaketari buruz aholkatzeko, batik bat Bizikasi ekimenean txertatutako proposamen didaktikoak bereziki lantzeko programatutako jardueretan.



- DBHko ikasturte amaieran, irakasleei aholku ematea ikasleen orientazio-txostena prestatzeari buruz, bereziki hezkuntza-neurrien eta hezkuntza-ibilbideko proposamenen gaineko erabakietan.
- Ikasleei eta familiei aholkuak ematea, bereziki kontu hauetan: garapen pertsonalari eta akademikoei buruzko gaitan, hezkuntza-etapen arteko trantsizioan eta hezkuntza-ibilbidea hautatzekoan.

### **Bizikidetzeta**

- BAT taldean kide aktibo gisa parte hartzea
- Talde dinamizatzailearekin batera, bizikidetzeta-arazoaren prebentzio eta ebazpenaren kudeaketako buru izatea.
- Ikastetxeansor daitezkeen jokabide-arazoei aurre egiten eta horrelako akonponetzen laguntzea.

### **Etengabeko hobekuntza**

- Ikastetxeko koordinazio pedagogikorako batzordearekin (batez ere, ikasketa-buruarekin) elkarlanean jardutea eta jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztea departamentu didaktikoak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- Hezkuntza berritzatzeko eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak etengabe hobetzeko programak sustatzea eta horrelakoak egiteko aholkuak ematea zuzendaritza-taldeari.

### **Koordinazioa beste eragile batzuekin**

- Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleek jarraipen egokia egin dadin, ikasleak integratu daitezzen eta ikasketetan horien arrakasta berma dadin.

### **Irakaskuntza**

- Egokia bada, bere espezialitateko ikasgaiak ematea.

Horrez gainera, orientazioko departamentuak ikasturterako aurreikusitako jarduerak bilduko ditu orientazio-planean, eta IUPan txertatuko ditu. Ikasturte amaieran, orientazio-planaren ebaluaketa sartuko du ikastetxearen memorian.

Ikasketa-buruek lagundu behar diete orientatzaileei hala ikastetxeko tutoreekin nola ikasleak orientatzeko prozesuekin zerikusia duten profesional guztiekin lan egiten etapa guztietan (DBHn, Batxilergoan eta heziketa-zikloetan).

### **c) Hezkuntza-orientazioko irakasleen ordutegia.**

Hezkuntza-orientazioko irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren antzekoa. Alegia, astean 30 ordu egin behar dituzte, eta horietatik, 23 ikastetxean egon behar dira; beste zazpiak, berriz, hilabetez hilabete zenbatuko dira, eta ez dute ikastetxean eman beharrik.

30 orduen banaketa Ebazpen honetako 3.1. atalean zehazten da. Ikastetxeko gainerako irakasleen banaketa bera da, baina salbuespen batekin: ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jardueretara bideratutako orduak zenbatuko dira.



### 3.8.- HEZKUNTZA-ARRETA.

Irakasleek era aktiboan lagundu behar dute ikasleekin dituzten mintzaldi guztietan, irteerako profila lortzeko aurrera egiten jarrai dezaten. Hezkuntza-arretaren eginkizun honetan, irakasleek — lehen, guardiakoak izendatuak— erraztailearen edo bitartekariaren, gidariaren edo laguntzailearen papera izan behar dute, eta, eginkizun horretan, ikasleen oinarritzko gaitasunak lantzen jarraitu behar da, Heziberri 2020 Planeko hezkuntza-eredu pedagogikoak eta hori garatzen duten Dekretuek jasotzen duten eran.

#### a) Hezkuntza-arretako irakasleak

Ikastetxea eta, bereziki, eskolaren ordezkaria den aldetik, zuzendaria dira ikasleen arduradunak eskola-orduetan. Hori dela eta, hezkuntza-zaintzako zereginak egokiro betetzeko behar adina irakaslek egon behar du eskolan uneoro, baita DBHko irakasleak jolas-garaian daudenean ere.

Eta honetako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek emango diete lehentasunez arreta jolas-orduetako hezkuntza-arretako eginkizunei. Ikastetxeko zuzendariak antolatuko du jolas- orduetarako ikasleen zaintza; horretarako, jolastokian zein ikastetxeko beste gune batzuetan dauden ikasle guztiak aktiboki zaindu eta begiratzeko beharrezkoa den irakasle kopurua jarriko du. Irakasle/ikasle ratioa ikasleen adinaren eta zaindu beharreko guneak dituen ezaugarrien arabera zehaztuko da.

Ordu horiek guztiak guztiz estalita daudenean baino ezin izango du zuzendaritzak hezkuntza- arretako irakasleetako bat beste zeregin batzuk betetzera bidali.

#### b) Hezkuntza-arreta eman behar duen irakaslearen oinarritzko zereginak:

- Jolasaldian eta/edo zaintzan irakasleak modu aktiboan behatzea, ikastetxeko bizikidetzara arazoak antzeman eta prebenitzeko, eta BAT taldeko koordinatzaileari jakinarazteko.
- Korridoretako ordena eta oro har irakasleek ikasgelatik kanpo duten jokaera zaintzea. Horrek ez du esan nahi gainerakoek lagundu behar ez dutenik.
- Bere txandaren barruan gertatzen den edozein ustekabe berehala konpontzea eta ikasketaburuari haren berri ematea ahal bezain laster. Besteak beste, beharrezko izapideak egin behar ditu eskolako norbaitek sendagilearen laguntza behar badu.
- Bere txandako irakasleen puntualtasunaren eta bertaratzearen berri ematea, hutsegiteen agiria erabiliz.
- Ikastetxeko AJAn esleitutako bestelako zereginak.

#### c) Absentzien agiria

Ikasketaburuak eguneroko absentzien agiri bat eduki behar du, betiere Hezkuntza Ikuskaritzari erakusteko moduan. Agiriak datu hauek adierazi behar ditu gutxienez:

- Irakasleen absentziaketa berandutzeak
- Ikastetxean gertaturiko edozeingorabehera.
- Gertatutako ezbeharrak.
- Hezkuntza-arretako irakasleen sinadurak.





### 3.9. MAILAKO TALDEAK ETA TUTORETZA.

Mailako irakasle taldea da ikasleekin esku hartzeko muina. Talde horren koordinazioa ezinbestekoa da esku-hartzea koherentea izateko eta ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeko, baita irakatsi eta ikasteko prozesua berriz bideratzeko litezkeen esku-hartzeak ere.

#### a) Tutoreak izendatzea

Ahaztu gabe irakasle guztiek dutela beren funtzio eta eginkizunen artean, 236/2015 Dekretuaren 30. artikulua arabera, ikasleen artean sor daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzea, ikastetxe bakoitzean ikasle-talde bakoitzak tutore bat izango du, curriculum- aniztasuneko taldeetan izan ezik, horiek bi tutore izango baitituzte. Tutorea talde horretan ikasgai bat edo gehiago ematen dituen irakasle bat izango da.

Posible den heinean, ahaleginak egingo dira DBHko ikasleek tutore bera izan dezaten ikasturte guztietan, batik bat 1. eta 2. mailan.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan, tutoreak taldeko ikasle guztiek ematen duten modulu-tako irakasle izan beharko du.

Talde guztietarako tutore nahikorik ez badago, beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuek arduratzen diren irakasleek arduratu beharko dute. Horretarako, hezkuntza- arretako orduak egiteko salbuetsita geratu ahalko dira, betiere beste irakasleen artean egiten badituzte.

Tutoreak ikastetxeko zuzendariak izendatu beharko ditu, ikasketa-buruaren proposamenari jarraituz eta egokitasuna kontuan izanik.

Zuzendaritzak beste funtzio batzuk esleituko dizkie tutoretzatik kanpo beste kargurik ez duten eta tutoretzarako ikastalderik ez duten irakasleei.

Tutoreek orduak izango dituzte beren ordutegian tutoretzako ekintza-planeko (TEP) programazioa garatzeko. Indarreko curriculumaren arloko dekretuetan xedatutakoarekin bat eginez.

#### b) Tutorearen zereginak

Tutoreek egindako jarduerak zerikusi zuzena du ikasleei, banaka zein taldean, laguntza eta babesa ematearekin, horrela beren proiektu pertsonala eraikiz joan daitezten.

Taldeko ikasle bakoitza bere individualtasunean eta bere aniztasunean kontuan hartua izan dadila bermatzen du behar bezala garatutako tutoretza-ekintzak. Talde bakoitzeko tutorea da hezkuntza-komunitatean aukera gehien duena pertsona laguntzeko, ikasleen arteko aldeak hautemateko eta inklusioa nahiz aniztasuna indartzeko.

Egiteko hauek beteko dituzte:

- TEPa prestatzea, ikastetxeko orientatzaileak aholkatuta eta lagunduta.
- Ikasle-taldearen irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokienez, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan sortzen diren egoera banakako eta orokorren azterketari dagokionez. Tutoreek koordinatuko dituzte ikasleak behar dituen plan pertsonalizatuaren (HIBP, HBSP, CA...) prestakuntza eta jarraipena. Tutoreek beren taldearen irakasleekin, ebaluazio-saioetatik kanpo, ikasturte bakoitzeko, gutxienez, hiru bilera egin beharko dituzte. Tutoreak bilera horien berri eman beharko dio Ikasketa- burutzari, eta bileretarako deia egiteko ardura izango du.
- Ikasleekin talde-tutoretza egitea, tutoretza-programazioan zehaztutako orientazio- ekintzak barnean hartuta, baita banakako tutoretza ere, dagokionean, orientazioko departamentuaren laguntzarekin. *Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero- indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, tutoretzako ekintza-planetan txertatuko dira*



berdintasuna, aniztasun sexuala eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko planak, bai eta ikasleek askatasuna eta aukera-aniztasuna oinarri hartuta eta genero-baldintzatzailerik gabe beren bizitzako, ikasketetako eta laneko ibilbidea aukeratzeko planak ere.

- Xede nagusitzat ikastetxeak elkarbizitzarako esparru seguru bihurtzea helburutzat duen Bizikasi ekimena 2017-18 ikasturtean abiarazi da. Ekimen horretan zehaztutako proposamen didaktikoak, bada, tutoretza-saioetan garatuko dira.
- Eskola-jazarpena gertatzen den kasuetan irakasle tutorearen taldea inplikaturik badago, horrek ikastetxeko BAT taldearekin batera parte hartuko du hura konpontzeko prozesuan.
- Irakasle- eta tutore-taldearentzako orientazio-aholkua idaztea DBHko ikasturte bakoitzaren amaieran (abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 36.4 artikuluan xedatutakoa betez).
- Ikasleei eta haien gurasoei eskola-jardueri buruzko informazioa ematea, gurasoek irakasle edo ikastetxeko aginte-organotako kideengan jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe. Ikastetxeak tutorearen asteko bisiten ordutegia jakinarazi beharko die gurasoei.
- Bere taldeko ikasleen familiekin eta/edo legezko tutoreekin harreman errazak izatea, hezkuntzako lana errazteko, alde biei dagokienean.
- Ebaluazio-saioak koordinatzea, eta horien emaitzak ematea. Era berean, ikasgaiei buruzko estatistikak eta ikasketa-buruak eskatutako datu guztiak osatu beharko ditu, eta ikasleekiko tutoretza-lanari lotutako agiri akademiko guztiak egin.
- Taldeko ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea eta haien berri ematea ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei.
- Aurrekoak aplikatzeko edo garatzeko AJA kesleitzen dion beste edozein zeregin.

### c) Hutsegiteen kontrola

Irakasle guztiek dute ikasleak beren eskoletara joaten direla kontrolatzeko betebeharra, bai eta tutorearen ikasleak izandako hutsegite guztien berri tutoreari ematekoa ere, ikasleen bertaratzearen segimenduaren arduradun baitira.

Familiei ere emango zaie hutsegiteen berri, berehala eta AJAn xedatutakoaren arabera. Araudian gai horri buruz ezer esaten ez bada, zuzendaritza-taldeak familiei hutsegiteen berri emateko epekezarriko ditu, haien inguruko informazio zuzena eta zehatza emango zaiela ziurtatuz.

### d) Bilerak familiekin.

Ikastetxeak informazio-bilerak antolatu beharko ditu familiekin, ikasleen gurasoen eta irakasleen (tutoreak zein gainerakoak) parte-hartzea ahalbidetuz.

Bilera horien zehaztasunak (irekiak, orokorrak, taldeka, banaka edo nola egingo diren) eta beren antolaketa ikastetxeko AJA kesleitzen diren araberakoak izango dira. Araudi horrek ez baditu gai horiek lantzen, zuzendaritza-taldeak definitu beharko ditu, eta bermatu beharko du lehen bilera azaroaren 1a baino lehen egiten dela. Era berean, talde osoko familiekin bilerak egin ahalko dira, tutorearen ekimenez, guraso talde esanguratsu batek hala eskatuta edo ikastetxeko zuzendaritzak halaxe iritzita.

### e) Tutoretzaren antolaketa Batxilergoko taldeetan

Ikastetxe bakoitzak zehaztuko du bere ordutegia, araudian xedatutako gutxienekoak betez eta aukera izango du, hala erabakiz gero, irakaskuntza-jarduerako orduetako bat zuzeneko tutoretzako lanetara bideratzeko, tutoreak ikastaldearekin TEPa garatzeko. Aukera horren alde egitekotan, tutoretzako ordua irakaskuntza-arduraldiko ordutzat joko da.

Tutoretzako ordua ikasleen eskola-orduetan ez sartzea erabakitzen bada, TEPa irakasleek zuzenean dedikatu beharreko orduetan gauzatzea lehenetsiko da, ikasleei banako zein taldeko arreta onena



eskaintzeko.

Kasu horietan, ezin izango da tutoretzako ordurik zenbatu tutorearen irakaskuntza-arduraldiko ordutegian.

#### **f) Tutoretzaren antolaketa Lanbide Heziketako taldeetan**

Ikastetxe bakoitzak zehaztuko du bere ordutegia, araudian xedatutako gutxienekoak betez, curriculumaren inguruko indarreko dekretuen arabera.

Tutoretzako ordua ikasleen eskola-orduetan ez sartzea erabakitzen bada, tutoretzako ekintza-plana irakasleek zuzenean dedikatu beharreko orduetan gauzatu da, ikasleei banako zein taldeko arreta onena eskaintzeko.

Kasu horietan, ezin izango da tutoretzako ordurik zenbatu tutorearen irakaskuntza-arduraldiko ordutegian.

### **3.10. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA**

Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen *practicumari* eta titulazioa dela- eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen *practicumari* buruzkoa) xedatzen du zer baldintza bete behar diren EAEn funts publikoekin finantzatu eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan Haur Hezkuntzako graduako eta Lehen Hezkuntzako graduako unibertsitate-tituluen *practicum* egiteko, besteak beste.

Dekretu horren xedea da, baita ere, praktiketako prestakuntza-zentroak onartzeko eta praktikak egingo dituzten ikasleen tutoreak egiaztatzeko betekizunak ezartzea. Hezkuntza-alorrean eskumena duen sailak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartutako zentroetan bakarrik egin ahalko da *practicum*.

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei, irakaskuntza-arduraldiko orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Absentzia hori aurreikusitakoa izango denez, ikasketa-burua arduratuko da irakasle horrek absentzia horren eraginpeko ikastaldeentzat planifikatu eta prestatutako jardueren aplikazioa antolatzeaz.

Hutsegiteak justifikatzeko, deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu behar dituzte irakasleek. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

### **3.11 BERARIAZKO LANGILEAK.**

Eskola-ingurunean zereginak garatzen dituzten hezkuntza-komunitateko kideak aipatzen dira atal honetan, ikasgelaren barruan edo kanpoan garatu ere, eta zenbait kasutan ikaskuntza formaleko prozesuan zuzenean sartuta daudenak, eta kasurik gehienetan, ikaskuntza ez-formalekoan sartuta.

Ondorengo ataletan ageri diren profesionalekin koordinazioa eta talde-lana izatea bermatu beharko du ikastetxeko zuzendaritzak, ikasleek aprobeitza ditzaten langile horiek beren funtzioak gauzatzeko baliatzen dituzten testuinguruak.

#### **a) Jantokiko arduraduna**

Zuzenean kudeatutako eskolako jantoki-zerbitzuak, hau da, ikastetxeak berak ematen duenak,



eragina du zenbait kide bakarreko eta kide anitzeko kudeaketa-organoren funtzioetan, hala nola ordezkari-organoren, zuzendaritza-taldean, Jantokiko Batzordean, jantokiko arduradunarengan...

Eginkizun hauek bete behar ditu, zuzendaritza-taldearen ordezkari, 2000ko martxoaren 22ko Aginduan xedatutakorekin bat (horren bidez, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eskola- jantokiak arautzen dira; 2000-03-28ko EHAA):

- Bazkari-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasagarritasun-irizpideak erabiliz eta elikagaiak xahutzea saihestuz.
- Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza Sailaren mendeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileriaren arteko lan-harremanen kalterik gabe, halakorik balego.
- Jangela erabiltzen dutenen kobrantzaren jarraipena egitea, bai bere ikastetxekoena, bai eta zerbitzu hori erabiltzen duten beste batzuen ere. Partekatutako jantokien kasuan, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxearen kudeaketa orokorrean integratua.
- Jangelako funtzen zuzeneko kontrol jarraitua egitea.
- Ikuskarpen-lanak egitea. Ikuskaritzatzat hartuko da, besteak beste, ikastetxeko instalazioetan egotea zerbitzua ematen den bitartean, jantokiko bizikidetzaz eta behar bezalako funtzionamenduz arduratuta.
- Ikasleek parte har dezaten, programak proposatzea ordezkari-organorenari.
- Aldizka, tresneriaren inbentarioa egitea eta eguneratzea, eta hori birjartzea.
- Kontratutako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriak eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea ordezkari-organorenari, eta instalazioetako lanak eta hobekuntzak proposatzea.
- Elikagaien eta lokalen higieena zaintzea. Jantokiko hondakin guztiak bereiz jasotzen direla bermatzea.
- Zerbitzua emateko beharrezko den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkionak ere, esate baterako arreta berezia ematea elikagaien alergia edo intolerantziaren bat duten ikasleei edota dietaren kontro handia behar duten gaixotasunak (Diabetesa edo Celiakia) dituzten ikasleei.
- Indarrean dagoen araudiak ezartzen diena.

Horrez gain, komenigarria litzateke Bizikasiko talde dinamizatzailerari jantoki-zerbitzuko ordutegian elkarbizitza giroa hobetzeko proposamenak egitea.

Jantoki-zerbitzuaz arduratzen direnen jardunaldiaren ehuneko hau erabili behar dute beren eginkizunak betetzeko:

Mahaikideak	Jantoki-zerbitzurako lanaldia	Aurrez aurreko orduak
Gehienez 30	Curriculuma emateko lanaldiaren heren bat	Ordubete egunean
31 eta 250 bitartean	Curriculuma emateko lanaldiaren erdia	1,5 ordu egunean
250 baino gehiago	Curriculuma emateko lanaldi osoa	2 ordu egunean

Aipatutako eginkizunak betetzeaz gain, jantokiko arduradunak jantokian bertan egon behar du, baita bazkalurreko eta bazkalondoko atsedendietan ere, aurreko taulako orduetan. Azken batean, ikasleak



zuzenean behatzeko eta arreta emateko tarte horietan jantokiko arduradunak zeregin garrantzitsuak bete ditzake ikasleak integratzeko eta haien bizikidetzarako, bai eta eskuratzen ari diren gaitasunak garatzeko eta finkatzeko ere.

Ikastetxe bateko mahaikideek beste maila bateko ikastetxe batekoekin batera erabiltzen badute jantokia eta jantokia beste ikastetxean badago, jantokirik ez duen ikastetxeak jardunaldi erdiko lanaldi-murrizketa izan behar du, 2000ko martxoaren 22ko Aginduko 15.e), 15.f) eta 15.j) puntuek finkatutako zereginak betetzeko. Gainera, beste hauek ere bete behar ditu:

- Zerbitzua ematen den bitartean jantokian izango da eta diziplinaz eta jantokiaren funtzionamendu egokiaz ardurakoda.
- Otorduak eta otorduen aurreko eta ondoko atsedenaldirik gainbegiratzea.
- Ikasleei jantokia duen ikastetxera joaten eta handik itzultzen laguntzea.

Jangela-zerbitzuaren erabilerarekin batera jolas-orduak izaten dira otorduen aurretik eta ondoren. Ohikoa da jolas-ordu horien arduradunak hezkuntza-administrazioaz bestelako langileak izatea. Jantokiko arduradunari jakinarazi behar zaio gerta litekeen intzidentzia oro. Era berean, komeni da kontuan hartzea, aitortzea eta balioestea zer-nolako lana egiten duten langileek eta zenbateraino izan daitezkeen baliagarriak eskola-jardunaldiko tarte horiek ikaskuntzak eta jakintzak (hezkuntza-komunitateak sustatzen dituenak eta ikastetxearen heziketa-proiektuan, bizikidetzaren planean eta urteko planean jasotzen direnak) finkatzeko.

Eskola-jantokietako profesional arduradunek lana errazteko, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle zenbaitek hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar dute bazkalorduan eta/edo bazkaldu aurreko eta ondorengo jolas-denboran. Behar hori hezkuntza-premia berezien arloko aholkularien aholkularitzarekin egindako ebaluazio psikopedagogikoaren ondorioa da.

#### **b) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programako irakasleak.**

Ikastetxeko zuzendaritzako onartuko irakasle hauen ordutegi pertsonala. Beren jarduerak ikastetxeak ordutegia eta egutegia banatzeko onartuta duen sistema orokorraren arabera garatuko dituzte.

ACEX programa IUPeko irakaskuntza-jardueren programan txertatuko da, ACEX programaren arduradunari erreferentziako talde bat emanaz eta ikastetxeko prestakuntza-programetan parte hartuz. Gainera, beharrezko koordinazioa mantenduko da ikastetxeko irakasleekin eta hezkuntza-laguntzako espezialistekin. Era berean, ordutegi horren barruan, proiektuan duen ardurari dagozkion hezkuntza-premiei erantzun beharkodie.

Programaren irakasle arduradunak programaren esparruan diseinatutako eskolaz kanpoko jarduerak gauzatu behar ditu, eta irakasle arduradunak zuzenean lan egin behar du parte hartzen duten ikasleekin –ikasleek beren borondatez parte hartu behar dute.

Ordutegiaren banaketa aldatu egin daiteke proiektuen ezaugarri jakinen eta ikastetxeen egoeraren arabera. Nolanahi ere, hauek dira gutxienekoak:

- 10 ordu astean, ikastetxeko eskola-ordutegian.
- 20 ordu astean, eskolaz kanpoko jardueren ordutegian. Bi ordu gutxienez ikasleek arratsaldeko eskola-orduen amaieran egin behar dira.

#### **c) Irakaskuntzaz kanpoko lanak: liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritzari laguntzea, kalitatearen kudeaketa, hizkuntza-normalkuntza, IKTen administrazioa eta bestelako lanak.**

Ikastetxe bateko irakasle bat irakaskuntzaz kanpoko jardueraz bakarrik arduratzen bada, 30 ordu egin behar ditu astean, salbu eta zerbitzu-eginkizunetan osasun-arrazoiengatik badago; egoera horretan dauden irakasleek 23 ordu egin behar dituzte astean.



Irakasle batek lanaldiaren zati bat ematen badu irakaskuntzaz kanpoko jardueretan, ordu eta erdi eman behar du eskola-orduei kendutako ordu bakoitzeko. Hortaz, ikastetxean eman behar dituen asteko 23 orduei ordu erdi gehitu behar zaie irakaskuntzaz kanpoko jardueretan ematen duen ordu bakoitzeko, betiere asteko 30 orduko mugaren barruan.

Zuzendariak erabakiko du liburutegia irekitzeko eta ixteko ordutegia, zerbitzua ematen dauden langileen lan-eskubideak kontuan hartuta eta errespetatuta, eta ikasleen egiazko erabilera bultzatuko du, eskolak ematen ez diren orduetan irekitzea lehenetsiz, hau da, jolas-orduetan, jantokiko tartetan edo eskola-jardunaz geroztikoetan.

Ikastetxearen antolamendu orokorrak bide ematen badu, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak gainerako irakasleen ordu batzuk esleitzen ditzake irakaskuntzaz kanpoko jardueretarako, eta hezkuntza- arretako orduak erabilita konpentsatu. Aurrez, gainerako zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatu behar du

#### **d) Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaileak**

Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaileak beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera zuzenduko dira, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bitartez argitaratu eta erregistratutakoaren arabera (2004ko ekainaren 17ko EHAA). Gainera, batzorde paritarioa eratu da, hitzarmen hori aztertu eta zaintzeko, eta tresna juridiko hori eta haren eranskinak osatzen dituzten gai guztiak garatu eta jarraitzeko. Langile horien funtzionamenduari buruzko orientazio zehatzak ere emango dira, horretarako prestatutako jarraibide edo zirkularren bitartez.

Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu behar dute irakasleek eta hezitzaileek (logopedak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTetako profesionalak, gortasun-itsutasuneko profesional bitartekariak, entzumen-arazoetako koordinatzaileak) koordinaturik lan egiten dutela plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipena egiteko orduan.

Langile horien egutegiak egin eta izapidetzeko ikastetxeetara urtero bidalitako jarraibideak hartuko dituzte kontuan.

#### **e) IBT-CRI laguntza-zerbitzua**

IBT-CRIek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko egiten dute lan; hartarako, hezkuntza-komunitateko eragile guztiei aholkularitza emateaz gain, haiekin batera ere esku hartzen dute era horretako ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna diseinatzeko. Organikoki eta funtzionalki ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide- zentroetako zuzendaritzen mende daude IBT-CRIko teknikariak. Martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren bidez sortuz iren Hezkuntza Sailaren mendeko eskolaz kanpoko laguntza-zentro horiek.

Zerbitzu horrek esku hartzen du desgaitasunari antzematen zaion unetik bertatik; desgaitasunari ikastetxeak berak antzeman diezaiok, berritzegunearen bitartez zein familiaren bitartez, osasun-zerbitzuak bideratuta. Azken kasu horretan IBT-CRIko zuzendaritzak dagokion berritzeguneari jakinaraziko dio.

#### **f) Zeinu-hizkuntzako interpretea**

Hezkuntza-sistemako zeinu-hizkuntzaren interpretea gelako komunikaziorako langile bat da, zeinu-hizkuntza eta ahozko mintzaira dakizkiena. Ohizko irakasleak hezkuntza-jardueran dioena itzuliko die beren ikasleei, eta hizkuntza nagusitzat zeinu-hizkuntza duten ikasleei irisgarri egingo die hori. Esku hartzen duen taldearen zati da, eta haren gaitasun pertsonal eta profesionalak taldearen gainerakoari zabal dakizkioke,



eta haren eredu eta gidari izango da.

Honako zeregin hauek ditu:

- Gorreria duten ikasleei curriculumak eskuratzea erraztea, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin komunikazioa bermatuz.
- Ikastetxean, irakasle taldearekin eta gainerako profesionalekin, gorreria duten ikasleen hezkuntza-erantzunean lankidetzan aritzea.
- Gaiakurreratzeko eta irakasteko eta ikasteko jardueretan irakasleekin koordinatzea.
- Ikastetxean, ikasgelan eta gorreria duten ikasleekin hartutako erabakiak biltzen dituen urteko plana eta txostena prestatzea, baita bere eskumen profesionaleko beste dokumentu eta txosten teknikoak ere.
- Hezkuntza-premia berezietarako aholkulariarekin edo/eta koordinatzailearekin koordinatzea ikasle gorra behar bezala eskolatzeko.
- Gidaritza- eta interpretazio-lanak egitea ikasle itsu eta gorrekin.

#### **g) Lan-kontratudun langileen jardunaldia betetzen dela kontrolatzea**

Lan-kontratudun langileen eginkizunek hain eragin etiko eta moral handia dute zaintzen eta laguntzen dituzten ikasleen ikaskuntza- eta gizarteratze-prozesuan, non horrelakorik ez izateak eragin esanguratsua baitu ikasleak eskolako dinamikan sartzeko prozesuan. Horregatik, komeni da hezkuntza-komunitateko kideek aitortzea eta balioestea horrelako langileek funtsezko lana egiten dutela zaintzen eta laguntzen dituzten ikasleekin, haien senideekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.

Hezitzaileek betebeharra dute ikastetxean betetzen dituzten funtzioen arabera dagokien ordutegia betetzeko. Hezkuntza Sailak horretarako kontrol-mekanismo egokiak erabili ahal izango ditu.

Ikastetxeko zuzendariak ordutegiaren arazoitu gabeko ez-betetze ororen berri emango dio dagokion zonako ikuskaritza-burutzari; horrek hartzekoen murrizketa eragin dezake, Euskal Funtzio Publikoaren Legeakezarritakoari jarraikiz, egon daitekeen diziplina-erantzukizunen kalterik gabe.

Era berean, grebarik badago, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak haren eraginaren berri eman behar dio zonako ikuskaritza-burutzari, eta ikastetxea antolatu behar du erabiltzeko dituen giza baliabideak erabilita ikasleei ahalik eta arreta egokiena emateko moduan.

Bestalde, ikusten bada profesional batek ez duela betetzen sartzeko eta irteteko esleitu dioten irakaskuntza-arduraldiko ordutegia, zuzendariak eskatu beharko dio behar bezala bete dezala. Berdin jarraitzen badu, hileko bertaratze-agirian adierazteaz gain, hutsegiteak Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaizkie, behar diren neurriak har ditzaten.

#### **h) Hezkuntzako lan-kontratudun langileen bertaratze-agiria**

Ikastetxeko zuzendaritzak dagokion zonako ikuskaritza-burutzari bidali beharko dizkio, hilaren 5a baino lehen, aurreko hileko bertaratze-agiriak. Lan-kontratudun langileek greba egiten badute, berriz, bertaratze-agiria eta greba egin duten langileen zerrenda bidali behar dituzte, greba amaitu eta biharamunean.

Hezkuntza Sailak diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu behar dira bertaratze-agiriak, Hezkuntza Ikuskaritzaren argibideei jarraituz. Aplikazio bera erabiliko da greben gorabeherak jakinarazteko eta greba eginduen langileen izen-abizenen zerrenda prestatzeko.

Hileko bertaratze-agiriak dira ikastetxean zerbitzu egiten duten lan-kontratuko hezitzaile guztien bertaratze-agiriak. Langile batek bi ikastetxetan edo gehiagotan lan egiten badu, ikastetxe bakoitzeko zuzendariak dagokion bertaratze-agiria bidali behar du.



### 3.12 ENPLEGUA LORTZEKO PRESTAKUNTZA.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (maiatzaren 3ko 2/2006) 95. Artikuluaren kalterik gabe, eta ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren lehen xedapen osagarriaren 1. apartatuak adierazitakoari jarraikiz, katedradunen kidegoko irakasleek, bigarren hezkuntzako irakasleek eta lanbide-heziketako irakasle teknikoek beren funtzioak bete ahal izango dituzte eskaintza integratuko ikastetxe publikoetan, eta Lanbide Heziketako modalitate guztiak eman ahal izango dituzte, beren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta Lanbide Heziketako tituluetan, dagozkion profesionaltasun-ziurtagirietan edo bestelako prestakuntza-espezialitate batzuetan sartutako moduluak emateko baldintzak betetzen badituzte. Beren lanpostuaren lanaldia eta ordutegia osatu beharko dituzte irakasle horiek, beste modalitate batzuetako prestakuntza-ekintzak emanaz. Era berean, nahi badute, beren arduraldia handitu ahal izango dute, eta handitze hori interes publikotzat hartuko da, eta arduraldia ez da bateragarritasun-baimenaren mende egongo.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu, irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean esperientzia profesionala izatea, enplegurako Lanbide Heziketako irakasgai horietan irakaskuntza-esperientzia izatea, edo eskainitakoarekin bat datorren hasierako Lanbide Heziketan irakaskuntza-esperientzia izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea hasierako prestakuntzako irakaskuntzaren eta enplegurako Lanbide Heziketako irakaskuntzaren artean.

## 4.-IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAUBATZUK.

### 4.1. IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO.

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako Administrazioak eta ente publikoek edota edozein pertsona fisiko zein juridikok erabiltzeko prozesua.

Dekretu horren artikuluek zehazten dituzte, besteak beste, jardueren ezaugarriak, instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskaerak egiteko eta baimenak emateko prozedura ohikoa eta laburtua.

Ildo horretan, gogorarazten da ezinbestekoa dela ikastetxeak Dekretu horren xedapenen arabera jokatzeko.

### 4.2. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA.

Era askotako eragileek parte hartzen dute eta jarduten dute elkarlanean eskolako bizitzan, eta, horregatik, ezinbestekoa da zenbait osasun- eta segurtasun-gai arautzea, batez ere ikasleei dagokienez eta oro har eskolan ibiltzen diren guztiei dagokienez.

#### 4.2.1. Osasun-larrialdiak ikastetxeetan.

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 larrialdi-zerbitzura deitu behar dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.





#### 4.2.2. Osasun-arreta eskola-orduetan.

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, gobernu-kontseiluak 2005eko azaroaren 29an onartu zuen jarduera-protokoloa beteko da.

#### 4.2.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua.

Indarreko segurtasun araudiak ezartzen duenez, debekatuta dago ikasleek eta ibilgailuek aldi berean espazio berberak edo sarrera eta irteera berak partekatzea.

Ikastetxe batera sartzan den edozein ibilgailuk zuzendaritzaren baimena izan beharko du.

Salbuespenez ibilgailu bat sartzan bada, ikastetxeko zuzendaritzak eman beharko du ibilgailua ikastetxera sartzeko baimena, eta ezingo du bat egin ikasleen sarrera, irteera eta jolas-orduekin. Gainera, ikastetxeko zuzendariak edo ordezkatzan duen pertsonak lagundu beharko diote. Kasu hauetan, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta ikastetxearen eremuaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita haiek seinalatzearen ingurukoak ere.

Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

#### 4.2.4. Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

Obrak egiteko, segurtasun- eta osasun-azterketa bat sartuko da proiektuan, jarraibideak zehazteko. Obra txikiak direnean, jarraitu beharreko segurtasun-plan bat erantsiko zaio lantokiaren irekierari.

- Edozein kasutan ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat bereizi beharko dira. Horrek eskatzen du:
  - Obra-eremua erabat hesitzea.
  - Obrakoak bakarrik diren ibilgailuak eta langileak sartzeko bideak sortzea.
  - Obrakoa ez den pertsona orori sartzeko galarazteko kartela.
  - Ibilgailuak sartzan diren atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela.
- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-gunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneek argi eta garbi berezita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarrabide eta adierazpenekin. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzaren eskura ere jarriko da.
- Obrako ibilgailuek irakaskuntza-gune irekitik sartu behar badute, obrako arduradunak langileak jarriko ditu etengabe sarrera-irteerak kontrolatzeko eta eskolako ikasleen eta langileen segurtasuna bermatzeko.

#### 4.2.5. Tabakoa eta alkoholdunedariak.

Ikastetxeko zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da. Izan ere, tabako eta alkoholdun edarien espedizioa eta kontsumoa debekatuta daude ikastetxeetan, ikasleen adina eta irakaskuntza mota edozein izanik ere.

<sup>18</sup> Eusko Jaurlaritza (2006). Eskola-orduetako osasun-arretarako protokoloa



#### 4.2.6. Eskolako laborategien erabilera.

Laborategietako jardunak ikasleen adinaren eta gaitasun-mailaren arabera izan behar du, baita instalazioen baldintza teknikoaren arabera ere. Pertsonen segurtasuna bermatu behar da betiere, eta indarrean dauden protokoloek agintzen dutena bete.

#### 4.3 PLAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUAK.

Gogorarazten da lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio guztia <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-lapz/> webgunean dagoela, «Prebentzio Zerbitzua» atalean, eta prebentzio-zerbitzuko teknikariei ere kontsulta egin dakiekeela.

<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>	<i>LAPZ Arduraduna</i>	<i>945 018 411</i>
	<i>Higiene arloa</i>	<i>945 018 451</i>
	<i>Psikosoziologia arloa</i>	<i>945 016 546</i>
	<i>Segurtasuna arloa</i>	<i>945 016 545</i>

<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>	<b>ZONA</b>	<b>ARLO TEKNIKOA</b>	<b>LAN OSASUNAREN ARLOA</b>
<b>ARABA</b>	1. ZONA	<i>945 01 84 51</i>	<i>688670550</i>
<b>BIZKAIA</b>	1. ZONA	<i>94 403 11 92</i>	<i>94 4031194</i>
	2. ZONA	<i>94 403 11 93</i>	
	3. ZONA	<i>94 403 11 93</i>	
	4. ZONA	<i>94 403 11 92</i>	
<b>GIPUZKOA</b>	1. ZONA	<i>943 02 31 74</i>	<i>943 023170</i>
	2. ZONA	<i>943 20 84 44 181 luzapena</i>	<i>943 700491</i>

##### 4.3.1 Segurtasuneko laguntzailea.

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zatibatesle itzuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio-zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean 8etatik 11etara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean nolabaiteko egonkortasuna duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

##### 4.3.2. Irakasleen prestakuntza prebentzio-arloan.

Langileak prebentzio-gaietan trebatzeko betebeharra (31/1995 Legea, Hezkuntza Sailarenak, 19. artikuluan xedatzen duena) betetzeko eta langileek 31/1995 Legeko 29. artikulua betetzeko, irakasleak prestatzeko edo/eta ikastetxeari dedikatzen orduetako 2 erabili behar dira gutxienez urtean.



Prebentzio-zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du prestakuntza, behar den aurrerapenarekin zehaztutako egun eta orduetan.

#### 4.3.3. Larrialdi-simulakroak.

Urtean behin nahitaez egin beharrekoa denez, IUPan sartu behar da.

Ikastetxe guztietan egingo da, gutxienez urtean behin, eta, ahal izanez gero, ikasturtearen hasieran.

Simulakroaren ebaluazioa bidaltzeko bide bakarra dago: **Segurtasuna-Larrialdiak** atalean prestatutako web-formularioa erabili behar da.

#### 4.3.4. Botikin eramangarria.

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duenaren arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituena: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta, iraungi edota erabili bezain laster, berria jarriko da.

Eskatu eta birjartzeko:

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile\\_sprl\\_botiquines/eu\\_def/adjuntos/Botiquines\\_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_sprl_botiquines/eu_def/adjuntos/Botiquines_e.pdf)

#### 4.3.5.- Laneko istripuak.

Osasun zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Saileko web orrian **Segurtasuna-Lan istripuak** deitutako atalean agertzen den eskemaren arabera egingo dira.

<http://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>

Zuzendaritza taldeak bajadun zein bajarik gabeko istripu guztiak erregistratuko ditu.

Ikastetxeko langileek jasandako erasoak lan istripuztat jotzen dira, nahita edo nahigabe egin direnak eta erregistroan sartuko dira.

Amatasuna babesteko prozedura barruan erregistro hau zein ikastetxean gertatutako gorabeherak jasotzen dituena eska daiteke.

#### 4.3.6.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa.

Informazioa entregatzeko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen arriskuei buruzko ebaluazioa eta larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langileei.

### 4.4.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUAREN TRAMITAZIOA ETA ORDAINKETA.

DBHko 3. mailatik unibertsitateko hirugarren ziklora bitarteko 28 urtetik beherako ikasle guztiek Gizarte Segurantzaren Eskola Aseguruan sartuta egon behar dute. 2018-2019 ikasturteetik, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek aseguru horren tramitazioa eta ordainketa egin behar dute, jarraian



adierazten den moduan:

1.- Urriaren 31n ikastetxeak Hezkuntza Sailera igorriko du, aldez aurretik jakinaraziko zaion helbide elektronikora idatzita, EXCEL fitxategi bat, informazio hau bilduz: ikastetxearen izena, 8 zifrako kodea, KKK (kotizazio-kontuko kodea) eta egun horretara arte ikastetxean matrikulatu diren eta eskola-aseguruan sartu behar diren ikasle guztien datuak. Ikasle bakoitzari buruzko datu hauek eman beharko dira fitxategian:

- Ikaslearen identifikazio-dokumentu mota (NAN, AIT, etab.)
- Ikaslearen identifikazio-dokumentuaren zenbakia (letrabarne, halakorik dutenen kasuan)
- Izena
- Lehen abizena
- Bigarren abizena (halakorik dutenen kasuan)

2.- Hezkuntza Sailak elektronikoki sartuko ditu datu horiek guztiak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informatika-aplikazioan, eta eskola-asegurua kuoten likidazio-agiria jasoko du (ordainketa-gutuna). Ikastetxe bakoitzari posta elektronikoz igorriko dio dokumentu hori. Ikastetxeak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du edozein finantza-erakundetan, ordainketa-gutuna jaso eta bost eguneko epean, gehienez ere.

3.- Hori egin ostean ikasle gehiago matrikulatzen badira eta ikasle horiek eskola-aseguruan sartu behar badira, ikastetxeak azaldutako prozedura berriz egin beharko du, behar adina aldiz. Matrikulatutako ikasle berrien datuak dituzten EXCEL fitxategiak hileko azken egunean egingo dira, azaroaren 30etik ekainaren 30era bitartean, hilabete horretan matrikulazio berririk izan bada. Kasu horietan, aurreko bi ataletan deskribatutako prozedura errepikatuko da.

#### 4.5.- DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 EB Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Gainera, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea bete beharko dute.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarriko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hizkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratuta eduki behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeak bere funtzioak gauzatzeko tratatzen dituen datu pertsonalen jabea ez da hezkuntza-zentroa bera; aitzitik, datu horiek ikasleenak, horien senideenak, ikastetxeko langileenak edo harekin harremana duten beste pertsona fisiko batzuenak dira. Horiek dira informazio pertsonalaren benetako titularrak.

Erabilzaileek eskubidea izango dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta beste norabaitera eramateko, baita haien trataera mugatzeko edo trataeraren aurka egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki zaindu beharrekoa da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Ikasleen osasunari buruzko datuak dira, esate baterako, hezkuntza-premia bereziei buruzkoak (adibidez, desgaitasunen bat), alergia edo intolerantzien ingurukoak, bai eta ikasleen txosten psikopedagogikoetan jasotako datuak ere, besteak beste.



Baliteke ikastetxeek —zehazki, bertako langileek— jakin behar izatea ikasleek gaixotasun edo alergia jakin batzuk badituzten. Horretarako, informazio hori ahalik eta berme handienarekin tratatzeko neurriak hartuko dituzte.

Horregatik, eta eraginpeko ikasleen gurasoekin adostuta, beharrezko protokoloak ezarriko dira informazio hori behar bezala tratatzeko, hala ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgelako egonaldia, jolas-garaiak, gorputz-hezkuntza, jantokia, erizaindegia, ebaluazio psikopedagogikoa, etab.) nola ezohiko egoeretan (maisua maistren edo tutoreen ordezkapenak, urteurrenen ospakizunak, txangoak, udalekuak, etab.).

#### **4.6.- IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA**

Obra bateko pasarteak eta banako obra plastiko edo fotografikoak erreproduzitu, banatu eta jendaurrean jakinarazteko, kontuan izango da Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginak dioena (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), gai horri buruzko indarreko legezadapenak erregularizatuz, argituz eta harmonizatuz (ikus, batik bat, 32. artikulua).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 24a

Maite Alonso Arana  
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA